

TXOSTENA

3

EMAKUMEAK

EUSKAL

AUTONOMI

ELKARTEAN



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EMAKUMEAK

EUSKAL

AUTONOMI

ELKARTEAN

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1992

IZENBURUA: "Emakumeak Euskal Autonomi Elkartean".

EGILEA: EMAKUNDE/ Emakumearen Euskal Erakundea.
Manuel Iradier kalea, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz.

NOIZ: 1992.eko abendua.

ALE KOPURUA: 2.000.

DESKRIPTOREAK: Emakumearen egoera, datu estatistikoak, demografia, irakaskuntza, lan merkatuko partaidetza, osasuna, partaidetza politikoa, bazterketa.

ISBN: 84-87595-14-6

LEGE GORDAILUA: VI-812/92

IMPRIMATZAILEA: Gráficas Santamaría, S. A.
Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz.

DISEINU GRAFIKOA: D.G.

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	13
1. EMAKUMEAK, ADINA, UGALKETA ETA FAMILIA	17
1.1. Emakumezkoen populazioa eta egitura	19
1.2. Emakumea, jaiotzak eta familia eratzea	22
1.2.1. Jaiotzak eta ezkontzak	22
1.2.2. Etxebizitzen bilakaera eta neurriak	25
1.2.3. Etxeko gunea	26
1.3. Ezkontzaz kanpoko jaiotzak eta bizikidetza	29
2. EMAKUMEAK ETA HEZKUNTZA	31
2.1. Emakumeen gaurreguneko prestakuntza maila	33
2.2. Emakumeen gaurreguneko prestakuntza bideak	35
2.2.1. Emakumeen egoera araututako irakaskuntzan	35
2.2.2. Emakumeen egoera arautu gabeko irakaskuntzan	46
2.3. Emakumea profesionari gisa Hezkuntza Sisteman	50
2.4. Hezkidetzaren egoera Hezkuntza Sisteman	51
2.4.1. E.K.A.ko oinarrizko curriculum diseinua	52
2.4.2. Hezkidetzaren esperientzia E.K.A.ko Hezkuntza sisteman	52
3. EMAKUMEAK ETA LANA	55
3.1. Emakumezko populazioaren iharduerarekiko banaketa	57
3.2. Ihardunean den emakumezkoen populazioa. Ezaugarri soziologikoak	58
3.3. Langabezian dagoen emakumezkoen populazioa. Ezaugarri soziologikoak	65
3.4. Lan arloko motibazioa, poztasuna eta itxaropenak	69
3.5. Lan harremanak eta bazterkeria lan arloan	71
3.5.1. Sexua eta lan merkatua	71
3.5.2. Sexua eta lan iharduera	72
3.5.3. Sexua eta ekonomia murgildua	73
3.5.4. Sexua eta soldata	73
3.6. Emakumea, lana eta etxea	74
4. EMAKUMEAK ETA OSASUNA	77
4.1. Osasunaren erakuskari orokorrak	80
4.1.1. Heriotzaren erakuskariak	80
4.1.2. Erikortasunaren erakuskariak	84
4.1.3. Arrisku bideak	86

4.2.	Ugalketa arloko osasuna	89
4.2.1.	Famili plangintza	90
4.2.2.	Haurdunaldiaren arazoak	92
4.2.3.	Amatasuna	97
4.2.4.	Haurdunaldiaren borondatezko etendura	101
5.	EMAKUMEAK, KULTURA ETA POLITIKA	105
5.1.	Garrantzi gehien ematen zaien baloreak	107
5.2.	Jarrera-alaketak	108
5.3.	Bizikidetasuna eta familia	109
5.3.1.	Ezkontzari buruzko erizpidea	109
5.3.2.	Bizikidetasun motak	113
5.3.3.	Familiari buruzko erizpideak	115
5.4.	Jarrera erlijiosoa	117
5.5.	Emakumezkoen hautapen politikoak eta haien presentzia instituzioetan	119
5.5.1.	Hautapen politikoak	119
5.5.2.	Emakumezkoen presentzia instituzioetan	120
6.	ESTUASUNA ETA BAZTERKETA	125
6.1.	Pobreziaren feminizazioa	128
6.1.1.	Estuasunaren eragina familiburu emakumea denean	129
6.1.2.	Guraso bakarreko familiak; oraindik dirauen eredua	133
6.1.3.	Bereizte nahiz dibortzioaren ondoriozko pentsioak ez ordaintzea	134
6.2.	Bazterketa	135
6.2.1.	Tratu txarrak emakume helduari	135
ERANSKINA		147

TAULEN AURKIBIDEA

	Orr.
1. EMAKUMEAK, ADINA, UGALKETA ETA FAMILIA	17
1.1. 1991ko eskubidedun populazioa, sexuaren arabera eta lurraldez lurralde	19
1.2. Eskubidedun populazioaren bilakera 1981/1991 bitarteko epean sexuaren arabera eta lurraldez lurralde	19
1.3. E.K.A.ko populazioaren egitura, 1975, 1981 eta 1986ean, sexuaren eta adinaren arabera sailkatua	20
1.4. Gaztetasun indizea. 15 eta 35 urte arteko populazioa, biztanlego osoarekin alderatuta, sexuaren arabera, eta portzentaia aldaketa 1986/81 eta 1986/75	21
1.5. Zahartasun indizea. 65 eta 75 urtetik gorako populazioa, 1975, 1981 eta 1986ko biztanleko osoarekin alderatuta	21
1.6. 65 urte eta gehiago eta 75 urte eta gehiagoko biztanlego osoarekiko emakumezko eta gizonezko populazioaren portzentaiak 1975 eta 1986an	21
1.7. Ezkontzen eta jaiotzen bilakera E.K.A.n	22
1.8. Ezkontzeko batez besteko adina E.K.A.n	24
1.9. Lehenbiziko jaiotzen bilakaera, osotara. Amaren batez besteko adina, lehenengo haurra jaiotzean	25
1.10. Famili nukleoen bilakaera E.K.A.n	25
1.11. Pertsona bakarreko eta guraso bakarreko emakumezko familien bilakera	26
1.12. Haurrak nork zaintzen dituen benetan	27
1.13. Etxeko lanak nork	28
1.14. Etxeko lanetan ematen den denbora	29
1.15. Ezkontzaz kanpoko jaiotzen bilakera, amaren adinaren arabera	30
2. EMAKUMEAK ETA HEZKUNTZA	31
2.1. 10 urte eta gehiagoko populazio ez-ikaslea, eginak dituen ikasketak sexuen arabera sailkatua	33
2.2. 10 urte eta gehiagoko populazio ez-ikaslea, analfabetismo funtzional mailaren eta sexuaren arabera	34
2.3. Eskolaurreko ikasleen banaketa, sexu eta adinaren arabera sailkatuta	35
2.4. OHOkoko ikaslegoaren banaketa, sexu eta ziklotan sailkatuta	36
2.5. OHOkoko errepikatzaileak, sexu eta ziklotan sailkatuta	37
2.6. OHO amaitzean Eskola Graduatua eta Eskola Agiria lortzen duten pertsonen banaketa sexuaren arabera	38
2.7. Neskek eta mutilek irakaskuntza ertainetan egiten dituzten aukerak	39
2.8. LHko errepikatzaileak sexutan sailkatuta	40
2.9. IEEko ikaslegoaren banaketa sexutan sailkatuta	40
2.10. IEEko errepikatzaileak, sexutan sailkatuta	41

2.11.	BBB eta UBiko ikaslegoa, sexutan sailkatua	42
2.12.	BBB eta UBiko errepikatzailerak, sexutan sailkatuta	42
2.13.	HHiko ikaslegoa zikloka eta sexutan sailkatuta	43
2.14.	Ikasketak irakaskuntza unibertsitarioan egiten ari den populazioaren banaketa sexuen arabera	44
2.15.	Osabidezko Hezkuntzako ikaslegoa E.K.A.n	47
2.16.	Tailer-Eskola eta Ofizio Etxeetako ikaslegoa sexutan sailkatuta	48
2.17.	INEMek 1991n prestatutako langileak E.K.A.n, sexutan sailkatuta	49
2.18.	Langileko ez-irakaslea E.K.A.n, sexutan sailkatuta	51
3.	EMAKUMEA ETA LANA	55
3.1.	Biztanlego osoaren banaketa, bere iharduera, lanekoa eta lana kanpoko kon- tutan hartuta	57
3.2.	16 urte eta gehiagoko populazioa, iharduerarekiko erlazioaren ikuspegitik	59
3.3.	Iharduera tasen bilakaera	59
3.4.	Iharduera tasa eta iharduneko populazioaren banaketa adin multzotan sailka- tua	60
3.5.	Emakumezko eta gizonezko iharduera tasen bilakaera	62
3.6.	Iharduera tasak eta iharduneko populazioaren banaketa beren egoera zibila- ren arabera	62
3.7.	Iharduneko populazioaren tasak eta banaketa, egoera zibilaren eta adinaren araz sailkatuta	63
3.8.	Emakumezkoen eta gizonezkoen iharduera tasen bilakaera, egoera zibilaren eta adinaren araz sailkatuta	63
3.9.	Iharduneko populazioaren iharduera tasak eta banaketa, ikasketa mailaren eta adinaren araz sailkatuta	64
3.10.	16 urte eta gehiagoko populazioa, iharduneko eta lanik gabekoa	65
3.11.	Langabezia tasa eta lanik gabeko populazioaren banaketa, egoera zibilaren eta adinaren araz sailkatuta	66
3.12.	Langabezia aseguruaren kobrantza	67
3.13.	Langabezia tasak, arlo ekonomikoetan sailkatuta	67
3.14.	Emakumeek lan egiteko duten lehenengo arrazoiak	69
3.15.	Gaur egun duten lanarekiko poztasuna	70
3.16.	Gaur egungo lanpostuan segitzeko gogoia	71
4.	EMAKUMEAK ETA OSASUNA	77
4.1.	Bizitz itxaropena jaiotzean eta halako adin batzuetan, sexutan sailkatuta	80
4.2.	Urte betetik beherako haurren heriotza, eritasun larrien ondorioz, sexutan sail- katuta	83
4.3.	Hildakoen batez besteko adina, eritasun larrien ondorioz, sexutan sailkatuta	84
4.4.	Populazioaren banaketa, osasun profesionalengana joaten diren ala ez eta az- ken 12 hilabetetan eginiko kontsulten maiztasunen arabera, sexutan sailka- tua	85
4.5.	Populazio eritetxeratuaren banaketa, adinaren eta sexuaren araz sailkatuta ..	85
4.6.	Tabako kontsumoa sexutan sailkatuta	86

4.7.	Alkoholaren kontsumoa, sexutan sailkatua	88
4.8.	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta E.K.A.ko famili plangintzarako zentruetan egiten diren kontsulten arrazoiak. 1988	91
4.9.	Haurdunaldiaren kontrolak, E.K.A.ko profesionarien arabera, 1990	93
4.10.	Haurdunen banaketa, haurdunaldiaren kontrol kopuru egokiaren arabera sailkatuta, E.K.A. 1990	93
4.11.	Haurdunen banaketa, lehenbiziko kontutan hartuta, E.K.A., 1990	94
4.12.	Haurdunen banaketa, erditzeko prestaketa joan ziren eta nora kontutan hartuta	94
4.13.	Erditzeko prestaketa saioetara joan ziren edo joan ez ziren haurdunen banaketa, lan egiten duten, adina eta ikasketa maila kontutan hartuta. E.K.A., 1990	95
4.14.	Haurdunen banaketa, alkohol eta gabakoaren kontsumoaren arabera, arloz arlo, E.K.A., 1990	95
4.15.	Haurdunen banaketa, alkohol eta tabakoaren kontsumoaren arabera, erditze prestaketarako klasetara joan zen ala ez kontutan hartuta E.K.A., 1990	96
4.16.	Haurdunen banaketa, haurdunaldian gorabeherarik izan zuen edo ez kontutan hartuta, adinaren arabera, E.K.A., 1990	97
4.17.	Jaioberriak, beren amek 19 urte edo gutxiago izanik. Portzentaiak eta tasak E.K.A.n 1986tik 1990era	97
4.18.	Edoskitze mota, amaren adinaren arabera. E.K.A., 1990	98
4.19.	Edoskitze naturalaren hasiera, ama non bizi den kontutan hartuz. E.K.A., 1986-1990	99
4.20.	Erditze mota, amaren adina kontutan hartuz E.K.A., 1990	100
4.21.	Erditze mota, zesarea bidez, 1986tik 1990ra bidarte, E.K.A.n	100
4.22.	E.K.A.n egindako Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurak, 1985-1990	102
4.23.	H.B.E.k etenduraren arrazoiak kontutan hartuta E.K.A., 1990	103
5.	EMAKUMEAK, KULTURA ETA POLITIKA	105
5.1.	Zein balore diren garrantzizkoenak	107
5.2.	Ondoko gaiekiko kezka maila	108
5.3.	5.2. taularen gaiekiko kezka maila. Batez beste, adin multzoka sailkatuta	109
5.4.	Adostasun gradua: "Ezkontza ez dago modan"	110
5.5.	Adostasun gradua: "Nahiago dut ezkontza zibila erlijiosoa baino"	110
5.6.	Adostasun gradua: "Bikotearen helburua, ezkontzea"	111
5.7.	Adostasun gradua: "Ezkontzaren helburua, haurrak izatea"	111
5.8.	Adostasun gradua: "Ezkontzaren helburua, bikotearen harremanak sakontzea"	112
5.9.	Adostasun gradua: "Ezkontzak bikotearen laguntzaz heldutasuna lortzea adierazten du"	112
5.10.	Adostasun gradua: "Gaizki iruditzen zait bikotea elkarrekin bizitzea ezkondu gabe"	113
5.11.	Adostasun gradua: "Ongi iruditzen zait emakume batek haurrak eduki nahi izatea ezkondu gabe"	113
5.12.	Zein bizimodu duen nahiago	114
5.13.	Dibortzioari buruzko eritzia	114
5.14.	Adostasun gradua: "Seme-alabek parte hartu beharko lukete senitartekoan erabakietan, baina azken hitza beti gurasoek"	115

5.15.	Adostasun gradua: "Hurrei aske utzi behar zaie, debekurik eta zigorrik gabe"	116
5.16.	Adostasun gradua: "Erabaki nagusienak senarrak hartu behar ditu"	116
5.17.	Adostasun gradua: "Bikote batean pertsona batek bakarrik lan egiten badu, senarrak izan beharko da"	117
5.18.	Hautapen erlijiosoa	117
5.19.	Elizarako maiztasuna	118
5.20.	1990eko urriaren 28ko Autonomi Hauteskundeetan izan ziren boto emaitzak eta oroitzapena	119
5.21.	Emakumeak Eusko Legebiltzarrean	120
5.22.	Emakumeak Eusko Jaurlaritzako Goi Kargudunen artean (PNV-EAJ/PSE)	121
5.23.	Emakumeak Batzar Nagusietan, 1991	122
5.24.	Emakumeak Foru Diputazioetan, 1991	122
5.25.	Emakumeak Udaletan, 1991	123
6.	ESTUASUNA ETA BAZTERKETA	125
6.1.	FGD (Familiaren Gutxieneko Dirusarrera), LSL (Larrialdi Sozialetarako Laguntza) eta Multzoa (Beste biak biltzen dituen) izeneko laguntzak jaso zituzten familiak, familiburuaren sexuaren arabera sailkatuta	130
6.2.	Familiaren sailkapena, haztapen ekonomiko subjektiboa kontutan hartuz eta pertsona nagusiaren sexuaren arabera	132
6.3.	Familiak portzentaietan, familiburuaren sexuaren arabera sailkatuta	133
6.4.	Bereizte edo dibortzioaren ondorioz ezarritako pentsioak ez ordaintzea, 1981-89ra bitarte, lurraldez lurralde	134
6.5.	E.K.A.ko polizi komisaldegietan, senarrak emazteari tratatu txarrak emateagatik jarritako salaketak, 1991	137
6.6.	Emazteek noizten dituzten tratatu txarrak direla eta, beren senarraren kontra egindako salaketak, Komunitate Autonomotan sailkatuta. Mila emakume ezkondu bakoitzeko tasa. 1989	138
6.7.	Emazteek noizten dituzten tratatu txarrak direla eta, beren senarraren kontra egindako salaketak, Polizi Komisaldegietan sailkatuta, 1985 eta 1990 bitartean	139
6.8.	Sexu askatasunaren aurkako delituei buruzko kriminalitate orokorra eta erlatiboa, urtez urte eta probintzika	140
6.9.	Bortxaketa eta eraso delituak, ezagutu izan direnak. Komunitate Autonomotan sailkatuta	141
E.	ERANSKINA	147
A.1.	E.K.A.ko populazioaren egitura, 1975, 1981 eta 1986an, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuta	149
A.2.	E.K.A.ko biztanlegoaren aldaketa portzentuala 1986an, 1981 eta 1975eko arekin alderatuta, adinaren eta sexuaren arabera sailkatuta	149
A.3.	E.K.A.ko ezkontzak, emaztearen adina kontutan hartuta	149
A.4.	E.K.A.ko jaiotzen bilakaera, amaren adina kontutan hartuta	149
A.5.	O.H.O.ko errepikatzaileak, sexuaren eta adinaren arabera	150
A.6.	Irakaskuntza Ertainetan hasten den ikaslegoaren hautapenen banaketa, sexuaren arabera	150

A.7. L.H.ko bigarren graduaren ikasleagoa irakaskuntza izaera eta adarra kontutan hartuz eta sexuaren arabera sailkatuta	150
A.8. Ikasleagoa, graduatan eta irakaskuntza izaera eta adarra kontutan hartuz eta sexuaren arabera sailkatuta	151
A.9. HHleko emakumezko ikasleak zikloa eta adinaren arabera	151
A.10. E.K.A.n bertako baliabideak erabiliz INEMek prestatu duen populazioa 1990ean, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuta	152
A.11. Euskadiko K.A.ko irakasleagoa, sexutan sailkatuta	152
A.12. Berrikuntza proiektua eta irakasleentzako mintegiak, Hezkuntza Sailak 1990/91 eta 1991/92 ikasturterako onartutakoak	153
A.13. Heriotzak, adinaren arabera sailkatuta eta heriotz eragileen multzo murriztuak, sexutan banatuta	154
A.14. Osasun arazoen iraupena populazioan, adin eta sexutan sailkatuta	155
A.15. Populazioaren banaketa, aisialdian egiten den ariketa fisikoaren arabera, adin eta sexutan sailkatuta	155
A.16. Gurasobakarreko familien proportzioa zenbait estatutan	156
A.17. 1981-1989 bitartean ordaindu ez diren pentsioak, lurraldez lurralde eta portzentaiak kontutan hartuz	156
A.18. Emazteek nozitzen dituzten tratu txarrak direla eta, beren senarraren kontra 1985 eta 1990 bitartean egindako salaketak, Polizi Komisaldegien eta tratu txarren arabera sailkatuta	157
A.19. Sexu askatasunaren aurkako delituei buruzko kriminalitate orokorra eta erlatiboa, urtez urte eta probintzia	158



AURKEZPENA

"Euskal Autonomi Elkarteko Emakumeak" txostenak emakumeen egoera, premia, eritzi, balio eta jarrerei buruzko ikuspegia ematen du, hainbat esparru kontutan hartzen dituelarik: familia, heziketa, kultura, politika, osasuna, lana eta segurtasunik eza edo baztertzea, beti ere autonomia-elkartearen mailan.

Hor jasotako datuetan ikus daitekeenez, ageri den errealitatea ez da gure gizarteko pertsonen askatasunez egindako aukeraren ondoriozkoa. Sexuaren ondoriozko rolak izateak eta hauek neska-mutikoen gizarteratzean eragina izateak, lanbidea hautatzeak, lan-munduan sartzeko aukerak, lanean aurrera egiteko zailtasunek, herri-bizitzan zenbateraino parte hartzen den, etabarrak, eragina izaten dute, gehiago edo gutxiago, pertsonen egiten duten aukeran. Eta aukeraketa ez da pertsona bakoitzaren gaitasunaren arabera egiten, sexuaren arabera baizik, oraindik ere zenbait egiteko emakumeenak eta beste zenbait gizonenak direla uste baita. Guzti horren ondorioz, zenbait egoera ez dira aukeraketa ere izaten, gizartean eta norbanakoengan finkatutako rolak onartu besterik ez dira egiten eta.

Azterlan honek erakusten digunez, gure gizartean gizon eta emakumeek arlo guztietan parte hartze maila bera izateko, oraindik ere asko dago egiteko. Oreka falta hori gehienetan emakumeen kalterako da, nahiz eta azken hamarkadetan emakumeen lana neurri handi batean eskubide osoko pertsonena bezalakotzat hartzea lortu duten.

Aukera ezberdintasun horri aurre egiteko moduko politika benetan eraginkorrak bultzatu nahi badira, ezinbestekoa da errealitatea sakonki ezagutzea, eta horrek eragin du, hain zuzen ere, Emakundek orain aurkeztu duen lan hau egitera. Lan honetan iaz argitaratutako "Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen egoerari buruzko txostena" lanean jaso ziren zenbait datu eguneratzeaz gainera, lantzen ari garen arloan aurrerapenak izateko eragin handia duten kontu batzuetan sakondu egin da, ez bakarrik emakumeen onerako, gizarte osoaren onerako baizik.

Hala, bada, hezkuntza-alorrari buruzko azterketan hezkidetzaren aipamena zehaztu egin da, ikasleak, mutil edo neska izan, hezitzeko balio-sistema berri bat sortu nahi duelako hezkidetzak: sexuen arteko aldeak abiapuntutzat hartu dira, baina orain arteko rol-banaketa, batzuen zein besteen askatasunezko aukerak murriztu dituen, onartu gabe, eta era berean, helburu hauek lortzeko irakasleek zenbaterainoko garrantzia duten azpimarratuta.

Azterlan horretan lan-munduan emakumezko gutxiago dagoela eta ia-ia guztiak etxeko lanetan aritzen direla nabarmendu da. Tratu txarrak bereziki aipatu beharrekoak dira, gehienbat emakumezkoek jasan behar izaten dituzte eta. Horiek askotan onartu eta beharrezkotzat ere hartzen dira eta edozein gizarte-mailatan gertatzen dira, ekonomia eta kultura maila guztietan.

Aurreko guztiaren ondorio bezala esan daiteke gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko ahaleginak egin badira ere, eta aurrerapausu nabarmenak izan badira ere, oraindik aztertutako arlo guztietan sexuaren ondoriozko bereizkeriak jarraitu egiten duela.

Gauzak hala, uste dugun bezala, herri-erakundeetan denentzako eta ugaritasuna errespetatzen duen etorkizuna sortzea bultzatuko duen politika garatzeko erantzukizuna dugu, beti ere emakumeen adierazpiderako eta parte hartzeko aukera-berdintasuna eta emakumeen ezagupen eta balioak kontutan izanda.

Iz. Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE /Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

1

**EMAKUMEAK, ADINA,
UGALKETA ETA
FAMILIA**

EMAKUMEEN POPULAZIOA ETA BERE EGITURA

1.1

Euskadiko Komunitate Autonomoko (E.K.A.) emakumeen populazioa 1.064.700 emakumek osatzen dute, beraz biztanlego osoaren % 50,9, 1991ko martxoaren 1eko datuen arabera. Hiru lurralde historikoetan, emakumeen populazioa gizonezkoari gailentzen zaio gutxiatik baldin bada ere, 1.1 taulan ikus daitekeenez.

1.1. TAULA 1991ko eskubidedun populazioa, sexuaren arabera eta lurraldez lurralde (mila pertsonatan)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA EKA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	136,1	50,2	587,4	51	341,2	50,8	1.064,8	50,9
Gizonak	134,9	49,8	563,4	49	330,5	49,2	1.028,9	49,1
GUZTIRA	271	100	1.150,8	100	671,7	100	2.093,7	100

Iturria: EUSTAT. Populazioa eta etxebizitza. Behin-behineko emaitzak.

E.K.A.ko biztanlegoa, oro har, 1986az geroz % 1,98 murriztu da eta 1981az geroz, % 2,25, esan nahi baita, 48.097 biztanle gutxiago garela azken hamarkadan. Ikus 1.2 taula.

Azkeneko hamar urte honetan, Araba da bere biztanlegoa gehitu duen lurralde historiko bakarra, +% 5,12; Bizkaiak eta Gipuzkoak aldiz, ehuneko beherapen berdintsuak dituzte, -% 3,23 Bizkaiak eta -% 3,3 Gipuzkoak.

1.2. TAULA Eskubidedun populazioaren bilakera 1981/1991 bitarteko epean sexuaren arabera eta lurraldez lurralde (portzentaia aldaketak)

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA EKA	
	% gehik. 91/86	% gehik. 91/81	% gehik. 91/86	% gehik. 91/81	% gehik. 91/86	% gehik. 91/81	% gehik. 91/86	% gehik. 91/81
Emakumeak	1,80	6	-1,95	-2,37	-2,29	-2,51	-1,61	-1,43
Gizonak	0,74	4,25	-2,86	-4,10	-2,76	-4,09	-2,37	-3,07
GUZTIRA	1,23	5,12	-2,40	-3,23	-2,54	-3,30	-1,98	-2,25

Iturria: EUSTAT, Populazioa eta etxebizitza, 1991 eta bertan prestatutakoa.

1981tik hona, emakumezkoen populazioa ez da hainbeste gutxitu, -% 1,43, gizonezkoena -% 3,07 izan den bitartean. Bizkaiak eta Gipuzkoak berdintsu gertatu da. Araban, azken hamar urte honetan, emakumezkoen populazioak gorakada handiagoa izan du, % 6, gizonezkoenak baino, % 4,25.

1975etik gaurdainoko euskal biztanlegoaren egitura aztertzean, adina eta sexuaren arabera, bi gertakari funtsezko agertzen zaizkigu.

Lehenik eta behin, gazteen gutxitze nabaria 15 urtetik beherakoen artean. Jaiotza-tasak izan duen murrizketa dela eta, adin horretako multzoa 1975ean % 27,9 izatetik 1986an % 21,8 izatera jaitsi da (ikus 1.3 taula); horrek 112.100 pertsona gutxiago suposatzen du, 0-tik 14 urte artekoen artean hamarkada batean, % 19,4 murriztu da. Eranskineko A.1 eta A.2 taulak.

Bigarrenik, adinekoen gehikuntza, 45 urtetik gorakoak. Era berean 65 urte eta gorakoen multzoak ere gora egin du 75/86 arteko hamarkadan 47.000 pertsona gehiagorekin, horrek % 27,5eko gehikuntza adierazten du. Eranskineko A.1 eta A.2 taulak.

Emakumezkoen populazioari dagokionez, nahiz eta 0-tik 14 urte artekoen beherapena gizonezkoenaren parekoa izan den, —% 19,4 azken hamarkadan, epe berean gizonezkoena —% 19,3 izan baita, 65 urtetik aurrera emakumezkoen presentzia zenbaki absolutuetan eta portzentaian handiagoa izateaz gain azken hamar urte honetan gehiago hazi da gizonezkoena baino, % 30,1 eta % 23,3, eranskineko A.2 taulan ikus daitekeen bezala.

1.3. TAULA E.K.A.ko populazioaren egitura, 1975, 1981 eta 1986ean, sexuaren eta adinaren arabera sailkatua. (% bertikalak)

	1975			1981			1986		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
0-14	26,9	28,9	27,9	24,7	26,7	25,7	20,9	22,7	21,8
15-29	23,4	24	23,7	23,7	24,5	24,1	24,5	25,7	25,1
30-44	19,7	20,7	20,2	19	20	19,5	19,9	20,9	20,4
45-64	20,2	19,7	19,9	21,6	21,6	21,6	22,3	22,6	22,5
65 Y +	9,8	6,7	8,3	11	7,2	9,1	12,3	8	10,2

Iturria: EUSTAT, 1970-1986, Demografia herrenkada homogenoak. Bertan egindakoa.

Gaztetasun indizea, 1.4 taula, bai 15 urte arte, bai eta 25 urte arte ere, zertxobait apalagoa da emakumezkoen populazioan, eta aldi berean portzentaiaeren beherapen handiagoa erakusten digu gizonezkoen populazioarekin konparatuta, aldeak txikiak diren arren. Arestian azaldu den bezala, gazteriaren beherapen demografikoa, 1975etik hona, 15 urtetik beherakoetan bakarrik nabari da, bada, 15 eta 25 urtekoen artean populazioak gorantz egin baitu, hamarkada honetan % 1,1, alegia.

1.4. TAULA Gaztetasun indizea. 15 eta 35 urte arteko populazioa, biztanlego osoarekin alderatuta, sexuaren arabera, eta portzentaia aldaketa 1986/81 eta 1986/75

	< 15 URTERA ARTE			< 25 URTERA ARTE		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
1975	26,9	28,9	27,9	42,8	45	43,9
1981	24,7	26,7	25,7	41,3	43,8	42,5
1986	20,9	22,7	21,8	37,6	40,3	38,9
Gehik. 1986/81	-15,4	-15,0	-15,2	-9,0	-8,0	-8,5
Gehik. 1986/75	-22,3	-21,5	-21,9	-12,1	-10,4	-11,4

Iturria: EUSTAT, 1970-1986, Demografia herrenkada homogenoak. Bertan egindakoa.

Zahartasun indizeak eta haren bilakaerak, 1,5 taula, funtsezko hiru ezaugarri erakusten dizkigu:

- 65 urtetik gorakoen kopuruak gora egin du: beraz, adinekoak gero eta gehiago dira.
- Aldi berean, 75 urtetik gorakoen populazioak ere gora egin du: zahar gehiago ezezik hauek, batez beste, lehen baino zaharrago izan ohi dira gaur egun: 1975ean 75 urte eta gorakoen multzoa 65 urtetik gorakoen artean % 32,8 baldin bazen, 1986an aldiz, portzentaia hori % 39,7ra igo da.
- Zaharren populazioan emakumezkoen proportzioa gehituz doa, batez besteko adina gizonetzkoena baino aski altuagoa delarik. Zenbat eta zaharrago hainbat eta nabariago emakumezkoen proportzioa. 65 urtetik gorakoen artean proportzioa baldin bada kasik 4 gizonetako, 6 emakumezkoen parean, 75etik aurrera proportzioa ia 3/7 bihurtzen da.

1.5. TAULA Zahartasun indizea. 65 eta 75 urtetik gorako populazioa, 1975, 1981 eta 1986ko biztanleko osoarekin alderatuta

	> 65 URTETIK GORA			> 65 URTETIK GORA		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
1975	9,8	6,7	8,3	3,5	1,9	2,7
1981	11	7,2	9,1	4,3	2,3	3,3
1986	12,3	8	10,2	5,3	2,8	4,1

Iturria: EUSTAT, 1970-1986, Demografia herrenkada homogenoak. Bertan egindakoa.

1.6. TAULA 65 urte eta gehiago eta 75 urte eta gehiagoko biztanlego osoarekiko emakumezko eta gizonetako populazioaren portzentaiak 1975 eta 1986an

	> 65 URTETIK GORA			> 65 URTETIK GORA		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
1975	59,9	40,1	100	64,4	35,6	100
1981	60,7	39,3	100	65,4	34,6	100
1986	61,2	38,8	100	66,2	33,8	100

Iturria: EUSTAT, 1970-1986, Demografia herrenkada homogenoak. Bertan egindakoa.

EMAKUMEA, JAIOTZAK ETA FAMILIA ERATZEA

1.2

JAIOTZAK ETA EZKONTZAK

1.2.1

Beraz, aipatu diren joera demografiko nabariak hauexek dira:

- Populazioaren gutxitzea, areago gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino.
- Jaiotzen beherapena azken hamarka hauetan. 1989an jaiotzen proportzioa milako 7,9 zen; 1980an berriz 13,5 eta 1970ean mila biztanleko 21. Horrekin batera bizi itxaropenak ere gora egin du, 72,2 gizonezkoentzat eta 79,6 emakumezkoentzat, 1983an. Gorabehera hauek aldaketa handiak eragin dituzte egitura demografikoaren baitan, hala nola, 15 urtez beherako populazioaren murrizte joera, eta 65 urtez gorako ugaltzearena.

Joera demografiko hauek erabateko eragina izango dute emakumeengan.


Izan ere, 1950etik 1970era Euskal Herrira bideratu zen inmigrazio uholdearen eraginez ezkontzak gehitu eta ezkontideen adina jaitsiz joan zen, eta horrekin batera jaiotzak galanki ugaltu ziren, esate baterako 1976an 1950eko jaiotzak halako bi izan ziren eta lehenbiziko haurra zuen ama gazteago izaten zen. 1975etik aurrera beste aro batean sartzen gara, murriztapen demografikoaren aroan, hain zuzen ere, eta jaiotzak nahiz ezkontzak behera egiten dute. Hurrengo taulan ikus daitekeenez E.K.A.an 1990ean izandako jaiotzak 1976an izandakoen % 40 baizik ez dira, eta ezkontzak 1975ean izandakoen % 60 besterik ez.

1.7. TAULA Ezkontzen eta jaiotzen bilakera E.K.A.n


	EZKONTZAK		JAIOTZAK	
	Abs.	100 = 1975	Abs.	100 = 1976
1950	7.729	45	20.061	49
1960	10.272	59	32.506	79
1970	13.531	78	38.927	95
1975	17.336	100	39.646	96
1976	16.093	93	41.100	100
1980	12.314	71	28.812	70
1985	9.955	57	20.970	51
1990	10.447	60	16.361	40

Iturria: MNP, INE eta EUSTAT.

1. GRAFIKOA. Ezkontzen bilakaera E.K.A.an (100 = 1975)



2. GRAFIKOA. Jaiotzen bilakaera E.K.A.an (100 = 1976)




Ezkontzak aztertuz gero, batez besteko adinak berriro gora egiten du, ikus 1.8 taula, eta ezkontza gehienak 25 urtera baino lehen egiteko joera hura hautsi egiten da. Ezkontza erdiak 25etik 29 urte artean egiten dira 1990ean, eta bidenabar, 30etik 40ra bitarte egindakoak 1980eko halako hiru dira. Eranskineko A.3 taula.

1.8. TAULA Ezkontzeko batez besteko adina E.K.A.n

URTEA	EMAKUMEAK
1950	27,5
1960	27
1970	25,6
1975	23,7
1980	23,1
1985	25,6
1990	26,6

Iturria: MNP, INE eta EUSTAT.

3. GRAFIKOA. Ezkontzen bilakaera. Ezkonberrien batez besteko adina E.K.A.an (%)



Jaiotzen arloak ere aldaketak jasan ditu. Jaiotzak nabarmenki murriztearekin batera, lehenengo haurrari ematen ohi zitzaion garrantzia areagotu egin da, eta horrek ekarri du bigarren haurraren eta gainerakoen berandutzea. Bestalde ama izateko adina ere gora doa, eta horrek badu zerikusia ezkontzeko adinarekin, gero eta zaharrago ezkontzen baitira. 1.9 taula.

Aldi berean, jaiotza portzentaia handiena amak 30 eta 34 urte dituenean izaten da, lehenago ez bezala, lehen jaiotza gehienak amak 25-29 urte zituenean izaten baitziren. Eranskineko A.4 taula.

1.9. TAULA Lehenbiziko jaiotzen bilakaera, osotara. Amaren batez besteko adina, lehenengo haurra jaiotzean

	LEHENBIZIKO JAIOTZAK		
	Abs.	Jaiotza guztien %	Amaren batez besteko adina lehenengo haurra jaiotzean
1975	15.522	39,2	25,9
1981	12.889	47,3	26,1
1986	10.198	50,8	27,1
1990	8.780	53,7	—

Iturria: MNP, INE eta EUSTAT.

ETXEBIZITZEN BILAKAERA ETA NEURRIAK

1.2.2

Ez dago dudarik ezkontza eta jaiotzaren plangintza eta egituraren izandako aldaketek erabateko eragina izan dutela etxebizitzaren bilakaera eta neurrietan. Bilakaera hori familiaren aldaketa sakonago baten zati bat da, gizarte industrialaren baldintzetara, modernizazio eta sekularizazio prozesuetara, egokitu beharra izan duena.

Horrela bada, aipatutako bilakaera demografikoarekin batera etorri da bereziki familiaren ingurumenaren nuklearizazioa. Horren ondorio zuzena izan da familia kopurua gehitu egin dela eta tamaina aldiz murriztu, eta bilakaera hori aski antzekoa izan da gizarte europarraren baitan.

1.10. TAULA Famili nukleoen bilakaera E.K.A.n (mila pertsonatan)

	1970	1981	1986
Pertsona bakarrekoak	21,3	44,7	49,7
Konposatuak	14,6	19,6	14,8
Nukleo batekoak	387,5	491,3	509,7
Nukleo batzuetakoak	31,2	22,6	21,3
GUZTIRA	454,6	578,2	595,4
BATEZ BESTEKO NEURRIA	4,1	3,7	3,6

Iturria: INE eta EUSTAT.

Hauek izan dira aldaketarik nagusienak:

- Famili kopurua handitzea, 1970etik 1986ra bitarte % 31ko gorakada.
- Familiak, batez beste, lehen baino txikiagoak, 4,1 1970an; 3,7 1981n; 3,6 1986an.
- Pertsona bakarreko nukleoak ugaltzea eta pertsona anitzetakoak murriztea.

- d) Famili nuklearraren gorakada, batez ere senar-emazte eta seme-alabez osatutakoena.
- e) Guraso bakarreko familien gehikuntza.

Bi talde dira, beraz, azkar gehitzen ari direnak eta hauskortasun sozial handia erakusten dutenak: guraso bakarreko familiak eta pertsona bakarrekoak.

1.11. TAULA Pertsona bakarreko eta guraso bakarreko emakumezko familien bilakera (mila pertsonatan)

	PERTSONA BAKARREKOAK GUZTIRA		PERTSONA BAKARREKOAK EMAKUMEZKOAK		GURASO BAKARREKOAK EMAKUMEZKOAK	
	Mila	% gehik	Mila	% gehik.	Mila	% gehik.
1981	44,7	—	30,5	—	37	—
1986	49,7	+11,2	36,1	+18,4	42,5	+14,9

Iturria: EUSTAT, Eusko Jaurlaritza.

Guraso bakarreko famili taldeen artean, % 86, ama eta bere seme-alabak osatzen dute 1986an. 1981-1986 bitarteko bost urte hauetan guraso bakarra ama den kasuak % 14,9 gehitu dira. Multzo hau etengabe ari da gehitzen 30 urtetik aitzina. Gutxi gorabehera, horien herena bere kabuz bizi den bitartean gainerakoa, ordea, beren jatorrizko familien menpe bizi dira.

Pertsona bakarreko familiak, era berean, gero eta ugariago dira, eta horrela 1981-1986 bitarteko bost urte hauetan % 11,2 gehitu da, eta joera hori areagotu egin da, 1980tik aurrera % 133ra iritsi delako. 1986an pertsona bakarreko familiak ia 50.000 ziren, eta horietatik % 73 emakumeek osatzen zuten. Pertsona bakarreko familien artean garrantzi handia hartu du bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako adineko pertsonen kopuruak, guztietatik % 57,7 suposatzen baitu, horrek ematen du 28.600 pertsona inguru 1986an. Adin horretatik aurrera, gizonezkoen hilkortasun tasa handiagoa denez gero, famili horietako gehienak, % 86,4, bakarrik bizi diren emakumeek osatzen dute.

ETXEKO GUNEA

1.2.3

Gertakari batzuek gure gizartean dauden jarrerak berdintzera daramatzate, esate baterako, sexu harremanekiko onarpen mailak gora egin du; familia nuklearizatuz doa, bere kideen indibidualizazioa eta errituen sekularizatzea suspertzen duelarik, eta lan merkatuan emakumeak gero eta partaidetza nabariagoa dauka. Hala eta guztiz ere, "famiaren antolamenduari eta ugalketari buruz suertatu diren aldaketa horiek ez dute eragin sakonik izan etxeko eremuan banatzen diren sexuaren araberrako eginkizunetan (1)".

Horrela bada, argi eta garbi azaltzen da etxean izaten diren funtsezko bi eginkizunetan: seme-alaben ardura izatean eta etxeko lanetan.

(1) **Emakunde.** Emakumea, familia eta etxeko gunea, argitaratu gabe. 1991an, 77 orrialdeak eta urrengoak.


Seme-alabak zaintzeko orduan, % 69 kasuetan amak izan ohi dira haien ardura beren gain hartzen dutenak, inoren laguntzarik gabe, eta % 8,8 kasuetan soilik baieztatzen da lan hori bien artean egiten dela. Kasu gutxi batzuetan baizik ez da emakumea kanpoko laguntza eske joaten, adibidez, haurtzain bati ordainduta, % 9,6, edo senitarteko baten laguntzaz, guztira ere % 5,4 dira.

1.12. TAULA Haurrak nork zaintzen dituen benetan. (N = 1314. % tan)

	EMAKUMEEN %
Amak zaindua	69
Aitak zaindua	0,9
Biek, aukeran	7,7
Haurtzaindegian	4,2
Etxean, haurtzain bati ordainduta	8,6
Etxean, senitarteko batek	4,4
Beste modutara	4,4
Ez daki/Ez du erantzuten	0,9
GUZTIRA	100

Iturria: EMAKUNDE. Emakumea, familia eta etxeko gunea, 1991. (Argitaratu gabe).

4. GRAFIKOA. Haurrak benetan nork zaintzen dituen portzentaiak (%)



Etxeko eginkizunen erantzukizuna ia osorik emakumearen gain egoten da. Hurrengo taulak erakusten digun bezala, emakumeen artean % 56k adierazten dute etxeko lanak berek eta ez beste inork egiten dituztela, eta % 27,3k diote batez ere berek egin behar izaten dituztela. Adierazpen horiek erakusten digute emakumeetako % 83,4arentzat etxeko lanak ia guztiz beren bizkar daudela. % 16,3 besterik ez dago zeregin horiek elkarrekin egiten dituztenak.

1.13. TAULA Etxeko lanak nork. (N = 1314. % tan)

	IHARDUENEAN DIREN EMAKUMEAK	ETXEKOANDRE JUBILATUAK	LANIK GABE DAUDENAK	GUZTIRA
Emakumeak bakarrik	42,6	65,9	52,3	56,1
Emakumeak batez ere	31,2	22,4	32,7	27,3
Emakumeak eta gizonak erdi bana	25,9	11,5	14,6	16,3
Gizonak batez ere	0,3	0,2	0,4	0,3
Gizonak bakarrik	—	—	—	—
GUZTIRA	100	100	100	100

Iturria: EMAKUNDE. Emakumea, familia eta etxeko gunea, 1991.

Zama hori areagotu egiten da emakumeak etxekoandre baldin badira. Hala ere, etxetik kanpo lanean ari diren emakumeen artean, lautik hirutan beren gain izan ohi dute lan horien erantzukizuna, eta lautik bat bakarra da etxeko lanak bikotearekin batera egiten duena.

Emakumeen artean zenbat eta zaharrago hainbat eta lotuago daude etxeko lanetara. Hori bera gertatzen da emakume ezkonduekin, horietako % 92k bere gain izaten baitituzte etxeko lan guztiak, gizon ezkonduen artean % 18 diren bitartean. Hauen artean, gazteenak baizik ez dira etxeko lanak ohituraz egiteko joera erakusten dutenak.

Aipatu monografian adierazi denez, batez ere emakume ezkonduen bizkar izaten diren zereginak, % 70etik goiti, hauexek dira: irensgailua pasatzea, komuna garbitzea, ontziak garbitzea, sukaldaritza, arropak ikuzi eta lisatzea, eta etxea jasotzea. Kopuru hori zertxobait jaisten da etxeko erosketa arloan, % 67k beti berek egin ohi dute, mandatuak % 67k egiten dituzte, eta haurrak medikuarengana eraman % 59k. Emakumeak ez dira hainbeste arduratzen konponketa lanetan, % 15, haurrei eskolan emandako etxerako lanetan, % 30, eta banku zein udaleko gestio orokorretan, % 33.

Etxeko lanak egin behar horrek lana franko eman eta ordu ugari jaten dizkie emakumeei. Ondoko laukian ikus daitekeenez, lanegun arrunt batean, batez beste, 4,3 ordu kentzen dizkie egunero, % 30,7k sei ordu baino gehiago lan egiten dutelarik egunean. Horretan denbora gehien ematen dutenak etxekoandreak dira, batez beste, 5,4 ordu, eta erdia baino gehiago sei orduz aritzen da egunean, eta gehiagok ere bai; ezkonduak, batez beste, 5 orduz, eta horietako % 41 6tik gora.

Emakumeek dirudienez asteburuetan ez dute atsedenerako asti gehiago izaten, alderantziz baizik, zeren astegunetan etxeko lanetan 4,3 ordu sartzen baditu, asteburuetan berriz 4,6.

1.14. TAULA Etxeko lanetan ematen den denbora (ohi denez emakumeek egiten dituztenak)

	IHARDUNEAN DIREN EMAKUMEAK	IHARDUERA ETXEKOANDRE JUBILATUAK	LANIK GABE DAUDENAK	EGOERA ZIBILA		
				EZKONGAIK	EZKONDUAK	GUZTIRA
Gehienez ordu bete	17,3	2,1	32,1	32,3	3,8	12,5
2 ordu	16,8	5,2	16,4	15,8	8,5	10,7
3 ordu	19,4	9,6	6,8	10,4	12,6	11,8
4-5 ordu	23,2	29,3	10,7	10	29,2	23,8
6-8 ordu	8,2	35,5	7,8	7,1	29,1	22,1
8 ordutik aurrera	0,7	16,1	0,4	1,2	11,9	8,6
Ez daki/Ez du erantzuten	14,4	2,4	25,7	23,3	5,1	10,5
BATEZ BESTEKO DENBORA	3,2	5,4	2,5	2,5	5	4,3

Iturria: Emakumea, familia eta etxeko gunea, 1991.

Datu hauek argi erakusten dutenez, eta salbuespenak salbuespen, etxeko gunea emakumearen esparrua da ia guztiz, eta alde horretatik lanen eta betebeharren kidetasunezko banaketa arras urrun dagoela ematen du; etxeko eremuak, agidanean, sakondu besterik ez du egiten horren tradiziozkoa dugun sexuaren arabeko banaketa eta eginkizunen bereizketa.

EZKONTZAZ KANPOKO JAIOTZAK ETA BIZIKIDETZA

1.3

1990ean 1.266 haur jaio ziren bizirik ezkontzaz kanpo, E.K.A. osoan, horrek urte hartan sortutako guztien artean % 7,7 ematen du.

70eko hamarkadaz gero, gorako joera nagusitu da, 1975ean sortutako guztien artean % 1,4 baitziren. 1985ean izan zen ezkontzaz kanpoko sortutako haur kopuru handiena, tasa gorena 1990ari badagokio ere.

Amaren adinaren arabeko jaiotzen banaketa joera nagusiei darraio, egunetik egunera ama bihurtzen direnen adina goraka bait doa; 25 urtera bitarte jaiotza gutxiago, eta hortik aurrera pixkanaka-pixkanaka gehituz doaz, bereziki 30 urtetik gora.

Gaztetxoan amatasunak, 20 urte artekoenak, ezkontzaz kanpoko jaiotzen arteko % 11,5 suposatzen du, beherantzako joera adierazten duelarik.

1.15. TAULA Ezkontzaz kanpoko jaiotzen bilakera, amaren adinaren arabera

	≤ 19	20-24	25-29	30-34	35-39	≥ 40	GUZTIRA	EZKONTZAZ KANPOKO JAIOTZAK GUZTIRA*
1975	19,1	41,7	19,4	12,3	4,5	3,1	100	1,4
1980	23,5	31,7	23,4	14	5,5	1,9	100	3,1
1985	16,4	27	31,6	15,6	7,2	2,5	100	6,7
1990	11,5	25,4	24,3	26,5	10,3	1,8	100	7,7

Iturria: MNP, EUSTAT.

(*) Ezkontzaz kanpoko jaiotzak
jaiotza guztiak $\times 100$

Jaiotzak murriztean, ezkontzak gutxitzean eta ezkontzaz kanpoko jaiotzen tasa igotzean bazirudien bateratze libreen kopurua gehituko zela, are gehiago oraingo gizarte eta famili giroko eroapena horren aldeko faktorea delarik. Halarik ere, badirudi zenbaki ofizialek ez dutela garrantzi hori baiesten, 1980-1986ko epean bat egite horiek 4.500 baitziren 1986an Eustat egituko Demografia eta Balidazioari buruzko inkestaren arabera.

Gehienetan, bikote gazteak dira, % 83 35 urtetik beherakoak, eta bateratzeko adina, batez beste, 23 urte izaten da.

Zenbaki horiei bagagozkie eta Europako beste herrialdekoekin alderatzen baditugu, Europako iparraldekoekin batez ere, non joera hori goraka bait doa, bizikidetzak hemen pisu txikia du.

Argi dago gazte jendearen langabeziak eta beste aukerabideko diru iturririk ezak gazte heldu horiei familiarekiko menpekotasun gordina dakarkietela. Bateratze libreak sortzeko, beraz, ezinbestekoa da, ez bakarrik sexu harreman goiztar eta ezkontzaz kanpokoenganako eroapen handiagoa, baizik eta ahalmen ekonomikoa, jatorrizko familiarik independizatu ahal izateko.

2

**EMAKUMEAK
ETA
HEZKUNTZA**

Hezkuntza sistemak eginkizun bikoitza dauka: alde batetik eginkizun sozializatzaileria, pertsonak gizartera egokitu eta bideratzen ahalegintzen dena, alegia; eta bestetik prestakuntza intelektuallaren eginkizuna, aro eta gizarte bakoitzean nabarmen erazitako eduki kulturalak transmititzen dituen. Eta hori guztia pertsona libreak egiteko, burujabeak eta garatzeko gai izango diren pertsonak.

Horregatik, hezkuntzarako sarbidea beharrezko baldintza da pertsona gizarteratzeko, horrek baldintzatzen baititu neurri handi batean geroko lan aukerak.

Aztertuko diren gaiak izango dira, alde batetik, emakumeak lortutako heziketa mailak, eta bestetik, araututako nahiz arautu gabeko heziketa barnean ikasketak egiten ari diren emakumeen egungo egoera.

Baina emakumea, ikaslea ezezik irakaslea ere bada, Hezkuntza Sistemari bere eginbeharra betetzen duena, eta horregatik aztertu behar da haren egoera eta ekimena, sistema barruan.

Hezkuntza munduan emakumeek duten egoerari buruzko azterketak ez du zenbakiak soilik jasotzen, horrezaz aparte, eta batez ere, azterketa kualitatibo bat da, horren barnean zer gertatzen ari den ikertzen duena, hain zuzen ere.

Emakumeak ehunetik ehun eskolaratzen badira ere, eta prestakuntza mailan gailurra jotzen badute ere, sozializazio kodeak aldatzen ez badira eta balore berriak bereganatzen ez badituzte ez emakumeek ez eta gizonek ere, ez dugu eskema zaharrak eta balore tradizionalak errepikatu baizik egiten. Horregatik da hain beharrezkoa Hezkuntza Sistemari hezkidetzaren arloan zertan egin den aurrera eta zertan atzera aztertzea.

GAURREGUNEKO EMAKUMEEN PRESTAKUNTZA MAILA

2.1


Emakumeetan erdiak baino gehiagok lehen mailako ikasketak baizik ez dituzte. Horiei erantzen badizkiegu inolako ikasketarik izan ez dutenak, kasik % 70era iristen dira, % 69,2, ikasketa mailarik apalenak dituzten emakumeak. Hori dela eta, baieztatu zitekeen beren heziketa amaitutzat eman duten emakumeen prestakuntza, oro har, guztiz apala dela. Gelditzen den % 30,7 hori honela banatzen da: % 22,2 maila ertaineko ikasketak eta % 8,5 besterik ez, erdi-goi mailakoak eta goi mailakoak.

2.1. TAULA 10 urte eta gehiagoko populazio ez-ikaslea, eginak dituen ikasketak sexuen arabera sailkatua. (% horizontalak)

	IKASKETARIK GABEKOAK	LEHEN MAILAKO IKASKETAK	LANBIDE HEZIKETA	IKASKETA ERTAINAK	BBB ETA UBI	IKASKETA ERT/GOI MAILAKOAK	GOI MAILAKO IKASKETAK	GUZTIRA	
Emakumeak	11,9	57,3	10,4	8,9	2,9	5,2	3,3	100	695.000
Gizonak	9,1	54,6	15,9	8,7	2,9	2,9	5,9	100	775.000
GUZTIRA	10,6	56	13	8,8	2,9	4,1	4,5	100	1.470.000

Iturria: EUSTAT, "Bizitza egoerari buruzko 1989ko inkesta". Bertan egindakoa.

5. GRAFIKOA. Populazio ez ikaslea sexuaren eta egindako ikasketen arabera (%)



Dena den, ez da ahanzi behar beren prestakuntza bidean segitzen duten emakumeak gizonezkoen maila berdintsuetara eta are goragokoetara iristen ari direla.

2.2. TAULA 10 urte eta gehiagoko populazio ez-ikaslea, analfabetismo funtzional mailaren eta sexuaren arabera

	ERRAZ IRAKUR DEZAKE	EZ DU ERRAZ IRAKURTZEN	%	ERRAZ IDAZTEN DU	EZ DU ERRAZ IDAZTEN	%	GUZTIRA
Emakumeak	92,6	7,4	100	91,3	8,7	100	695.000
Gizonak	97,5	2,5	100	95,9	4,1	100	775.000
GUZTIRA	94,9	5,1	100	93,5	6,5	100	1.470.000

Iturria: EUSTAT, "Bizitza egoerari buruzko 1989ko inkesta". Bertan egindakoa.

Alfabetatugabeko emakumeen portzentaia gizonezkoena baino askoz ere altuagoa da. Irakurtzeko eragozpenak dituen gizon bakoitzeko hiru dira egoera bereborean dauden emakumeak. Arazo larriak izan ohi dira analfabetismoa dela eta, eguneroko ekintzetan mailarik apalenean ere mugitzeko oztopoak sortu eta gizarteratze egokia galerazten duenean.

EMAKUMEEN GAURREGUNEKO PRESTAKUNTZA BIDEAK

2.2

Edozein pertsonak eskura dituen prestakuntza bideak bi multzo handitan sailka daitezke: arautuak, programazio akademiko bat izanik ikasketen bukaeran titulua ematen dutenak, eta arautugabeak, helburu gisa lan iharduera bati zuzendutako trebetasuna lortu nahi dutenak; azken hauek ez dute nahitaez titulu akademikorik ematen.

EMAKUMEEN EGOERA ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAN

2.2.1

Kapitulu honetan aztertuko da emakumeen kopuru erlatiboa, araututako irakaskuntza arloko hezkuntz maila bakoitzean.

ESKOLAURREA

Haurren Heziketa hitzak, Hezkuntz Erreformaren arabera, Oitk 6 urterarainoko umeen heziketaz arduratzea esan nahi du. Horren helbururik behinena da haurrak bere ahalmen afektibo, adimeneko eta sozial guztiak garatzeko bidean jartzea, izan ere, garaiz eskolaratzea pertsonen garapenean diferentziak sor ditzakeen elementu bat izan daiteke.

2.3. TAULA Eskolaurreko ikasleen banaketa, sexu eta adinaren arabera sailkatuta

	2 URTE		3 URTE		4 URTE		5 URTE		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskatoak	467	47,6	8.406	47,8	10.170	48,5	10.670	48,2	29.713	48,2
Mutikoak	514	52,4	9.210	52,2	10.786	51,5	11.482	51,8	31992	51,8
GUZTIRA	981	100	17.616	100	20.956	100	22.152	100	61.705	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika 1989-90" Bertan egindakoa.

E.K.A.an kasu eman zaio 3-6 urtekoentzako eskolaurreko toki-eskaera orori, eta hasiak dira dagoeneko 2 urteko hurrekin.

Eskolaratzean ez da sumatzen alderik sexuari bagagozkio, eta dauden aldeak haur populazioan neskatala gehiago dagoelako izaten dira. 2 urteko populazioaren portzentaia % 46,6koa da, eta

horien benetako eskolaratzea % 47,6. Lau urtekoen portzentaia % 48,8 da eta eskolaratze erreala % 48,5.

Eskolaurre arloan ez dago sexu arazorik, eta desberdintasunik gertatzekotan, beste gorabehera sozial batzurengatik izango da. Bereizkeria kuantitatiboki sala lezakeen datorik ez badago ere, galdetu beharko litzateke ea neskato eta mutikoei, beren ahalmen guztiak garatzeko laguntza berdinak eskaintzen zaizkien.

Eta gai honetan, haurrak bere buruaz eratuko duen irudirako pertsona helduaren eginkizuna funtsezkoa denez gero, ezinbesteko premiatzat jotzen da Haurren Hezkuntzako irakaslegoak hezkidetzaren arloan kezka berezia eta erabateko prestakuntza izatea.

OINARRIZKO HEZKUNTZA OROKORRA

OHOaren eskolaratze aldia nahitaezkoa denez, 6 eta 14 urte bitarteko eskolume guztiak eskolaratuak daude, bazterreko kolektiboren bat salbu, eta hortaz ez dago azterketa kuantitatiborik egiterik, izan daitezkeen aldean arrazoa demografikoa baita. OHOk eskolumeen artean % 48 neskatoak dira eta % 52 mutikoak.

2.4. TAULA OHOk ikaslegoaren banaketa, sexu eta ziklotan sailkatuta

	HASIERAKO ZIKLOA		ERDIKO ZIKLOA		GOIKO ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskatoak	23.990	48,1	43.209	48,3	53.577	47,8	120.776	48
Mutikoak	25.901	51,9	46.267	51,7	58.393	52,2	130.561	52
GUZTIRA	49.891	100	89.476	100	111.970	100	251.337	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

Halaz ere, ez daitezke nahas eskolaratzea eta heziketa, eta horren ondorioz, datu hauetatik hezkuntza arloko berdintasun automatikorik dagoenik ere ez. Horregatik, bada, sakonki aztertzen baldin bada nola gauzatzen den jakintzaren transmisioa eskolan; nola eta zer irakasten den eta nola mamitzen den sozializazioa, azken hau ulertzen bada eskolak transmititzen dituen balore, arau eta jarrerabideen norberegantze bat bezala, froga daiteke, heziketa sexistaren iraupena sendotu edo laguntzen duten mekanismoek oraindik ere badiraute, lehen bezain agerian ez bada ere.

Etorkizunean hartu beharreko erabakien artean garrantzia izango duelako kontu handiz hartu behar da OHOk arrakasta/porrotaren arazoa.

OHOk ikaslegoaren eskola-emaiza neurtzeko eta sexuen artean ezberdintasunik dagoenentz frogatzeko, hiru erakuskari daude: errepikatzailen kopurua, Graduatuen kopurua eta maila hori bukatzean Eskola-Agiria erdiesten dutenen kopurua.

2.5. TAULA OHOkO errepikatzaileak, sexu eta ziklotan sailkatuta

	HASIERAKO ZIKLOA		ERDIKO ZIKLOA		GOIKO ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskatoak	429	40,9	1.151	40,2	3.070	40,1	4.650	40,2
Mutikoak	619	59,1	1.715	59,8	4.581	59,9	6.915	59,8
GUZTIRA	1.408	100	2.866	100	7.651	100	11.565	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.


Neskatoak, oro har, hobeki ibiltzen dira OHOkO ziklo guztietan. Kurtsoa errepikatzen dutenak gutxiago izaten dira, ikus 2.5 taula, eta aldi berean, graduatua erdiesten duten neskatoen portzentaia, % 51,7 mutikoena baino handiagoa da. Eskola-Agiria besterik lortzen ez duten ikasleen artean % 60,4 mutikoak dira, ikus 2.6 taula.

2.6. TAULA OHO amaitzean Eskola Graduatua eta Eskola Agiria lortzen duten pertsonen banaketa sexuaren arabera

	GRADUATUAK		ESKOLA AGIRIAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Neskatoak	14.640	51,7	3.963	39,6
Mutikoak	13.684	48,3	6.040	60,4
GUZTIRA	28.324	100	10.003	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

6. GRAFIKOA. Eskola titulazioak OHO bukatutakoan, sexuaren arabera (%)



Datu hauek aurrean ditugula espero daiteke neskatoen ikasketa aukerak mutikoenak baino ho-
beak izatea, eta gero hartu behar dituzten bideak ikasketa horiei egokituko zaizkiela.

IRAKASKUNTZA ERTAINAK (IE)


Atal honek biltzen ditu OHO amaitzean har daitezkeen hiru hautabideak, zeinetan ikasleak sar-
tzen ahal diren OHOn lortutako arrakasta ala porrotaren arabera. Eskola Graduatua lortu duen
ikasleak edozeinetan sartzeko aukera dauka, Batxilergoa barne, eta gainerakoek, ordea, nahi-
taez jo beharko dute Lanbide Heziketara nahiz Irakaskuntza Ertainen Erreformara, IEE.

2.7. TAULA Neskek eta mutilek irakaskuntza ertainetan egiten dituzten aukerak

	NESKAK		MUTILAK	
	Abs.	%	Abs.	%
LH	8.880	31,2	11.513	36,9
IEE	6.908	24,3	9.778	31,2
BBB	12.631	44,4	9.992	31,9
GUZTIRA	28.419	100	31.283	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

7. GRAFIKOA. Irakaskuntzako hautapenak sexuaren arabera (%)



IEEetako ikasketak hasten dituzten neskatoen artean % 44,4k BBBan hasten dira, % 31,2 LHn eta % 24,3 IEEen. Mutilen artean % 31,9k BBB hautatzen dute, % 36,9k LH, eta % 31,2k IEE.

BBBan sartu ahal izateko Eskola Graduatua lortu behar da, eta neskek portzentaia handiagoan eskuratzen dutenez, hor datza, hain zuzen ere, BBBaren aukera gehiengoaz egitearen arrazoia.

BIDE HEZIKETA

Une honetan lehen mailako lanbide heziketa behin-behineko egoeran dago Erreforma noiz hasiko esperoan. Maila horretan sar daitezke OHO amaitzen duten guztiak, hala Graduatua nola Eskola-Agiritunak. IEE martxan jartzen denean irakaskuntza publikoan izango den LHaren aukera bakarra Lanbide Heziketa Egokitua izango da.

LH I eta LH Egokitan ari diren ikasleak funtsez gizonezkoak dira. LH Egokitan ari direnetan % 18,8 neskak dira eta % 81,2 mutilak. Eranskineko A.6 taula.

Datu hauek esanguratsuagoak dira espezialitateak aztertuz gero, eta horrela ikusten dugu neskek zerbitzu sektorearekin lotutako adarretara jotzen dutela:

- Administrazio eta Merkataritza (% 73,7)
- Erizaintza (% 94,1)

Eta tradizioz **emakumezkoenak** diren profesioetan:

- Etxea (% 98,8)
- Moda eta Jantzigintza (% 99,4)
- Ileapainketa eta Estetika (% 94,5)

Tradizioz **gizonezkoenak** diren profesioei datzekien espezialitateetan, berriz, nesken parte hartzea oso urria da, bat ere ez dagoela ez esatearren:

- Nekazaritza (% 11,5)
- Automozioa (% 1,6)
- Zurgintza (% 1,4)
- Elektrizitatea (% 2)
- Metalgintza (% 1,8)
- Itsas arrantzua (% 0)

Beharrezkoa da, gizonezkoen eta emakumezkoen espezialitateetan berezita dagoen banaketa hori, nondik nora sortzen den pentsatzea.

Teorian behintzat neskek eta mutilek heziketa berdina izan dute eta aukera berberak izan dituzte, eta hala ere bada hor zerbait, ikasleak beren aukerak egiterakoan tradiziozko erizpideei segitzera behartzen dituenak. Neskek beren hautapen profesionalak jenero estereotipoei jarraikiz egiten dituzte eta ez beren gaitasunaren arabera (2).

(2) Emakumea eta Hezkuntza, azterketa kuantitatiboa. 1991.

Bigarren mailan berretsi egiten dira eta areagotu ere lehenbizikoan ikusten ziren joerak. A.9 eranskina.

Eta gainera ikasleen artean emakumezkoen proportzioak behera egin ohi du, lehen mailan % 45,2 baldin bazen bigarrenean % 39ra jaisten da, eta espezialitateei dagokienez sexuen araberako banaketak berdin dirau.

Irakaskuntza Ertainetan emaitza akademikoei buruz datu hauek ditugu:

2.8. TAULA LHko erreplikatzaileak sexutan sailkatuta

	IKASLE KOPURUA	ERREPIKATZAILE KOPURUA	ERREPIKATZAILE KOPURUA/IKASLE KOPURUA
Neskak	21.083	2.605	12,3
Mutilak	30.007	5.060	16,9
GUZTIRA	51.090	7.665	15

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

OHOn gertatzen zenaren antzo, LHn ere neskek ateratzen dituzte mutilek baino emaitza hobeak. Hortik pentsa zitekeen gero lanpostu hobeak erdiets zitzaketela, baina ez da hala gertatzen, jadanik ikusi dugunez, eta egiten dituzten aukerak ez dira ez merkatuen beharkizunetara ez eta ikaslearen beraren gaitasunetara egokitzen, baizik eta oro har jenero-estereotipoetara.

IRAKASKUNTZA ERTAINEN ERREFORMA IEE

IEEn sartzen dira gutxienez OHOk 7. maila gainditu eta 8.ean aritu direnak. Lehenengo zikloko bi urteak gainditzen dituzten ikasleek 2.ean sartzerik badute, edo BBBko 3. mailan nahiz Lanbide Heziketako 2. Graduan: bigarren zikloko bi kurtsoak gainditzen dituztenek, bestalde, BBB eta UBI gainditu ondoko titulazioaren baliokidea eskuratzen dute.


Modalitate hau saiobidezko izaeraz ezarri zelako eta Hezkuntz Erreformatik, aurki indarrean jarriko denak, egitura berria dakarrelako —ertainak bi zatitan banatuta: nahitaezkoa, 16 urte artekoa, eta hautazkoa, Batxilergoa edo Lanbide Moduluak—, horregatik guztiagatik Irakaskuntza Ertainen Erreforma gizarteak behin-behinekotzat jotzen du. Bidenabar, Hezkuntza Sailak baimendutako ikastetxeak gutxi direnez gero Irakaskuntza Ertainetako modalitate honetan ari diren ikasleak ere gainerako modalitateetakoak baino gutxiago dira.

2.9. TAULA IEEko ikaslegoaren banaketa sexutan sailkatuta

	LEHEN ZIKLOA		BIGARREN ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskak	6.908	41,4	1.989	51,6	8.897	43,3
Mutilak	9.778	58,6	1.865	48,4	11.643	56,7
GUZTIRA	16.686	100	3.854	100	20.540	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

8. GRAFIKOA. IEEko ikaslegoa sexuaren arabera banatuta (%)



Arlo honetako nesken portzentaia, % 43,3, mutilena baino txikiagoa da, % 56,7.

2.10. TAULA IEEko errepikatzaileak, sexutan sailkatuta

	LEHEN ZIKLOA			BIGARREN ZIKLOA			GUZTIRA		
	IKASLE KOPURUA	ERREP. KOPURUA	ERREP. KOP/IKASLE KOP.	IKASLE KOPURUA	ERREP. KOPURUA	ERREP. KOP/IKASLE KOP.	IKASLE KOPURUA	ERREP. KOPURUA	ERREP. KOP/IKASLE KOP.
Neskak	6.908	539	7,8	1.989	132	6,6	8.897	671	7,5
Mutilak	9.778	775	7,9	1.865	159	8,5	11.643	934	8
GUZTIRA	16.686	1.314	7,8	3.854	291	7,6	20.540	1.605	7,8

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

IEEko errepikatzailen portzentaian alde txiki bat dakusagu nesken alde, batez ere 2. zikloan.

BATXILERGOA ETA UBI

Neskak dira ikasketa ertainen multzoan batxilergoa gehien hautatzen dutenak, % 44,4, mutilak berriz % 31,9. (2.7. taula).


BBB eta UBIn ari diren ikasleen artean, nesken proportzioa hauxe da:

2.11. TAULA BBB eta UBiko ikaslegoa, sexutan sailkatua

	ABS.	%
Neskak	46.353	55,1
Mutilak	37.825	44,9
GUZTIRA	84.178	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

9. GRAFIKOA. BBB eta UBiko ikaslegoa sexuaren arabera banatuta (%)



Aukera egiteko momentuan neskek BBBrako joera nabaria erakusteaz gain BBB eta UBiko kurtso guztietan ere nesken kopurua handiagoa da, ikaslego osoaren % 55,1 suposatzen baitu.

Eta BBB nahiz UBIn izaten den arrakasta/porrotari dagokionean, zeinek goi mailako ikasketetarako bideak zabaldu edo moztu egiten baititu, datuak, berriro ere nesken alde datoz.

2.12. TAULA BBB eta UBiko errepikatzaileak, sexutan sailkatuta

	IKASLE KOPURUA	ERREPIKATZAILEEN KOPURUA	ERREP. KOP/ IKASLE KOPU.
Neskak	46.353	5.827	12,6
Mutilak	37.825	5.577	14,7
GUZTIRA	84.178	11.404	13,5

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

Hemen ere nesken emaitzak hobeak, haatik bateratzeko joera ageri da oraingoan.

HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRA, HHI

Helduen Hezkuntza Iraunkorrak helduengan hainbat eragin izatea du helburu:

- Eragin akademikoa: Oinarrizko prestakuntza orokorra
- Eragin profesionala: Edozein lanbidetarako abiapuntu gisa
- Eragin pertsonala: Nortasuna aberastu edo garatzea du helburu
- Eragin soziala: Parte hartzea, erabaki librea eta norberaren konpromezua eskatzen dituzten ekimenak direla medio.

Hiru ziklotan dago antolatua:

Lehen zikloa: Pertsona helduak OHOk Hastapeneko Zikloari dagozkion tresna-teknikak eza-gutu eta horietan trebatzeko, irakurri-idatzi, alegia.

Bigarren zikloa: tresna-teknikak ezagutu bai baina maila onean erabiltzen ez dakitenentzat. OHOk Erdiko Zikloari dagokio.

Hirugarren zikloa: OHO osoari dagozkion oinarrizko teknika, ohitura eta ezagupenak funtzionalki erabiltzen jakitea suposatzen du. Hirugarren maila hau gainditzen duenak Graduatu Agiria eskuratzen du.


Guztiz adierazgarria da, lehen zikloan —alfabetatzea—, eta bigarrenean —irakurtzen ikastea—, hiru laurdenak emakumeak direla ikustea, horrek erakusten digu alfabetatzeko interesik badutela.

2.13. TAULA HHiko ikaslegoa zikloka eta sexutan sailkatuta

	1. ZIKLOA		2. ZIKLOA		3. ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	842	75,4	1.047	73,5	4.038	59,2	5.927	63,3
Gizonak	275	24,6	378	26,5	2.785	40,8	3.438	37,7
GUZTIRA	1.117	100	1.425	100	6.823	100	9.365	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

10. GRAFIKOA. H.H.I.ko ikaslegoa zikloa eta sexuaren arabera, E.K.A.n. (%)



Bada beste datu bat aski esanguratsua, eta da, lehen zikloan emakumezko ikasleen artean % 78,1 30 urtetik gorakoa dela, eta % 51,5 40etik gorakoa. Ikus A.9 eranskina. Itxaropena ere ematen du emakume analfabeto eta adinekoek alfabetatu nahi dutela ikusteak.

HHleko ikastetxeetara alfabetatzeko asmoz joaten diren pertsonetako % 75 emakumeak dira. Eta horietatik % 51,5 40 urte baino gehiagokoak.

Interesgarri dirudi horrelako zentruak bultzatzea, emakumeak alfabetatzeko ezezik baita haien heziketa maila ere hobetzeko.

IRAKASKUNTZA UNIBERTSITARIOA

Emakumeen partaidetza ikasketa unibertsitarioetan gizonezkoen parekoa da ia erabat, ikasle-goaren % 49,7.

2.14. TAULA Ikasketak irakaskuntza unibertsitarioan egiten ari den populazioaren banaketa sexuen arabera

	ABS.	%
Emakumeak	33.526	49,7
Gizonak	33.977	50,3
GUZTIRA	67.503	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

Mailaz maila honela daude banatuak:
Emakume gehien dituzten karrerak:


- Gizarte lana, % 92,64
 - Erizaintza, % 89
 - Turismoa, % 80,9
 - Pedagogia, % 80,3
 - Farmazia, % 76
 - Psikologia, % 75
 - Filologia, % 73,1
 - OHOk irakasle-eskola, % 70,4
- Emakume gutxien dituztenak:
- Nautika, % 4,8

- Injeniaritza Teknikoa, % 10,1
- Injeniaritza, % 14
- Teologia, % 16,1
- Kimika, % 28,6
- Arkitektura, % 31,9

Beste batzu, kontutan hartzekoak:

- Odontologia, % 61,8
- Politika eta Soziologia, % 60,8
- Matematikak, % 60,7
- Arte Ederrak, % 60,4
- Biologia, % 59,2
- Medikuntza, % 58
- Geografia eta Historia, % 57,8

11. GRAFIKOA. Unibertsitateko ikaslegoa sexuaren arabera 1989-90 ikasturtean, E.K.A.n (%)



Emakumeen presentzia murriztu egiten dela dakusagu ikasketa tekniko eta profesionaletan, hain zuzen ere, lanpostu bat erdiesteko aukera gehien dituzten karreretan.

Emakumeek, beraz, luzaroan eta tradizioz emakumezkoenak izan diren ikasketak eta eginkizunak hautatzen segitzen dute oraino ere, gero lan merkatuan arrakasta gutxiago eta soldata urriagoak izango dituztenak, testu-liburutan (3), eta familiaren nahiz irakasleen espektatibetan ezkutuko curriculumaren (4) bitartez jakin erazi zaien bezala.

Gizonezkoei erreserbatutako irteerak bereganatzea oso zail egiten zaie, hori dela eta, sentimendu eta lanaren arteko borroka latzak izan ohi dituzte beren baitan; kezkatu daude baztertuta eta bakarrik ez ote dituzten utziko. Badute susmoa profesionalen arteko lehia gogorra izango dela eta emakumeek desabantaila dutela oraindik ere. Gainera, neskek izan duten heziketa dela eta, ez dituzte konpetentzia, agresibitatea, e.a. hainbeste landu, eta ezaugarri horiek dute lehentasuna gaurreguneko lan merkatuan.

Errazagoa da emakumeenak omen diren eginkizunak beretzat hartzen jarraitzea, hobe ohizko zeregin batekin konformatzea, arrakastaren bihotz esturan bizitzea baino. Horrek, guzti horrek autobaztertze ugari ekarri ditu.

EMAKUMEEN EGOERA ARAUTUGABEKO IRAKASKUNTZAN

2.2.2

Araupeko irakaskuntza maiz aski ez da behar bezala egokitzen lan merkatuaren beharrianetara. Horren kariaz sortu da arautugabeko irakaskuntza, hein handi batean bederen, lan merkaturako beharrianak eta enpleguaren zai dagoen populazioaren prestakuntza maila elkarren artean egokitzeko.

Une honetan arautugabeko heziketa eskaintzak ondoko hauek dira: Osabidezko Hezkuntza, Hasiako Lanbide Heziketa eta INEMeko ikastaroak, denak Instituzioek sustatuak, hala nola Udalak, Diputazioek, Eusko Jaurlaritzak eta INEMek, zentru pribatuetakoak kontatu gabe.

OSABIDEZKO HEZKUNTZA

Osabidezko Hezkuntzak bere esku ditu 14 eta 16 bitarteko ikasleak, OHO bukatu ez dutenak.

Osabidezko Hezkuntza, bere izenak dioen bezala hainbeste pertsona biltzen dituen hezkuntza sisteman gertatzen diren eskasiak osatu nahi ditu, pertsona horien beharrei hobekiago egokitzeko zaien modua erabiliz.

E.K.A.n osabidezko hezkuntza ikastetxeak hiru lurraldeetan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban daude, Hezkuntza Sailak eta Diputazioak kasu batzuetan eta Udalak beste batzuetan sinatutako hitzarmenen bidez sortu direnak.

(3) Emakunde eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexualitateak?

(4) Emakunde. Emakumea eta Hezkuntza, Azterketa Kualitatiboa, 1991.

2.15. TAULA Osabidezko Hezkuntzako ikaslegoa E.K.A.n

	ABS.	%
Neskak	12	7
Mutilak	159	93
GUZTIRA	171	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90". Bertan egindakoa.

Nesken presentzia Osabidezko Hezkuntzan hutsaren hurrengoa da, % 7.

Ez dugu ahanzi behar OHOn porrot egiten duten neskatoen portzentaia mutikoen baina txikiagoa dela, alabaina, osabidezko hezkuntza programetan ia bat bera ere ez egotea ez da horrekin justifikatzen. Beste arrazoiren batzu egongo dira, eskuarki, adibidez neskei, OHOn porrot eginez gero, ez zaiela beste aukerarik ematen, ez baita premiazkotzat jotzen neska batek lanpostu bat hartzea, eta berehalaxe kokatzen dituzte etxean eta horrela etxeko lanetan murgiltzen dira mutilek ez bezala, hauek bai, hauek derrigorrez lan munduan moldatzeko gai izan beharra daukate eta.

Era honetako datuek inolako lotsarik gabe erakusten digute neskei buruz zernolako espektatibak izaten diren, halako estrato sozialetan gainera, non behar-beharrezkoagoa bait litzateke neska horien prestakuntza, baina horren ordez geratzen dira gurasoen menpe eta lanpostu bat lortzeko aukerarik bat ere gabe.

LANBIDE HASTAPENA

Lanbide Hastapena sortu da Hezkuntza Sailaren eta Udalen arteko hitzarmenen ondorioz, eta 16tik 18 urtera bitarteko neska-mutilei zuzendua dago, eta araututako irakaskuntza utzi eta lanposturik gabe eta lanposturen bat lortzeko gaitasun zehatzik gabe daudenak dira horren helburu.

E.K.A.n 32 ikastetxe daude horretarako, eta dauden datuetatik, sexuen arabera sailkatuta ez daudenez, ez dago horien azterketarik egiterik.

Euskal Herriko Unibertsitateak egin duen ikerlanaren arabera (5) Lanbide Hastapenearako ikastetxeetan, LHI, ikasleen artean % 16,3 neskak dira.

Berriz ere emakumeen presentzia eskasa azpimarratu behar, eta heziketa osagarrian aipatu diren arrazoez gainera, erants daiteke honako hau ere, hots, ikastetxe horietako lanbide eskaintzak, tradizioz gizonezkoei dagozkienak izaten direla bereziki, eta horrexegatik horrelakoak nekez aukeratzen dituzte emakumeek.

(5) Arregi, Paki eta beste batzu. Lanbide Hastapeneko Programaren eragina. EHU, 1990.

Adibide gisa, eskaintzen diren 39 lanbideetatik bi herenak zeharo gizonezkoen lanbidetzat jotzen direnetakoak dira: igeltserotza, zurgintza, txapa-pintura, eta abar, eta tradiziozko eritziei jarraituz, herena bakarrik izan zitekeen emakumeentzat zein gizonezkoentzat berdin egokia: harrategia, portzelana, sukaldaritza, dendako laguntzailea, ileapainketa, e.a.

I.N.E.M.

Tailer-Eskolak (T.E.) eta Lanbide Eskolak

Horien helburua da gazteak trebatzea, 25 urtetik beherakoak batik bat, lana eta lanbide praktika txandakatuz. T.E.ko proiektuek jasotzen dute 1. etapa bat prestakuntzarako soilik, 4 eta 6 hilabete inguruko iraupenarekin, eta 2. etapa prestakuntza lanarekin txandakatuta. Bi prestakuntzaldiek urte batetik hiru urtera iraungo lukete guztira.

Ofizio-etxeetan, bi faseen iraupena gehienez ere urtebetekoa izaten da. Bi programa hauek INEMek sustatuak dira, Udalen lankidetzarekin.

2.16. TAULA Tailer-Eskola eta Ofizio Etxeetako ikaslegoa sexutan sailkatuta

	ARABA 1990		GIPUZKOA 1991		BIZKAIA 1991	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	138	29,9	133	23,7	163	21,2
Gizonak	357	72,1	428	76,3	605	78,8
GUZTIRA	495	100	561	100	786	100

Iturria: INEM, 1991ko txostena.

Hemen ere argi dago emakumeen partaidetza murrizta dela lan mundura iristeko prestatzen dituzten ikastaroetan.

Lanbide Hastapenetarako Ikastetxeetan bezalatsu, espezialitateen eskaintzak gizonezkoentzat jotzen diren lanbideenak dira, eta hori izan daiteke neskak hor ez izateko arrazoietakoa bat.

Dena den, nahikoa adierazgarria da arautugabeko irakaskuntzan gertatzen ari den partaidetza-ren gorakada, heziketa osagarrian deus ez izatetik Lanbide Hastapenean 1/6 eta Tailer-Eskoletan eta Lanbide-Eskoletan 1/4 izatera heldu dira.


Langabezian daudenei eskaintzen zaien prestakuntza, batez ere ikastaro hauen bidez, programa ezberdinei egokitzen zaie, guztiak hautabidezko helburu hirukoitz honekin: lan munduan sartzeko bideak erraztea, lanik gabe daudenak profesionalki berregokitzea edo espezializazio handiagoa ematea.

2.17. TAULA INEMek 1991n prestatutako langileak E.K.A.n, sexutan sailkatuta

	ABS.	%
Emakumeak	4.715	34,1
Gizonak	9.111	65,9
GUZTIRA	13.826	100

Iturria: INEMen 1990eko estatistika.


12. GRAFIKOA. INEM-en egindako prestakuntza 1991 sexuaren arabera, E.K.A.n (%)



Ikastaro hauetan parte hartzen duten gizonezkoak emakumezkoak halako bi dira kasik. Emakumezko gehienak, % 63,5 20 urtetik 30eko adin horietan daude, gizonak ez bezala, hauen artean adin guztietakoak bait daude. Prestatze ikastaroetan enplegu bila dabiltzen emakumeen partaidetza gora doa, gero eta gehiago, 30 urteak arte. Hortik aurrera partaidetzak behera egingo du. A.10 eranskina.

Emakumeek gehiengoa dute E.K.A.ko Hezkuntza Sisteman, bai irakasle gisa eta baita langile laguntzaile taldean ere. A.11 eranskina.

13. GRAFIKOA. Irakaslegoa sexuaren arabera, E.K.A.n (%)



Oinarrizko mailetan, eta ertainetan ere, L.H. izan ezik, emakumeek gehiengoa dute, baina maila unibertsitarioetan proportzio hori alderantzizko bihurtzen da.

Zenbaki hauen aurrean zenbait galdera datozkigu: zein da arrazoia?, Zer ondorio dakartzkio ikaslegoari irakaskuntzaren feminizazioak?

Galdera hauen erantzunak gaur egun hipotesi batzu besterik ez dira, egiaztatu beharko direnak, baina bere horretan erakusten digute hezkuntza betidanik izan dela emakumezkoen lanbidea, batez ere kontutan izanik irakasle gehienak oinarrizko mailetan kokatzen direla, % 93,1 Aurrekolan, % 73,3 OHOn eta Ertainetan % 57,2. Portzentzia gutxituz doa ikasleen adina aurrera doan heinean.

Bestalde, gehiengoa izan arren, hezkuntza maila ezberdinetan gizonezkoek baino postu apala-goak betetzen dituzte, ohore eta soldata mailari bagagozkio:

“Gizonen eta emakumeen artean, hezkuntza mailen barrenean horrelako aldeak izateak ondorio txarrak dakartza, ez irakasleentzat bakarrik, baita ikasleentzat ere, bereizketa horrek betiko irudia errepikatzen duelako, sexuaren arabera egindako lan banaketarena. Horregatik emakumeek ikasle txikienekin ihardun behar dute, amaren eginkizuna berretuz, eta zuzendaritza eginkizunetan arras gutxi aritzen dira; gizona koei, ordea, postu garrantzitsuak ematen zaizkie, eta maila zientifiko gorenekoak (6)”.

Bestalde, emakumeek gehiengoan badute ere, horrek ez du berdintasun gehiago ekartzen ez eta sexuari buruzko estereotipoak ezabatzen, zeren, jasan duten gizona koeen kulturazioak bide ematen baitu ezkutuko curriculumak, oraindik mozorrotuta dabilen horrek, segi dezan bere eguneroko eskuhartze pedagogikoarekin.

Gauzak horrela izanik ere, irakasleen baitan dagoen sentsibilizazioak gora egin du eta hezikidetzako praktikaren beharra azaleratzen ari da batez ere emakumezkoen sektoreetan.

2.18. TAULA Langileko ez-irakaslea E.K.A.n, sexutan sailkatuta

	ESKOLAURREA OHO-HHI		BBB-UBI		L.H.		H.B.		G.E.T.KO FAKULTATEAK		UNIBERTSITATE ESKOLAK		BESTE BATZU		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	3.826	81,5	785	72,2	656	70,5	184	78,3	668	62	118	60,2	23	74,2	6.260	75,9
Gizonak	867	18,5	302	27,8	274	29,5	51	21,7	409	38	78	39,8	8	25,8	1.989	24,1
GUZTIRA	4.693	100	1.087	100	930	100	235	100	1.077	100	196	100	31	100	8.249	100

Iturria: EUSTAT: “Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90”. Bertan egindakoa.

Langile ez-irakasleen artean emakumezkoen kopurua irakasleena bezain bestekoa da, baina alde txar bat du, langile laguntzaile hauen kopurua ez denez goragoko mailetan murrizten, horrela indartu besterik ez da egiten emakumeak eginkizun xumeetan aritzen direneko estereotipoa.

HEZKIDETZAREN EGOERA HEZKUNTZA SISTEMAN

Hezkuntza arloan sartzeko neskek eta mutilek eskubide bera dutelako eta egungo eskolak mistoak direlako edonork pentsa dezake, oker haatik, bazterkeria oro gainditua dela. Baina errealitateak erakusten digu ez dela horrela eta eskola mistoak gizartean dauden sexuaren araberrako erizpideak mantendu eta transmititzen segitzen duela, eta hain justu, erdi ezkutukoak direlako, dira hain zailak erauzteko estereotipo horiek.

(6) Subirats, Marina. Una profesión mayoritariamente femenina. Pedagogía aldizkaria, 161 zenbakia, 34 orr., Barzelona.

Hezkuntza Sistemaren barren-barrenetik ari dira ahotsak, gero eta gorago, emakumeek noiztzen dituzten diskriminazioak salatzen, eta horiek deusezteko ahaleginetan hasi dira azterketak, erreflexioak eta ekintzak antolatzen.

Bide luzea da, astiro egitekoa eta oztopo franko dituena, baina horregatik ez zaio interesik falta, eskura daitezkeen lorpenek izan ditzaketen eraginagatik pertsona eta gizarte mailan.

E.K.A.ko OINARRIZKO CURRICULUM DISEINUA

2.4.1

E.K.A.ko Oinarrizko Curriculum Diseinuan, une honetan eztabaidatzeko proposatua dagoena, zeharkako arlo gisa Hezkidetza sartu da.

Ezkutuko curriculumak argira atera beharrak, irakaslegoaren iharduera aztertu beharrak, curriculumeko arlo guztietan hezkidetzako elementuak sartu ahal izateko, horrek guzti horrek behartzen du Hezkidetza nahitanahiez zeharkakoa izatera, arlo guztiak kurritu eta horiei buruzko beste irakurketa bat sortu dezan:

“Zeharkako ikuspegi horrek eskatzen du eskolako curriculumaren planteamendu teorikoa berrikustea, jarrera pertsonalen aldakuntza eta gizartearen bizikidetzaz zuzentzen dituen baloreen zehaztapen teorikoa eta praktikoa berritzea.

Hezkuntza ez-sexista baten beharra, bere planteamenduan zeharkako zerbait bezala gauzatzen da, esan nahi baita, oinarrizko asmo bat bezala, curriculumaren helburu bat bezala, beraz, hezkidetza ez da beste arlo bat gehiago, oinarrizko ikuspuntu bat baizik, gero esparru guztiak ukituko dituen curriculumak prestatzeko abiapuntua (7).”

Hezkidetzaren bidez ikasleak hezitzea nahi da sexu desberdintasunak aitortzetik hasita, baina emakumeei eta gizonei tradizioz esleitu zaizkien eginkizun banaketa onartu gabe, banaketa horrek moztu egiten baititu batzuen eta besteen hautapen libreak. Baina batez ere, balore sistema berri bat sortzea da helburu, adjetiborik gabekoa, ez femenino ez maskulinorik, denak pertsonatzat jotzen duen sistema, bakoitzak balore horiekiko adostasuna izateko aukera egin ahal dezan.

HEZKIDETZA ESPERIENTZIA E.K.A.ko HEZKUNTZ SISTEMAN

2.4.2

Aspalditik dago euskal Hezkuntza Sistemaren barruan Hezkidetzaren esparruan sumatzen diren beharriaz erantzuna emateko kezka. Ekimen ezberdinak izan dira eta ez beti nahi bezain emankorrak, hala ere une honetan urrats batzuei aurreratu dira aski adierazgarriak, Administrazioetik bertatik eta baita irakaslegoaren aldetik ere, zeinek ekimen horiek argi azaldu baititu.

(7) Oinarrizko Curriculum Diseinua, E.K.A.n Oinarrizko Hezkuntza eta Ertaina.

ADMINISTRAZIOTIK BURUTUTAKO EKIMENAK

Gai honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarentzat duen garrantziaren frogatzat jo daiteke Hezkidetzako Aholkulariaren figura sortu izana.

Une honetan Hezkidetzako lau Aholkularitza daude: Bat Bizkaian, bi Gipuzkoan eta beste bat Araban, Aholkularitza Pedagogikorako Zentrueri atxikiak, APZ. Pertsona hauek lan garrantzitsua ari dira egiten irakasleak sentsibilizatzen, eta dagoeneko eskaerek gainditu dituzte beren ahalmen guztiak, horrela frogatzen ahal da arazo horri buruz irakasleek duten jarrera ona.

Hezkuntza Sailak, Berrikuntza Proiektuei eta irakasleen Lan-Mintegiei buruz, urtero egiten duen deialdian, gairik nagusienetakotzat hartu izan da Hezkidetzak.

Une honetan badira, Sailak onetsi eta subentzionatuta, hainbat Proiektu eta Mintegi, Hezkuntza Sistemari ekarpen baliagarriak egiten dizkietenak. A.12 eranskinean jaso dira.

Irakasleak Hezkidetzan gaitzeko azken bi urteetan Hezkuntza Sailak eskaini dituen ikastaroak urrats handia izan dira irakasleei behar-beharrezko ezagupenak eta estrategiak eskura erazteko, gero beren praktika hezkidetzako ekimenara egoki dezaten.

Lehenbiziko Hezkidetzakurtsoa 1990-91 ikasturtean burutu zen eta bertan hezkuntza maila ezberdinetako 40 irakasle hartu zuten parte, denak emakumeak. Graduatuondoko ikastaroan, 1992ko otsailean eta martxoan burutu zen hartan, beste 40 pertsonek hartu zuten parte.

IRAKASLEGOA HEZKIDETZAREN AURREAN

Hezkuntza Sailaren eskaintzek irakasleek eginiko eskaerei erantzun diete. Irakasle hauek gutxi batzu izan arren, orain arte emandako urratsen benetako protagonista berak dira, eta horien partaidetzarik gabe ezer gutxitarako balio zuketena aipatu eskaintza horiek.

Irakasleek hezkidetzak arloan burututako ekintzak ez dira Sailak egindako eskaintzetara bakarrik mugatzen, urrunago doaz, eta benetan funtzionatzen ari diren Mintegiak onetsi direnak baino gehiago dira. Horrela bada, Sailak egindako deialdietara bildu zirenetik aparte, beste batzu ere ari dira funtzionatzen, batez ere Bizkaian, non Hezkidetzako Aholkularitzatik 12 Mintegi koordinatzen baitira, Lurralde osoan zehar sakabanatuak, eta mintegi horietan 116 irakasle, emakumezko zein gizonezko biltzen direlarik.

Hezkidetzaz denaz bezainbatean, egoera arras ezberdina da hiru lurraldeetan, Bizkaian dago gai honi buruzko sentsibilitate eta ekimen gehiago, agian mugimendu feministek tradizio handiago izan dutelako lurralde horretan.

Eginkizun horretan diharduten irakasleak, emakumezkoak batik bat, ez dira gehiegi oraindik, baina bai kemenez eta adorez beteak, eta horrexegatik ikastetxe guztietan —Eskolaurre, OHO eta Irakaskuntza Ertainak (IIEE)—, kanpaina konkretu batzu burutu dituzte, hala nola martxoaren 8koa, jostailu ez-sexistari buruzkoa, eta beste hainbat ere, Klaustroak sentsibilizatzen ari direnak.

Ikasgelan, klaustroetan eta familietan emakumezko irakasle askok burutu duten lana ere ez dago isiltzerik, oso onuragarria izan delako.

3

**EMAKUMEA
ETA
LANA**

Kapitulu hau burutzeko Emakundek argituriko "Emakumeen partaidetza lan merkatuan", 1990, izeneko monografiak dakarren informazioa erabili da soilik, gai honetaz azterketa sakona, benetan interesgarria, eskaini digulako. Iturria behin aipatuz gero, erabilitako taula bakoitzaren azpian behin eta berriro errepikatu beharrik ez dugu ikusten.

EMAKUMEZKO POPULAZIOAREN IHARDUERAREKIKO BANAKETA

3.1

Emakume gehienak, % 56,6, lan mundutik kanpoko ihardueretan ari dira, bereziki etxeko lanetan. Kopuru horren atzetik dator ordaindutako lanetan ari direnak, hots, aktibitate ekonomikoetan dihardutenak, hauek guztien artean % 26,9 dira.

Ordaindu gabeko lanetan ari diren emakumeak edozein adinetan lan ordainduetan ari direnak baino gehiago dira, are eta 25 eta 54 urte bitartekoen artean ere, % 45,7 eta % 40,9, hurrenez hurren.

Emakumezko populazioaren % 9,9 langabezian dago eta % 6,6 berriz ihardunik gabekoa da zinez.


Gizonen artean egoera hau alderantzizkoa da, % 60 lan munduan ari da, eta portzentaia hori % 87,1era igotzen da 25 eta 54 urte bitarteko gizonen artean.

3.1. TAULA Biztanlego osoaren banaketa, bere iharduera, lanekoa eta lana kanpoko kontutan hartuta (mila pertsonatan)

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Lanean diharduena	233	26,9	498	60
Lanik gabe	85,9	9,9	64,1	7,7
Lanaz kanpoko iharduera	489,9	56,6	106,9	12,9
Iharduerarik ez	56,7	6,6	160,8	19,4
GUZTIRA	865,5	100	829,8	100

Iturria: PRA, 1990eko lehen sei hilabetekoa.

14. GRAFIKOA. Populazioa ihardueraren arabera sexua kontutan hartuta, E.K.A.n (%)



**IHARDUNEAN DEN
EMAKUMEZKOEN
POPULAZIOA.
EZAUGARRI
SOZIOLOGIKOAK**

3.2

Ihardunean den emakumezkoen populazioa 319.000 emakumek osatzen dute. Emakumezkoen iharduera tasa beraz, % 36,9 da. Kopuru hori gainera Euskal Herriko iharduneko populazio osoaren % 36,2 da.

Gizonezkoen iharduneko populazioa, berriz, 561.000 pertsonak osatzen dute, horrek ematen du % 67,7ko iharduera tasa eta iharduneko populazioaren % 63,8.

Emakumezkoen iharduera tasa urria da, beraz. Lanean ari den emakume bakoitzeko hiru dira lanean ari ez direnak; lanean ari den emakume bakoitzeko, berriz, ia bi gizon daude.

Emakumezkoen partaidetza hori Europako batez bestekoarena baino apalagoa da, % 41,6, baina Espainiakoa baino hobea, % 33,1 eta Italia, Holanda, Luxenburgo edo Greziako iharduera tasen parekoa.

3.2. TAULA 16 urte eta gehiagoko populazioa, iharduerarekiko erlazioaren ikuspegitik (mila pertsonatan)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
16 urte eta gehiagoko populazioa	865,6	829,8	1.695,4
lharduneko populazioa	319,0	562,1	881,0
lharduera tasa	36,9%	67,7%	52,0%
lharduneko populazio osoarekiko %a	36,2%	63,8%	100,0%
lhardunik gabeko populazioa	546,7	267,7	814,4
lharduera ezaren tasa	63,2%	32,3%	48,0%
lhardunik gabeko populazio osoarekiko %a	67,1%	32,9%	100,0%

Iturria: PRA, 1990eko lehen sei hilabetekoa.

Emakumezkoen iharduera tasak bere horretan iraun du azken lau urte honetan, % 37 inguru, horrek adierazten du laneko bizitza zikloa murriztearen ondoriozko galera berdindu egin dela emakumeen artean lan-merkatuara jende berria sartu delako, batez ere ezkongaiak ez diren 25 eta 44 urte bitarteko emakumeak. Horrek argi erakusten du emakume ezkonduen belaunaldi berrien jarrera, lan-merkatuan parte hartzeari buruzkoa, aldatuz doala.

Laneko bizitza zikloa murriztea, eskolaratzeko adina gehitzea eta erretiroa hartzeko adina jaistea direla eta, gizonezkoen tasa, aldiz, jaitsi egin da, % 71,7tik 1987an, % 67,7ra 1990ean.

3.3. TAULA lharduera tasen bilakaera

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Euskal Herria								
lharduera tasa (%)	36,4	36,4	37,1	36,8	71,7	70,5	68,7	67,7
lharduneko populazioarekiko %a	34,5	35	36	36,2	65,5	65	64	63,8
E. espainiarra								
lharduera tasa (%)	32,1	32,3	32,5	33,1	67,6	66,5	66,4	66,9
lharduneko populazioarekiko %a	33,8	34,1	34,2	34,8	66,2	65,9	65,8	65,2

Iturria: PRA urteko batez bestekoak. HHI, urteko 4. hiruhilabetekoa. 1990eko lehen sei hilabetekoa.

Emakumezkoen iharduera tasa asko aldatzen da adinaren arabera eta orobat egoera zibilaren edo ikasketa mailaren arabera.

Adina. 16 eta 24 urte bitartean, emakumezkoen iharduera tasa, % 46,2, gizonezkoenari gailentzen zaio gutxigatik bada ere, % 44,4, eta gailurra jotzen du, % 75,4, 25 eta 34 urte bitartean, gizonezkoetan % 93,8 delarik; gero behera egiten du nabariki 35 urtetik aitzina, 55 urtetan % 13,7 besterik ez izateraino.


Iharduneko emakumeak, batez beste, gizonezkoak baino gazteagoak dira, % 62,4k 35 urte baino gutxiago baitute, adin horretako gizonak % 41,2 diren bitartean.

3.4. TAULA Iharduera tasa eta iharduneko populazioaren banaketa adin multzotan sailkatua. (% tan)


	IHARDUERA TASAK		IHARDUNeko POPULAZIOAREN %A	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
16-24	46	44,4	22,3	13,2
25-34	75,4	93,8	39,6	28
35-44	45,9	98,2	20,9	26,1
45-54	28,9	93,6	10,7	19,9
55-64	13,7	54,7	5,4	12,2
65 edo gehiago	1,2	3,5	0,6	0,6

Iturria: PRA, 1990eko lehen sei hilabetekoa.

15. GRAFIKOA. Iharduera tasak, 1990 adinaren eta sexuaren arabera



16. GRAFIKOA. Iharduneko populazioa, 1990 adinaren eta sexuaren arabera multzotatik (%)



Europako Elkar-tearekin alderatuz, 25 eta 34 urtekoen iharduera tasa, % 75,4 batez besteko europarraren gainetik dago, % 65,1, baina adin horretatik aurrera, tasak erabat azpian gelditzen dira: 35 eta 44 urte bitartekoaren artean % 45,9 eta % 63,2; 45 eta 54 urte bitartekoaren artean % 28,9 eta % 63,2; eta 55 eta 64 urte bitartekoaren artean % 13,7 eta % 25,1.

Azken lau urte honetan, emakumezkoen iharduera tasaren bilakaerak erakusten digu arrunt gehitu dela 25 eta 44 urtekoen artean, bereziki 25 eta 34 urte bitarte horretan, gero 45 eta 54 urteko emakumeetan tasa gelditu egiten da, eta behera egiten du 25 urtez behekoen eta 55 urtez goikoaren kasuan.

3.5. TAULA Emakumezko eta gizonezko iharduera tasen bilakaera. (% tan)

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
16-24	51,7	52,8	50	46,2	55,3	53,1	49,3	44,4
25-34	66	68,4	74,3	75,4	95,9	95,8	94,5	93,8
35-44	40,8	41,7	44	45,9	98,5	98	98,1	98,2
45-54	28,5	27	26,6	28,9	94,5	94	93,9	93,6
55-64	17,9	16,5	14,9	13,7	56,2	55,7	53,5	54,7
65 edo gehiago	1,9	1,3	1,4	1,2	5,3	3,6	2,7	3,5

Iturria: PRA urteko batez bestekoak.

Egoera zibila. Egoera zibilak erabateko eragina du emakumezkoen iharduera tasarengan. Emakume ezkongabeetan % 57,7 baldin bada eta gizon ezkongaien artean % 63,4koa, ezkongai ez diren emakumeen artean berriz % 27,4koa da, (3.6 taula).

Euskal Herriko emakume ezkongabeen iharduera tasa, % 57,7 espainiarrena baino hobea da, are eta Europako Komunitatekoa baino ere, % 50,9. Ezkongai ez direnen artean, aldiz, aldeak begibistakoak dira, % 27,4 hemengoa eta E.K.E.koa % 37,9.

3.6. TAULA Iharduera tasak eta iharduneko populazioaren banaketa beren egoera zibila-ren arabera

	IHARDUERA TASAK		IHARDUNEKO POPULAZIOAREN %A	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Euskal Herria				
Ezkongaiak	57,7	63,4	48,7	36
Ezkongai ez direnak	27,4	70,5	51,3	64
E. espainiarrean				
Ezkongaiak	54,9	64	44,8	32,1
Ezkongai ez direnak	24,4	68,4	65,2	67,9
Europako Komunitatean				
Ezkongaiak	50,9	63,4	29,3	27,3
Ezkongai ez direnak	37,9	73,3	70,7	72,7

Iturria: PRA, 1990eko 1. sei hilabetekoa. 1988eko HHi. Eurostat 1986.

Egoera zibilarengatik aldeak, adinaren arabera, handiak dira. Emakume ezkongaien artean, 45 urte arterainoko iharduera tasak gizonezko ezkongaien pareko dira, 3.7 taulan ikus daitekeenez, eta guztiz handia da 25 eta 44 urtekoen artean, % 91,2. Ezkongai ez direnen artean, 45 urtetik gorako iharduera tasa arras txikia da, % 11,9, eta adin horretara arte, azpimarkatzeko moduko gehikuntza suertatu izan arren, gizonenaren azpitik gelditzen da.

Alabaina, azken urteotako emakumezkoen iharduera tasen bilakaera kontrakoa izan da emakume ezkongaiarentzat, 3,5 puntu behera egin baitu, eta aldekoa ezkongai ez direnentzat, 11,5eko gorakadarekin; gehikuntza horren zergatia, ez da beste ezergatik izan 25 eta 44 urte bitarteko emakume ezkonduen beren partaidetza areagotu dutelako baizik. Emakume ezkongaiak beren partaidetzaren gailurrera, dirudienez, 25 eta 44 urteren artean iritsi dira, gutxi gorabehera % 91,5.

3.7. TAULA Iharduneko populazioaren tasak eta banaketa, egoera zibilaren eta adinaren arauz sailkatuta. (% tan)

	IHARDUERA TASAK		IHARDUNEKO POPULAZIOAREN %A	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Ezkontabeak				
16-24 urtera bitarte	45,7	43,9	44,3	35,9
25-44 urtera bitarte	91,2	91,3	49,2	57,1
> 44 urtetik aurrera	29	52,3	6,5	7
Ezkontabe ez daudenak				
16-24 urtera bitarte	59,7	98,6	2,4	0,4
25-44 urtera bitarte	50,9	98,9	71,4	52,5
> 44 urtetik aurrera	11,9	53,2	26,3	47

Iturria: PRA, 1990eko 1. sei hilabetekoa.

3.8. TAULA Emakumezkoen eta gizonezkoen iharduera tasen bilakaera, egoera zibilaren eta adinaren arauz sailkatuta. (% tan)

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Ezkontabeak								
16-24 urtera bitarte	59,1	61,1	60,6	57,7	68,3	68,5	66,3	63,4
25-44 urtera bitarte	51,4	52,2	49,1	45,7	54,6	52,4	48,8	43,9
> 44 urtetik aurrera	91,6	91,2	91,5	91,2	93,3	92,7	91,5	91,3
	33,3	31,2	30,4	29	58,1	60,4	54,1	52,3
Ezkontabe ez daudenak								
16-24 urtera bitarte	26,9	25,8	26,1	27,4	73,7	71,7	70,3	70,5
25-44 urtera bitarte	58,5	63,6	61,7	59,7	98	97,2	97,2	98,6
> 44 urtetik aurrera	44,2	44,2	47,7	50,9	99,2	99,4	99,5	98,9
	13,7	12,6	11,8	11,9	56,3	54	53,1	53,2

Iturria: PRA, urteko batez bestekoak.

Ikasketa maila. Gizonen artean, iharduera tasak ez du aldaketarik erakusten ikasketa mailaren arabera, emakumeen artean, ordea, iharduera tasa hein handi batean bederen, ikasketa mailaren menpe dago. Esaterako, ikasketa unibertsitarioak egin dituzten emakumeen iharduera tasa % 67,6koa da; maila ertaineko ikasketak dituztenen tasa % 58,7koa, eta lehen mailako ikasketak egindakoena, berriz, hagitz apala, % 19.

Ezberdintasunak adinarekin batera doaz: lehen mailako ikasketak egin dituzten 45 urtetik beherako emakumeen tasa % 40,2 baldin bada adin horretatik gorakoentzat % 10,7koa; ikasketa ertainak egin dituztenen artean tasa % 73,9tik % 34,7ra jaisten da, eta unibertsitarien kasuan % 90,1etik % 51,3era.

3.9. TAULA Iharduneko populazionaren iharduera tasak eta banaketa, ikasketa mailaren eta adinaren arauz sailkatuta. (% tan)

	IHARDUERA TASAK		IHARDUNeko POPULAZIONAREN %A	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Lehen Mailakoak Ikask.	19	61,9	29,8	42,2
Ikasketa Ertainak	58,7	74	49	44
Unibertsitateko ikask.	67,6	69,1	21,2	13,8
Lehen Mailakoak:				
16-24 urtera arte	—	—	0,8	0,2
25-44 urtera arte	40,2	96,4	58,9	42,3
> 44 urtetik aurrera	10,7	49	40,3	57,5
Ikasketa Ertainak:				
16-24 urtera arte	48,5	48,4	37,6	26,9
25-44 urtera arte	73,9	97,8	56,9	60,8
> 44 urtetik aurrera	34,7	70,7	5,5	12,4
Unibertsitateko ikask.:				
16-24 urtera arte	38,2	24,7	19,4	9,2
25-44 urtera arte	90,1	89,8	71,5	69,6
> 44 urtetik aurrera	51,3	70,4	9,1	21,2

Iturria: PRA, 1990eko 1. seihilabetekoa.

Beraz, ikasketa maila erreferentzi puntu funtsezkoa da emakumeen lan-partaidetzari dagokionean. Aurrena, goi mailako ikasketak egin dituzten emakumeek gizonek bezain beste hartzen dutelako parte lan munduan; bigarrena, lehen mailako ikasketak egin dituzten emakumeen iharduera tasa oso apala delako.

**LANGABEZIAN DAGOEN
EMAKUMEZKOEN
POPULAZIOA.
EZAUGARRI
SOZIOLOGIKOAK**

3.3

Ihardunean den emakumezkoen populazioan langabeziak sekulako eragina dauka. Emakumezkoen langabezi tasa % 26,9 da eta gizonezkoena % 11,4. Horrezaz gainera, langabezian dauden pertsonetatik erdiak baino gehiago emakumeak dira, ihardunean den emakumezkoen populazioa, iharduneko populazio osoaren herena ere ez denean.

3.10. TAULA 16 urte eta gehiagoko populazioa, iharduneko eta lanik gabekoa (mila pertsonatan)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
16 URTE ETA GEHIAGOKO IHARDUNEKO POPULAZIOA	318,9	562,1	881,0
LANIK GABEKO POPULAZIOA	85,9	64,1	150
Langabeziaren tasa (%)	26,9%	11,4%	17%
Lanik gabeko populazio osoaren %a	57,3%	42,7%	100%
Lehenbiziko lanpostuaren bila	41,4	20,9	62,3
Langabeziaren tasa (%)	13%	3,7%	7,1%
Guztiaren %a	66,5%	33,5%	100%
Beste lanpostu baten bila	44,5	43,1	87,7
Langabeziaren tasa (%)	13,9%	7,7%	9,9%
Guztiaren %a	50,8%	49,2%	100%
IHDARDUNEKO POPULAZIOA	233	498	731
(*) Ihardueraren tasa (%)	26,9%	60%	43,1%
Iharduneko populazio osoaren %a	31,9%	68,1%	100%

Iturria: PRA, 1990eko 1. sei hilabetekoa.

(*) OHARRA: Populazio osoaren iharduera tasa (ihardunekoa eta lanik gabekoa)

Lanik gabe dauden emakumeak erdibana dira kasik, lehendik lan egindakoak % 51,8 eta lehenbiziko enpleguaren bila dabiltzanak % 48,2. Lehenengoak gizonezkoak adina baldin badira, lehenbiziko enplegua bilatzen dabiltzanak gizonak halako bi dira. Horrek esan nahi du lehenbiziko lanpostua lortzeko zailtasun ugariago izan ohi dituztela emakumeek.

Euskal Herriko iharduneko populazio osoaren langabezi tasa, % 17, E.K.E.arena baino handiagoa da, % 10,6, baina gizonezko tasek, bata bestearengandik alde handiegirik ez badute ere, % 11,4 Euskal Herrikoa eta % 9 Europako Komunitatekoa, emakumeen kasuan aldeak ez dira nolanahikoak: % 26,9 eta % 13,2, hurrenez hurren.

Langabeziak emakume gazteengan du batez ere eragina, horrela, lanik gabe daudenen artean % 80 35 urtez beherakoak dira, eta 25 urtez beherakoengan, berriz langabeziaren tasa % 50tik gertu dago.

Emakumezkoen langabezi tasa, adin multzotan banatuta, ia berdin ukitzen ditu ezkongaiak eta ezkongai ez direnak, horrek erakusten du langabeziak ez duela zerikusirik egoera zibilarekin, eta ezkongaiengan eragin handiagoa baldin badu, % 33,7 dira lanik gabe daudenak, ezkongai ez direnak % 20,6 diren bitartean, horren arrazoia ez da besterik gazteagoak direla, eta, jakina denez gazteen artean langabezia handiagoa da.

3.11. TAULA Langabezia tasa eta lanik gabeko populazioaren banaketa, egoera zibilaren eta adinaren arauz sailkatua

	LANGABEZIA TASA						LANIK GABEKO POPULAZIOAREN %A					
	EMAKUMEAK			GIZONAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Guztira	1. lana	Beste bat	Guztira	1. lana	Beste bat	Guztira	1. lana	Beste bat	Guztira	1. lana	Beste bat
Ezkongabeak	33,7	20,3	13,4	25,1	10,2	14,9	60,9	76,1	46,7	79,3	98,6	70
Ezkongai ez direnak	20,6	6	14,5	3,7	0,1	3,6	39,1	23,9	53,3	20,7	1,4	30
Ezkongabeak												
16-24 urtera arte	47,9	33,3	14,5	36	20,5	15,6	62,8	72,7	48,1	51,5	72,3	37,4
25-44 urtera arte	24,7	11,1	13,7	19,9	5	14,9	36,1	26,8	50,2	45,2	27,7	57,1
> 44 urtetik aurrera	5,5	1,5	4,8	11,6	—	11,6	1,1	0,5	1,7	3,3	—	5,5
Ezkongai ez daudenak												
16-24 urtera arte	52,6	12,8	39,7	3,3	—	3,3	6,1	5,1	6,5	0,4	—	0,4
25-44 urtera arte	24,2	7	17,2	3,8	0,2	3,6	84	82,8	84,4	54	100	52,9
> 44 urtetik aurrera	7,8	2,8	5	3,6	—	3,6	10	12,1	9,1	45,7	—	46,7

Iturria: PRA, 1990eko 1. seihilabetekoa.

Emakumezkoen langabeziaren eta ikasketa mailaren artean ez dago erlazio zuzenik, bada, langabeziaren tasa handiena ikasketa ertainak egin dituzten emakumeei dagozkie, % 33,4, eta lehen mailako ikasketak eta unibertsitarioak egin dituztenek tasa berdintsua daukate, % 21 inguru. Gizonezkoen langabezi tasekin konparatuz, ikasketa ertainak eta unibertsitarioak burutu dituzten emakumeenak gizonezkoenak halako bi dira, maila bereberean, eta lehen mailako ikasketak dituzten emakumeenak berriz gizonenak baino lau aldiz handiago dira. Lehen ikasketak eginak dituzten eta lanik gabe dauden emakumeen artean lehendik lan egin dutenak gehiago dira lehen enplegua bilatzen ari direnak baino; ikasketa ertainak burutu dituztenen artean, bi multzoak parekatuak daude, eta unibertsitarien artean, gehiago dira lehen enpleguaren bila dabilzanak.

Azkeneko lau urteetan, 1987-1990, emakumezkoen langabezi tasa lau puntu baino zertxobait gehiago jaitsi da. Beherakada erabatekoa izan bada ere langabezian dauden emakumeen taldearentzat, probetxugarriena lehenbiziko enplegua bilatzen ari ziren emakumeentzat izan da, 35 eta 55 urte artekoentzat, eta ikasketa ertainak eta unibertsitarioak egin dituztenentzat.

Langabezi aldiaren iraupena, emakumeentzat batez beste 27,5 hilabetekoa da, eta 25,2 hilabete gizonentzat. Tarte hori oso antzekoa izaten da lehen enpleguaren bila dabilzen emakumeentzat eta lehenago ere lan egin dutenentzat.

Langabeziaren aseguruia, lehendik lan egin duten emakumeen artean % 14,9k kobratzen dute, gizonen artean berriz, % 32,3k.

3.12. TAULA Langabezia aseguruaren kobrantza

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Gaur egun kobratzen dute	14,9	32,3
Inoiz kobratu dute	32,1	34,7
Behinere ez dute kobratu	53	33
GUZTIRA	100	100

Iturria: PRA, 1990eko 1. seihilabetekoa.


Lehen lana izan eta orain lanik gabe dauden emakume gehienak zerbitzu sektoretik datoz, % 72,4, eta gainerakoak, denak esaterako, industria sektoretik. Hala ere, proportzioz parte txarrera jasan beharra daukatenak industria sektoretik datozenak dira, hortik bait dator lanik gabe dauden emakumeetatik % 25,5, aiantzi gabe aipatu sektorean ihardunean diren emakumeetako % 14,7k baizik ez dutela lanik egiten, horregatik agertzen da hain garbi Euskal Herriko industri birmoldaketa proportzioz emakumeek nozitu zutela gizonezkoek baino gehiago.

3.13. TAULA Langabezia tasak, arlo ekonomikoetan sailkatuta

	LANGABEZIA TASAK		IHARDUNEKO POPULAZIOAREN %A	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Nekazaritza	0,5	2,2	2,9	3,3
Industria	25,5	34,7	14,7	45,1
Eraikuntza	1,6	19,7	1,7	10,3
Zerbitzuak	72,4	40,8	80,8	41,3

Iturria: PRA, 1990eko 1. seihilabetekoa.

17. GRAFIKOA. Langabezia tasak 1990, arlo ekonomikoen eta adinaren arabera (%)



LAN ARLOKO MOTIBAZIO, POZTASUN ETA ITXAROPENAK

3.4

Emakume gehienek lana egiteko aipatzen duten motibazioa, beharrian ekonomikoa izaten da, dela pertsonala, % 36, dela familiara, % 24 (8).

Pertsona bezala garatzeari buruzko arazoak edo independentzia handiagoa lortu nahia bigarren mailan agertzen dira emakumeen erantzunetan, % 19 eta % 14, hurrenez hurren. % 4k bakarrik aitortzen dute lanera joaten direla etxeko errutinatik ihes egitearren.


(8) **Emakunde.** Emakumeen partaidetza lan-merkatuan. Gasteiz, 1990.

3.14. TAULA Emakumeek lan egiteko duten lehenengo arrazoa

	%
Bat bederak duen beharrizan ekonomikoa	36
Familiak duen beharrizan ekonomikoa	24
Errealizazio pertsonala	19
Burujabetasuna erdiestea	14
Etxeko laneko asperdura ekiditea	4
Beste harreman batzu izatea	2
Senitartekoez eraginduta	1
ED/EE	0
GUZTIRA	100

Iturria: PRA, 1990eko 1. hiruhilabetekoa.

18. GRAFIKOA. Zergatik lan egiten duten emakumeek. Arrazoi nagusienak



Beharrizan ekonomikoak garrantzi handiena du lan motibazioaren aldetik, lehen mailako ikasketak egin dituzten emakumeentzat, hauen artean aurkitzen direlarik: 45 urtez gorakoak, lan-egoera okerreana daukatenak, ekonomia murgilduan edo lan harreman berezietan dabilzanak, eta azken finean, gutxien irabazten dutenak.

Emakume ezkonduentzat motibaziorik behinena familiaren beharrizan ekonomikoa da, % 36, batez ere seme-alabak sei urtez gorakoak direnean. Ezkongaien artean, gehienek, % 52, aipatzen dute norberaren beharrizan ekonomikoa lan motibaziorako arrazoirik handiena bezala.

Garapen pertsonalak eta independentzia handiagoak lehentasuna dute, alde batetik, emakume gazte eta ezkongaiengan; eta bestetik, unibertsitarien, administrazio enplegatuen eta soldata hoberena dutenen artean.

Emakumeen lan arloko poztasun maila nahikoa altua da, zeren eta hirutik bi oso kontent daude, % 20, edo aski pozik, % 42. Izan ere satisfakzio maila hau gizonezkoenaren parekoa da. % 10 dira batere pozik ez daudenak.

Argi dagoenez poztasun mailak erlazio estua dauka ikasketa mailarekin eta lan egoerarekin. Ildo horretatik jarraikiz, poztasun maila onena daukatenak unibertsitariak eta administrazioako enplegatuak dira: kontrako bazterrean daude lehen mailako ikasketak egin dituzten emakumeak eta lan egoera makurrena daukaten soldatapekoak.

3.15. TAULA Gaur egun duten lanarekiko poztasuna

	EMAKUMEEN %A	GIZONEN %A
Oso pozik	20	18
Aski pozik	42	48
Pozik samar	22	21
Ez oso pozik	8	8
Batere	7	5
ED/EE	—	—
GUZTIRA	100	100

Iturria: Emakunde, "Emakumeen partaidetza lan merkatuan", 1990.

Emakumeek gehien estimatzen dutena da bere lana iraunkorra eta segurua izatea, hori lehenbizi, eta bigarrenik, ordutegia eroso izan dadila. Baloratzen dituzten beste kualitate batzu izango lirateke: lantokiko giro atsegina, lana norberaren gaitasunari egokitzea, eta adiskide berriak egiteko parada. Ongi ordaindua dagoenentz edo maila igotzeko aukerarik ematen dietenentz, azken mailako kualitateak dira emakumeentzat beren lanpostuan.

Eta lanaren alderdirik ezkorrenak arakatzuz, emakumeek lehenik aipatzen dute ordainketa kaskarra dela, eta lana bera gogorregia: bigarrenik ordutegi deserosoa, mailaz igotzeko aukera eskasak eta aspergarria izatea.

Emakume gehienek bere lanetan segitzea nahi lukete: hamarretik seik halaxe diote, nahiz eta hamarretik lauk bere egoera hobetu eta egungo lanean duten erantzukizuna gehitu nahi luketen. Bostetik batek lanaz aldatu nahi luke, eta % 15ek lana utzi nahiko lukete, frangotan familia zaintzeko. Lanean jarraitzeko gogoia hedatuago dago gizonen artean, % 72, eta askoz ere gutxiago dira % 14, lanaz aldatu nahi dutenak.

3.16. TAULA Gaur egungo lanpostuan segitzeko gogoia

	EMAKUMEEN %A	GIZONEN %A
Gaur egun ari naizen lanean, baina hobetuz eta erantzukizun handiagorekin	40	43
Gaur egun ari naizen lanean, nagoen bezala	23	28
Beste lan batetan	20	14
Lanik egin gabe, nere familia aintzen	8	2
Lanik egin gabe, ikasketak egiten	4	2
Erretiratuta	3	10
ED/EE	2	1
GUZTIRA	100	100

Iturria: PRA, 1990eko 1. hiruhilabetekoa.

LAN HARREMANAK ETA BEREIZKERIA LAN ARLOAN

3.5

SEXUA ETA LAN MERKATUA

3.5.1

Lan merkatuan emakumeak izaten duen partaidetzaren gaineko datuek erakusten digute-nez alde nabariak daude emakumeen eta gizonezkoen egoeran. Hondarreko urteetan bitarte hori neurri batean bederen murriztu bada ere, emakumeenganako diskriminazioa bortitza da oraindik.

Aurrenik, iharduera tasak berak argi erakusten digu diskriminazio horren errealitatea, % 36,9 emakumeen kasuan eta % 67,7 gizonezkoenean. Adina kontutan hartzen badugu, 3.4 taula, bereizkeria kezagarri bihurtzen da 25 urtetik aitzina, % 74, 25 eta 34 urte bitartekoentzat, adin berean gizonezkoen tasa % 93,8 den bitartean. Eta oso kezagarria da 35 eta 44 urtekoen artean, % 45,9 eta % 98,2, batzuen eta besteen kasuan, eta alde hori ezin gaindituzkoa da 45 eta 55 urte bitarteko gizon eta emakumeentzat. Bistakoa da, beraz, emakumearen kontrako bereizkeria, batik bat 35 eta 54 urte bitarteko emakumearen kasuan.

Oroitzen baldin bagara egoera zibilaren arabera iharduera tasaz, ikus 3.6 taula, ezkongabeen artean ez dago aparteko ezberdintasunik gizonen eta emakumeen artean, % 63,4 eta % 57,7, hurrenez hurren. Baina diferentzia areagotu egiten da ezkongai ez direnen kasuan, gizonezkoetan % 70,5 eta emakumezkoetan % 27,4. Bereizkeria zehazteko beste datu batzu: emakumea izatea, 35 urtez goitikoa, ezkondua.

Ikasketa mailak ere, 3.9 taula, zehaztasun gehiago ematen du, zeren hor, ikasketa maila apalenak egin dituzten gizon/emakumeen artean, gertatzen baitira alderik handienak, % 61,9ko iharduera tasa lehen ikasketak dituzten gizonentzat, eta % 19koa maila bereko emakumeentzat. Ikasketa ertainak burutu dituzten gizon eta emakumeen arteko aldea ez da horren nabaria, eta hutsaren hurrengoa, berriz, unibertsitarien artekoa.

Hortaz, emakumearen aurkako bereizkeria bortitza da, are bortitzagoa 35 urtetik gorakoarentzat, ezkondua eta lehen mailako ikasketak bakarrik egindakoa baldin bada.

Langabezi maila askoz ere handiagoa da emakumeetan, % 26,9, gizonetan baino, % 11,4. Bestalde, lehenbiziko lanpostua lortzea zailago zaio emakumeari gizonari baino, honako datu hauek, lehenbiziko enplegua bilatzen ari direnen langabezi tasek frogatzen duten bezala: % 13,9 emakumeetan eta % 3,7 gizonetan.

Laburbilduz, esan daiteke oraindik, gaur egun ere, ordaindu gabeko lanetan diharduten emakumeak, etxeko lanetan batik bat, gehienak direla, % 56,6, lanean ari diren emakumeen kopurua halako bi baino gehiago, % 26,9.

SEXUA ETA LAN IHARDUERA

3.5.2

Emakumezkoen lan iharduera sektore, adar ekonomiko eta profesionalen arabera aztertuz gero, ezberdintasunak begibistan daude.

Horrela, hamar emakumeetatik zortzi, zerbitzu sektorean ari dira, gizonezkoak % 41,3 diren bitartean. Emakumeetatik % 14,7 besterik ez dira industrian ari, gizonezkoak berriz, % 45,1 dira.

Zerbitzu sektorearen barnean, emakumezkoen lan populazioa lau iharduera adarretan biltzen da: denda eta ostalaritza, % 25,1; administrazio, osasun eta irakaskuntza, % 24,9; beste zerbitzu mota, ez komertzialak, pertsonalak eta etxekoak, % 15,6; eta beste zerbitzu komertzialak, % 10,6. Honek adar horien feminizazio bizia adierazten du, horretan biltzen delako iharduneko emakumeen % 76,2, gizonezkoen % 30,1en lekuan.

Beraz, sexu bereizkeria garbi dago iharduera adar ezberdinetan lanean ari den populazioan. Bereizkeria gaingintzeko lanean ari diren emakumeen % 47,4k bere iharduera adarra aldatu beharko luke.

Gauza bera gertatzen da profesioarekin, bada, iharduneko emakumezko populazioaren gehien-goia, % 77,7 lau profesio edo profesio multzoren inguruan biltzen da: etxeko zerbitzu, zerbitzu pertsonalak edo ostalaritzakoak, % 29,4; administrari laguntzaileak, % 19,5; dendari eta saltzaileak, % 15,5, eta maila ertaineko teknikari eta profesionalak, % 13,3, batez ere OHOk ira-kasleak eta erizainak. Lanbide hauetan iharduneko % 19,3 gizon besterik ez dira ari.

Lanbideen banaketa arloan gertatzen den sexu bereizkeria hau deuseztu nahi balute, ihardu-nean diren emakumeetako % 60k profesioz aldatu beharko lukete. Bereizkeria horrek eragin handia du lan merkatuaren dinamikan, batez ere soldatapeko emakumeen kasuan, zeren emakumeak beharturik bait daude lanbide feminizatu horietan lana bilatzera, gehienak maila profesional apalenetarikoak direlarik, soldata kaskarrenez hornituak daudenak, alegia.

Lanbide mailari dagokionez, hamarretik lau, hau da, soldatapeko emakumeetan % 44,2, zehaztu gabeko enplegatuen sailean kokatzen dira, gizonen artean, kasu horretan % 23,5 baizik ez dauden bitartean. Emakumeak arras gutxi dira zuzendaritza-taldeetan; proportzio estimagarrian daude teknikari, irakasle eta erizainen artean batik bat, eta gehienak dira administrarien artean. Industri arloko kategorietan, emakumeen presentzia oso txikia da, eta are txikiagoa goiko kategorietan.

SEXUA ETA EKONOMIA MURGILDUA

3.5.3

Ekonomia murgilduan lanean ari diren emakumeen kopurua iharduneko emakumeen % 5,8 da, eta proportzio hori gizonezkoena baino arrunt goragokoa da, iharduneko gizonezko guztien % 1,1 (9).

Gehienak, % 67, neskame daude, 35 urte baino gutxiagokoak dira, 25 urtetik beherakoak ugarrienak izanik, ezkongai eta ikasketa maila oso apalekoak. Gainerakoak denda eta ostalaritzako enplegatuak dira, % 9,6, bestelako zerbitzuak, % 8,1, eta administrazio, osasun eta irakaskuntzan % 11,5. Azken hauek funtsean erdi eta goi mailako teknikariak dira, batez ere irakaskuntzan ari direnak.

Ekonomia murgilduan ari diren emakume guztien herena zeregin marjinal edo behin-behinekoren batean ari da, eta asteen, batez beste, iharduneko populazioak baino ordu gutxiago lan egiten du, horietako erdiak kasik 30 ordu asteen lan egiten baitu.

SEXUA ETA SOLDATA

3.5.4

Emakumeen batez besteko soldata gizonena baino % 21,6 txikiagoa da. 1989rako bata 799 eta bestea 1.019 pezetatan baloratzen dira (10).

Alde hori handiagoa da enpresa pribatuan, % 24,2, administrazioan baino, % 10,5; eta industriaren arloan, % 22,4, zerbitzuetakoan baino, % 17,5.

Maila profesionaletan, soldata diferentziarik handiena emakumezko ofizial eta espezialistek pairatzen dute, % 17,8, eta enkargatuek, % 23,4, eta gutxi gora behera % 10 izan ohi dira administrari, gradurik gabeko enplegatu, peoi eta ikasberriek izaten dituzten aldeak: soldaten arteko aldeak txikiak edo batere ez dira izaten erdi eta goi mailako zuzendari eta teknikarien kasuan, eta orobat administrari laguntzaileen artean ere.

(9) Aipatutako obra, 53 orr. eta ondokoak.

(10) Aipatutako obra.

Adina kontuan hartuta, soldata ezberdintasuna handiagoa izan ohi da 25 urte arte eta 44 urtetik gora, % 15 eta % 18,7 batean eta bestean, eta egoera zibilari dagokionean, diferentziarik handienak ezkonduak jasan behar izaten dituzte, batez ere seme-alabarik baldin badute, % 17.

Soldata ezberdintasunen zergatia pertsona batek produzitzeko duen ahalmenaosatzen duten hainbat faktorei zor dakieke, adibidez prestakuntza, esperientzia, e.a. Aipatu ikerlanak dioenez sexuen arteko soldata diferentziaren herena baizik ez da arrazoitzen, emakume eta gizonezkoen arteko esperientzi eta prestakuntzaren arteko diferentzian oinarrituz, horrek esan nahi du diferentzia horren beste bi herenak, neurri handienean behintzat, lan munduan gertatzen den sexu-bereizkeriaren ondorio direla.

Ikerketa beraren datuei jarraikiz, sexu-diskriminazioa emakumeen % 12k sumatzen dute, berak baitira soldataren aldetik zuzenean diskriminatuak. Bereizkeriaren kontrako salaketa usu gertatzen da industri arloan lan egiten duten emakumeen artean, non % 46en eritziz diskriminatuta sentitzen baitira; talde horretan emakume gazteenak egongo lirateke, lehen mailako ikasketak egin dituztenak eta gutxien irabazten dutenak. Oso bestelakoa da unibertsitari eta administrazio publikoko enplegatuen egoera, hor ez baita ia batere salaketarik egiten.

EMAKUMEA, LANA ETA ETXEA

3.6

Ordaindutako lanetan ari diren emakumeek, gehienetan etxeko lanez ere arduratu behar izaten dute, horrekin eguneroko lanaldia zeharo luzatzen zaielarik, lehen aipatutako ikerlanak, Emakundek emakumearen lanarekiko partaidetzaz prestatu zuenak, argi uzten duen bezala.

Gizonezkoek, aldi berean, lehenean segitzen dute, etxeko lanari heldu nahi ez diotela, nahiz eta, emakumeek berek aitortzen dutenez, aldaketaren bat sumatzen ere den gizonen jokamoldean, aldaketa jenerazionala, baina garrantzi gutxikoa artean berehala ikusiko dugun bezala. Kontua da emakumeek segitzen dutela askoz ere portzentaia handiagoan, etxeko eta seme-alaben ardura bere gain hartzen. Alderik funtsezkoena da emakumeak, printzipioz, etxeko lanak berari berez balegozkio bezala hartzen dituela, eta hori ez da gizonarekin gertatzen.

Soldatapeko emakumezko langileak maizenik egiten dituen etxeko lanak hauexek dira: janaria prestatu eta ontziak garbitzea, emakumeen % 58k egiten dute egunero; etxea garbitu eta arropa prestatzea, % 46k, eta haurrak nahiz adineko pertsonak zaintzea, % 41.

Artean ere badira soldatapeko emakumeen artean % 29 erosketak egunero egiten dituztenak, baina gero eta ugariago dira zeregin hori astean bizpahiru aldiz edo asteburutan egiten dutenak, % 40.

Soldatapeko emakumeen multzoaren barruan dauden ezberdintasunak etxeko lanei buruz oso handiak dira, horretan zerikusirik bai baitute egoera zibilak eta seme-alabarik izateak. Horrela, ezkonduak lan horiek burutzen dituzte batez bestekoa baino maiztasun gehiagorekin, eta are gehiago seme-alabarik duten ezkonduak.

Ezkongaiak gutxiago lotzen dira etxeko lanetara, eta eginbehar arruntena izaten da janariak prestatu, etxea garbitu eta arropa prestatzea, lan horiek egoera horretan dauden % 30ek baizik egiten ez dutelarik.

Gizonek, bestalde, ia ez dute parte hartzen ere etxeko lanetan, gehienek behin ere ez edo noizik behin bakarrik % 70 eta % 80 kasuetan. % 15 besterik ez dira egunero etxeko lanari ekiten diotenak, hala nola haurrak zaindu, jatekoak prestatu edo ontziak garbitzea, eta izaten dira gehien bat gizon gazte ezkonduak, 25 eta 40 urte bitartekoak. Honek mugak jartzen dizkio belaunaldi-aldaketa deitzen zaion horri, aldaketa hasi ere hasia dela egia izan arren, gazte ezkonduen artean gertatzen da bakarrik, eta portzentaia txikian oraindik ere.

Beraz, alde handia dago zinez gizonek eta emakumeek etxean egiten dituzten zereginen artean, eta tradizioz gizonezkoenak diren zereginetan dago nolabaiteko oreka: konponketak, gestioak, familiakoen garraioak, e.a.

Honek soldatapeko emakumeari edozein lanegunetan kentzen dion denbora bi ordu baino zerbait gehixeago da egunean, baina ezkongaien artean batez besteko hau ordu t'erdikoa baldin bada, ezkonduentzat bi ordu dira, eta seme-alabak dituen ezkonduarentzat, edozein dela ere haien adina, hiru t'erdia iristen da.

Gizonek emakumeek baino hiru aldiz gutxiago dedikatzen dira, batez beste, etxeko lanetara, eta horretan ardura gehien gizon gazte ezkonduak jartzen dute.

Soldatapeko emakumeen artean, 12 urtez beherako seme-alabak dituztenen erdiak familiakoa ez den pertsona baten laguntza dute etxeko lanak egiteko, eta portzentaia hori % 20ra jaisten da soldatapeko gainerako emakumeen kasuan.

Lana/familia bikoiztasun horren beste ondorio bat da frangotan gertatzen dena, hots, famili arazoak direla eta, lana utzi beharra. Ezkondu ondoan lana uzteko joera urria izanik ere, gora egin dezake amatasunak behartuta.

Beraz, eta aipatzen dugun ikerlan horri jarraikiz, seme-alabarik ez duten emakumeetan % 54k baizik ez dute baieztatu segurtasun osoz ez dutela lana utziko aurreneko seme-alaba izatean. % 20k ez luke lagako baldin eta umea nork zaindu aurki baleza edo laneko ordutegia aldatzerik balu. Azkenik, % 18k uste du agian utzi egingo lukeela, eta % 8k utziko luke ziurrenik. Lana uzteaz dudarik gehien lehen mailako emakumeek egiten dituzte, murgildutako ekonomian lanean ari direnek edota lan harreman bereziren bat daukatenek, eta gutxien irabazten dutenek.

4

**EMAKUMEAK
ETA
OSASUNA**

Euskal herriko emakumeen egoera sozialaren gaineko diagnostikoak era ezberdineko erakuskari batzuen analisi bat egiten du, emakumeaz eta haren osasunaz informazioa ematen duena. Egoera hori zehaztea eginkizun zaila da, batez ere bi arrazoigatik: lehenengoa gaiaren beraren izaeragatik eta bigarrena dagoen informazioagatik.

Osasunaren eta emakumeen gaineko azterketak arazo batekin topo egiten du, "baldintza biologiko berezien" mugarekin, alegia, eta hori kontutan hartu behar da osasun arloan gizonaren eta emakumearen ezberdintasuna azaltzeko orduan (11). Horrekin azaldu nahi da erakuskari sanitarioek erakusten dizkigun gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun askorengan eragina dutela faktore biologikoek, zeinak, gizarte, ingurugiro eta statusaren baldintzapenetik bereiztea zaila baldin bada ere, ezin bait daitezke bereizketa diagnostiko gisan erabili, enplegu eta hezkuntza arloetako hainbat erakuskarik erakusten digun era berean.

Alde horretatik, dirudienez ikerketa feministak planteiatzen duen erronka bat da "faktore biologikoak eta sozialak bereiztea", garbi zehaztuz nola jotzen duten eta nolako harremanak izaten dituzten beren artean gizonen eta emakumeen osasun prozesuetan.

Horrek guzti horrek behartzen gaitu emakumeen eta gizonen ezberdintasunaren kuantifikazio soilean ez gelditzera, baizik eta diferentzia horiek zergatik sortzen diren aztertzea. Eta emakumearen osasunaren gaineko azterketan, dirudienez garrantzitsuena arazoen lehentasuna finkatzea da, edozein dela ere horien jatorria, egoera sozialaren ondoriozkoak nahiz bereizitasun biologikotik datozenak. Lehentasunak ezarri beharra funtsezko zeregina da estrategiak prestatu eta baliabideak izendatzeko, eta helburu horretarako balio beharko luke diagnostikoa prestatzea.

Aipatu den bigarren arrazoiak da, eskuartearen dugun gaiari heltzeko momentuan izaten diren zailtasunak adierazteko datu gutxiegi dagoela, eta eskasia hori areagotu egiten da sexuaren arazoa sartzean.

Informazioaren eskasia honen sorburua osasun hitzaren definizioan berean datza, baina gainera beste arrazoi bat da anitz faktoreen menpe dagoen aldagai bat dela. Faktore garrantzizkoenak biologikoak edo endogenoak dira, gizarte eta inguruneari datxekizienak, bizimoldeari loturik eta osasun sistemarekin zerikusia duten faktoreak. Elkarren arteko menpekotasun horrek, osasunari buruzko neurketak eta analisiak teknikoki oso konplexuak izatera behartzen ditu.

Kapitulu honetan osasun erakuskari batzu bildu dira, emakumeentzako interes eta eragin berezia bide duten alderdiei buruzkoak, eta horren edukina osatuz joan da, eskura zegoen informazioa aurkitu eta datu berrienak erabili ahal izan diren neurrian.

Erakuskarien aurreneko multzoa espreski osasunarena da, eta bertan biltzen dira heriotzaren, gaisotasunaren eta arrisku bideen faktoreak. Emakumeentzako aparteko garrantzia eta interes handikoa da, politika sanitarioak ezartzerakoan, kontutan hartzea sexuaren elementu diferentziala, osasunari dagozkion gorabeheretan eragin argia duelako.

(11) **Martínez Ten, Carmen eta Martínez, Rosa**, "Indicadores Sociales de la Salud de las Mujeres". **Indicadores Sociales para la Mujer** liburuan, Debate Saila, 8. Gizarte Arazotarako Ministeritza, Emakumearen Erakundea, Madrid, 1989. Egileek azpimarratzen dute beren helburua ez dela erredukzionismo biologistak egitea, frangotan erabili izan direnak, bestalde, emakumeen gutxiagotasuna frogatzeko, eta horretarako eragin handia izan dute bai medikuntzak eta baita osasun sistemak ere, estereotipoak eta arau definizioak sortuz, azken finean jokabide ideologiko sexista baten ondorio baizik ez direnak.

Bigarren multzoan aurkezten dira amatasunaren eta ugalketaren gaineko erakuskariak, garrantzi handikoak emakumeen jokabidea baloratzeko ugaltze prozesuan duten eginkizunari dagokionean. Atal honetan interes bereziko gaitzat hartzen da ebakuntzetan erabiltzen den gehiegizko medikalizazioa eta aipatzen da zer motatako harremanak izango liratekeen egokienak haurdun dauden emakumeei laguntzeko.

Beharrezkoa izan zitekeen euskal emakumeen eginkizuna ezagutzea, famili artean zerbitzu eskaintza zabala ematen baitute. Gauza jakina da, senitartekoen beharkizunen zati handi bat ziurtatzen duten neurrian, oso zaila izango zaiela emakumeei gizonek dituzten aukerak berak izatea lan merkatuan, kultura, gizarte eta politika arloan sartzeko.

Daturik argienetariko bat da emakume batek familiaren barruan betetzen duen osasun laguntza. Une honetan ez dago datu zehatzak emateko moduko informaziorik, baina garrantzi handia duelako, Emakundek bere kezka agertu nahi izan du gizartea arazo horretaz eta horri buruzko neurriak hartzeko beharraz jabetu dadin.

OSASUNAREN ERAKUSKARI OROKORRAK

4.1

HERIOTZ TASARI BURUZKO ERAKUSKARIAK

4.1.1

BIZI ITXAROPENA


Emakumeek adin guztietan bizi itxaropen handiagoa izatea gizarte garatuetao populazioaren ezaugarri bat izan ohi da.

4.1. TAULA Bizitz itxaropena jaiotzean eta halako adin batzuetan, sexutan sailkatuta


	1.980-81		1.985-86		BIZITZARAKO IRABAZITAKO	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Jaiotzean	78,53	70,96	79,66	72,36	1,13	1,40
25 urtetan	55,12	41,10	56,10	49,08	0,98	0,98
50 urtetan	31,15	25,28	32,07	25,07	0,92	0,69
75 urtetan	10,46	8,21	11	8,37	0,54	0,16

Fuente: EUSTAT: Demografi erakuskariak, 1991. Bertan egindakoa.

19. GRAFIKOA. Bizi itzaropena. 1980-81 adinaren eta sexuaren arabera (urtetan)



20. GRAFIKOA. Bizi itzaropena. 1985-86 adinaren eta sexuaren arabera (urtetan)



Datu hauek direla eta, gogoeta batzu egin daitezke:

- Argi dagoela dirudi bizi itxaropenak gora egin duela, hala gizonenak nola emakumeenak, 1980-81eko bosturtekotik 1985-86rako bosturtekora.
- Gorakada hori adin guztietan suertatu da, adierazgarria da jaiotzerakoan eta beheratuz doa adinak aurrera egiten duen heinean.
- Gizonen eta emakumeen artean ezberdintasun batzu ikus daitezke. Gizonezkoetan pixka bat igo du bizi itxaropenak jaiotzeko unean, 1,4 urte irabazi dute, eta emakumezkoek berriz 1,3.
- Emakumeentzat bizitzeko urteen portzentaiak gora egin du 50 urtetik aitzina, emakumeek 0,92 urte irabazi dute, eta gizonek berriz 0,69 berrogeitamar urtetan, eta 0,54 eta 0,16, emakumeek eta gizonek, 70 urtetan.

Datu hauek guztiak, populazioaren piramidean sartzean erakusten digute emakumezkoen populazioa kopurutsuagoa dela heldutasunetik aurrera, horrek berekin dakartzan arazo sanitario eta sozial bereziekin, adin horietako emakumeen heriotz eta gaisotasun tasetan isladatzen diren bezala.

HERIOTZ TASA

Heriotz tasaren azterketak, zergatien eta adin multzoen arabera, aukera ematen digu heriotz eragileen multzo horiek ikusteko, non emakumeak gizonak baino tasa handiagoak izaten baititu, bai eta heriotzaren arrazoi ezberdinen portzentai egitura ere, sexuen arabera sailkatua.

Interesgarria litzateke, beste herrialde batzuetan egin duten bezala, heriotzaren zergatiek zein joera izango duten beren bilakaeran aztertzea. Heriotz zergatiak lotuta daude emakumeen gizarte eta lan egoeraren aldaketekin: adibidez, arnas aparatuko eritasunen eta tumoreen eragina, baina oraindik ez dugu informazio hori. Interes berezia izango luke astiro-astiro minbizi espezifikoak aztertzeak, eta nola ari diren garatzen horien eragin nahiz heriotz tasak. Era honetako erakuskariak kontuan hartzekoak lirateke heziketa sanitarioaren arloko ekintzetan eta gisa horretako patologien laguntzarako programak prestatzerakoan.

Jarraian ikusiko ditugu E.K.A.ko heriotz erakuskari zenbait, gizonek eta emakumeek heriotzaren aurrean dituzten aldeak aztertzeko parada ematen digutenak.

4.2. TAULA Urte betetik beherako haurren heriotza, eritasun larrien ondorioz, sexutan sailkatuta

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Eritasun infekziozko edo parasitarioak	—	—	1	1,3	1	77,5
Tumoreak	2	3,2	—	—	2	1,5
Zirkulazio aparatuaren eritasunak	2	3,8	5	6,4	7	5,4
Arnas aparatuaren eritasunak	2	3,8	1	1,3	3	2,3
Liseriketa aparatuaren eritasunak	1	1,9	2	2,6	3	2,3
Sortzetikako akatsak	19	36,5	27	35,1	46	35,6
Jaiotza inguruko afekzioak	22	42,3	29	37,7	51	39,5
Gaizki zehaztutako gaisoaldiak	3	5,7	11	14,3	14	10,8
Zauriak eta pozoindurak	1	1,9	1	1,3	2	1,5
GUZTIRA	52	49,3	77	59,7	129	100

Iturria: EUSTAT: "Populazioaren berezko garapena, 1989". Bertan egindakoa.

Bizitzako urtea bete baino lehen 10tik 6 heriotz, mutikoen artean gertatzen dira. Bizitzako etapa horretan heriotz eragile nagusiak "jaiotza inguruan sortutako zenbait afekzio" eta "sortzetikako akatsak" izaten dira. Aldaketaren batzu izaten dira sexuaren arabera, neskatoak direlarik zergati horien eragina gehien pairatzen dutenak, batez ere jaio aurreko afekzioetan % 42,3, mutikoe-tan % 37,7 den bitartean. Hala eta guztiz ere, alderik handiena "gaizki zehaztutako gaisotasun aztarna, sistema eta egoeretan" izaten da, hauek baitira mutikoetan maizago gertatzen.

Heriotzaren egiturak erakusten digu, populazioan oro har, heriotz eragile garrantzizkoenak "tu-moreak" eta "zirkulazio aparatuaren gaitzak" direla. Badira ezberdintasunak gizonen eta ema-kumeen artean, tumoreak direlarik gizonezkoen ezaugarri bereziena eta emakumeetan berriz zirkulazio gaitzak hartzen du lehen tokia, hain zuzen emakumezkoen heriotz tasaren % 44 era-giten baitu. Tumoreak emakumeen heriotz eragileen artean bigarren postuan daude, % 23 in-guru, baina gizonezkoak dira arrazoi honegatik gehien hiltzen direnak, % 31,3.

Gainerako heriotz eragileen sailkapenean aipatzekoa da "arnas aparatuaren gaitzek" eta "ezbeharrek" zernolako garrantzia duten jakitea sexuari dagokionean. Biek eragin handiagoa dute gizonezkoengan, batez ere ezbeharrek, % 7,8, emakumezkoengan % 3,1 den bitartean. Interesgarria litzateke halaber, zenbaki hauek etorkizun hurbilean zer garapen izan dezaketen jakitea.

Heriotzaren zergatiak adinez adin aztertzen baditugu, eranskineko A.13 taula, heriotz tasaren egitura zehazkiago isladatuta ikusiko dugu. Heriotz eragileek, adin orotan, arestian aipatutako jarraibide orokorre segitzen diete, salbuespen batekin, hots, "tumoreek" heriotza dakartela ba-tez ere 45 eta 65 urte bitarte horretan, eta zirkulazio aparatuaren eritasunak adin horretatik aurrera, bereziki adintsuenetan. Eritasun hori hedatuago dago emakumeen artean, eta tumo-reengatik hildakoak batez ere 35etik 54 urtera bitarte izaten dira.

Heriotzaren azken erakuskari gisa heriotza dakarten eritasunak aurkezten ditugu, batez besteko adinaren arabera. Gizonen eta emakumeen bizi itxaropenarekin erlazionatuta dago, emaku-meen adina hiltzean 8,9 urte gehiagokoa delarik.

4.3. TAULA Hildakoen batez besteko adina, eritasun larrien ondorioz, sexutan sailkatuta

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Eritasun infekziozko edo parasitarioak	72,4	64,7	67,7
Tumoreak	69	66,3	67,3
Glandula endokrinoetako eritasunak	73,7	59,3	67,3
Odoleko gaitzak	78,2	70,7	74,1
Adimenaren nahasmendua	82,6	75,6	79,9
Nerbio sistemaren gaitzak	70,6	64,5	67,4
Zirkulazio aparatuen eritasunak	80,9	71,8	76,5
Arnas aparatuen eritasunak	80,5	74,9	77,1
Liseriketa aparatuen eritasunak	73	66,1	68,8
Ernaltze organoen eta gernubideen eritasunak	78,9	75,5	77,1
Haurdunaldiko ajeak	—	—	—
Azaleko gaitzak	84,9	78,1	82,8
Hezur eta muskulu sistemaren gaitzak	78,8	76,6	78,2
Sortzetikako akatsak	8,7	6,5	7,4
Jaiotza inguruko afekzioak	—	—	—
Gaizki zehaztutako gaisoaldiak	84	66,3	76,6
Zauriak eta pozoindurak	50,1	43,6	45,2
GUZTIRA	75,7	66,8	70,8

Iturria: EUSTAT: "Populazioaren berezko bilakaera" 1989.

Eritasunetik abiatuz, emakumeak, batez beste, heriotzeko orduan zaharragoak izaten dira. Gizonezkoen kasuan, gazteago zergatik hiltzen diren azaltzeko, batez beste 65 urtetik behera, badira arrazoiak. Hauek dira: "glandula endokrinoen, elikaduraren, metabolismoen gaitzak eta immunitatearen akatsak", 59,3 urterekin; "nerbio sistemaren eta zentzumen organoetako gaitzak", 64,5 urterekin; eta "infekziozko gaitzak nahiz parasitarioak", 64,7 urterekin.

Emakumeen artean gaitzik goiztarrenak, "traumatismo eta pozoiketen" ondotik, "tumoreak" dira, batez beste 69 urterekin, gizonezkoen antzera, hor nonbait.

GAISOTASUN TASARI BURUZKO ERAKUSKARIAK

4.1.2

Heriotz tasaren gaineko datuek erakusten digute emakumeak gizonak baino gogorragoak direla heriotzaren aurrean. Hala ere, gaisotasun (12) tasa aztertzean erakuskariek azaltzen digutenez, hor alderantzizkoa gertatzen da, emakumeengan eragin handiago duela.

(12) Gaisotasun kontzeptua herri batean dauden gaisotasun multzoari dagokio.

BALIABIDEEN ERABILERA

Euskadiko Komunitate Autonomoaren Osasunari buruzko Inkestak (E.K.A.O.I.) (13) erakusten digu emakumeak direla osasun zerbitzuak gehien erabiltzen dituztenak, batez ere 25 urtetik gora, eta gainera maiztasun handiagoz, 4.4. taulako datuek isladatzen duten moduan.

4.4. TAULA Populazioaren banaketa, osasun profesionalengana joaten diren ala ez eta azken 12 hilabetetan eginiko kontsulten maiztasunen arabera, sexutan sailkatuta. (% horizontaletan)

	KONTSULTAK		IKUSTALDIAK			GUZTIRA
	KONTSULTA KOP.	KONTSULTAK	BATERE EZ	1-2	3 ETA +	
Emakumeak	75	25,0	24,2	32,6	43,2	12.624
Gizonak	78,4	21,6	23,8	37,9	38,3	12.033
GUZTIRA	76,6	23,4	24	35,2	40,8	24.657

Iturria: EHAren 85-86eko Osasun Inkesta.

Osasuneko profesionalei egin zaizkien kontsultak anbulategietan egin dira, % 86, eritetxeetan % 7 eta gaisoaren etxean bertan % 4.

Kontsultatzen diren gaitzei buruzko informazioa aztertzean ez da kontutan hartu sexuaren alderdia Lehen Osasun Laguntzako Eritetxeetan egindako estatistiketan, ez dago beraz argibiderik alde horretatik. Halaz ere, daitekeena da, hein handi batean behintzat, ugalketa-osasuna gero eta gehiago medikuntzako arazoa izatea, eta hortik letorke emakumeak sarriago joatearen arazoia.

Eritetxeko gaisotasun tasa kontutan hartuz gero, datu interesgarriak agertzen zaizkigu era horretako baliabideak gizonek eta emakumeek erabiltzerako orduan.

4.5. TAULA Populazio eritetxeratuaren banaketa, adinaren eta sexuaren arauz sailkatuta

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
< 14 urtetik behera	76	4,8	102	6,5	178	11,3
15-24 urtera arte	81	5,1	106	6,7	187	11,8
25-44 urtera arte	296	18,7	161	10,2	457	28,9
45-64 urtera arte	232	14,7	240	15,2	472	29,9
< 65 urtetik gora	138	8,7	148	9,4	286	18,1
GUZTIRA	823	52,1	757	47,9	1.580	100

Iturria: EHAren 85-86eko Osasun Inkesta.

(13) Eusko Jaurlaritzak/Gobierno Vasco. Osasunketa eta Kontsumo Saila. "Euskadiko Komunitate Autonomoko Osasunaren Inkesta". Estatistika eta Lan Txostenak Saila, 14. zenbakia, Gasteiz, 1987ko abendua.

Adina aurrera doan heinean eritetxeratzen diren pertsonen portzentaia gehituz joaten da. Gizonezkoak eta emakumeak neurri berdintsuan baliatzen dira horretaz, non ez diren 24tik 44 urtera bitarteko emakume haurdunak. Beste alde batetik, adin horretatik aitzina, 45 eta gehiagorarte, gizonezkoak maizago eritetxeratzen dira.

Sexuaren arabera banatutako daturik ez izanik, ez dago gizon eta emakumezko eritetxeratuaren arteko diagnostiko ezberdintasunak aztertzerik.

ANTZEMANDAKO GAISOTASUN TASA

Emakumezkoen gaisotasun tasaren azterketarekin jarraituz, heriotz tasarekin alderatuta, antzemandako gaisotasun tasak informazio kualitatibo garrantzizkoa dakarkigu, emakumeek beren osasun egoera nola ikusten duten azaltzen diguna.

Oro har, emakumeek beren osasun egoera gizonezkoena baino txarrago jotzen dute, dituzten problemek gehiago irauten baitute patologia multzo gehienetan eta adin guztietan, bereziki adinean aurrera doazen heinean, ikus eranskineko A.14 taula.

Halaber, ez dugu ahanzi behar egitura demografikoak ere eragin handia duela emakumeak gehiago gaisotzeko eta medikuarengana maizago joateko. Zaharrenek izaten dituzte iraupen gehiagoko osasun arazoak eta horien artean gehiengo emakumezko populazioa da.

ARRISKU BIDEAK

4.1.3

Arrisku bideak, oro har, gaisotasun tasarekin zerikusia duen osasun egoeraren alderdi garrantzitsu bat osatzen dute. Arrisku bide horien barnean sartzen dira osasunarentzat arriskutsuak diren bizimoduak, eta horiek aztertuz gero aukerak ematen dizkigu etorkizunean ager daitezkeen zenbait eritasun aurrikusteko. Hiru bizitzeko modu aztertu dira osasunari arrisku handia lekarkiokeenak: erretzea, alkoholazetasuna, eta ariketa fisikorik ez egitea.


ERRETZEA

4.6. TAULA Tabako kontsumoa sexutan sailkatuta

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Ez da erretzailea	61,3	16,9	41,5
Erretzaile ohia	4,8	18,7	11
Noizbehinkako erretzailea	16,6	14,5	15,7
Eguneroko erretzailea	17,3	49,9	31,8
GUZTIRA	625	504	1.129

Iturria: EHAEaren 85-86eko Osasun Inkesta.

21. GRAFIKOA. Tabakoaren kontsumoa sexuaren arabera (%)



Aurreko taulan isladatzen den bezala, erretzeko ohiturari dagokionez, alde nabaria dago gizonen eta emakumeen artean. Emakumeetan % 17k bakarrik dira eguneroko erretzaileak, gainera neurritz erretzen dute, eta batik bat 16 eta 24 urte bitarteko emakumeak dira. Horien parean gizonezkoen % 50ek egunero erretzen dute, eta erdiak baino gehiago 10 zigarrotik gora egunean.

Tabakoaren kontsumoa adinaren arabera aztertuz gero aditzera ematen digu emakumeen erretzeko ohitura gizonezkoekin berdinduz doala gero eta gehiago. 65 urtetik gorako pertsonen artean emakume erretzailerik ia bat bera ere ez dagoen bitartean, 25 urtetik 64era, tarteak moztan ari dira, eta 16tik 24 urtekoen artean aldeak askoz ere txikiagoak dira.

Bestalde, 25 urtetik beherako emakumeek kontsumoa asko gehitu duten bitartean, adin bereko gizonezkoek franko jaitsi dute zaharragoekin alderatuz gero.

ALKOHOLAREN KONTSUMOA


Alkoholaren kontsumoa erabat ezberdina da sexuen artean.

4.7. TAULA Alkoholaren kontsumoa, sexutan sailkatua

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Abstemioa, ez du behin ere edan	25,9	3,8	16
Noizbehinkako edalea	38,7	14,9	28
Edale ohia	4,5	9,7	7
Eguneroko edalea	30,9	71,6	49
GUZTIRA	622	503	1.125

Iturria: EHAEaren 85-86eko Osasun Inkesta.

22. GRAFIKOA. Alkoholaren kontsumoa sexuaren arabera (%)



E.K.A.O.I.ko galderei erantzun dieten emakumeen laurdenak ez duela edaten dio, gizonetzkoak % 4 diren bitartean. Kontrako tokian ohizko edaleak daude, gizonetzkoen % 71,6 eta emakumezkoen % 31. Baina horrezaz gainera, ohizko kontsumo honek —gutxi/neurriz/dexente/gehi- gi/ erantzunetan sailkatu dena—, adierazten du emakumeen arteko ohizko edaleek gutxi edo neurriz kontsumitzen dutela. Gizonen portaera bestelakoa da, zeren talde handia baita dexente eta are gehiegi ere edaten duena.

Adina eta kontsumoaren bilakaera ikusirik, emakume edaleak gizonetzkoak ez bezalakoak dira adin guztietan, hala ere berdintzeko joera tabakoarena baino azkarrago doala dirudi, begira bestela zein alde gutxi dagoen 25-64 urtekoen kontsumoan eta 16-24 urtekoenean.

ARIKETA FISIKOA

Osasunaren ikuspegitik, ariketa fisiko batetan parte hartzea onuragarria da, zuzenik bizitzaren kalitatean eragina duelako. Azterketa batzuek pentsa erazten digute forman egotea, ariketa fisiko erregular bati esker lortu dena, prebentziorako eta errehabilitaziorako on direla. Ikus dezagun emakumeen egoera arlo honetan, eta zehazkiago zein toki betetzen duen ariketa fisikoak haien aisialdietan.

Emakumeen artean “bizikera geldia” gizonen artean baino zabalduago baldin badago ere % 69,3 eta % 63,1, alde hori ez da hainbesterainokoa. Aldea nabarmena da, ordea, kategori guztiak bitan laburtzen badira: aktiboak eta ez-aktiboak. Sailkapen horretan gizonetzkoak aktiboagoak dira emakumeak baino, eta adina ere kontutan hartzen badugu, orduan gizonik gazteenak dira ariketa gehien egiten dutenak, horietan % 35 baizik ez dira sedentarioak, adin bere berean emakumeak % 63 direnean. Gainerako adin multzoetan ez dago alde aipagarriarik, baina adinez aurrera joan ahala populazioa egonkorrago bihurtzen da. Eranskineko A.15 taula.

UGALKETA ARLOKO OSASUNA

4.2

Emakumearen osasunaren aldetik azpimarratzekoa da espreski amatasunari eta haurdunaldiari dagokion guztia, hau da, ugalketa arloko osasuna.

Emakumeek amatasunaren aurrean zuten jarrera aldatu egin dela jakineko gauza da, hainbat erakuskarik segurtatzen duten bezala. Agian, jaiotzen beherapenak isladatzen du ongien prozesu hori, baina badira beste elementu batzu, hala nola haurdunaldien kontrola, diti emateko aldia murriztea, famili plangintzarako zerbitzuak gero eta gehiago erabiltzea, e.a., hori guztia delarik aipatu aldaketaren arrazoi eta ondorio, aldi berean.

Jarraian datu batzu aurkezten ditugu gai hauei buruz —famili plangintza, haurdunaldi prozesuak, erditzea, edoskitze aldia, eta haurdunaldiaren borondatezko etendura—, euskal errealitatea zein den erakusten digutenak.

Famili Plangintzaren helburua Nazio Batuen Biltzar Nagusiak zehaztu zuen, bai eta Europako Kontseiluak eta Osasunaren Mundu-Erakundeak ere. Idearik behinena da Famili Plangintzaren eginkizuna informatzea, aholku ematea eta egintza batzu burutzea dela, gizabanako nahiz bikoteei laguntzeko beren ugaltze prozesuaren antolakuntzan.

Interes hau nazio ezberdinetan indarrean dauden famili plangintzez egindako hainbeste ikerketetan mamitu da. Famili plangintzak aintzakotzat hartzen ditu batez ere osasun indibiduala, giza harremanak eta bizitzaren kalitatea. Nahiz eta horren garrantzia aitortu eta familiaren aholku programetan erizpide eta metodo berriak bereganatu duten, horien eraginkortasuna ez da nahi adinakoa izan (14). Horri buruzko txosten batean, Europako Kontseiluak argitaratutakoa, famili plangintzako programen eraginkortasuna galeraztan duten oztopo larrienak erakusten dira.

Oztopo legalak, ekonomikoak, administratiboak, osasun arloko enplegatuen laguntzarik eza, eta oztopo soziokulturalak eta erlijiosoak metatzen dira desegokitasunen multzo orokorrean, zeinek in topo egiten baitute famili plangintzako programek. Txosten honen xedea ez da inola ere E.K.A.aren barrutian aipatu diren bezalako hesiak badirela salatzea, batez ere, eskura dugun informazioa Famili Plangintzaren baliabideak erabiltzera mugatzen delako, eta hortik aipatutako arazoetako banaka batzu baizik ez dira ateratzen ahal.

Ondoren, E.K.A.ko "Emakumearen Osasun Egitasmoa 1990" delakotik datu interesgarri batzu aurkezten ditugu, Ama/Haurra arloan eta Famili Plangintzan. Datu horiek bildu dira Osakidetzaren Emakumearen Laguntza Egitasmoan, zeinek hainbat informazio iturri baitauka, bereziki hauek erabili direlarik:

- Metabolopatien erregistroa.
- H.N.E.en erregistroa.
- "Obstetria Zerbitzuak, 1990"aren erabilerari buruzko inkesta, Osakidetzak egin erazi zuena.
- Famili Plangintza zentruetan burutzen diren ekintza batzuren argibideak, hala nola haurdunaldiaren kontrola, heziketa sanitario eta erditzeko prestakuntza saioak, eta famili plangintzarako zerbitzu eskaintza sare publiko osoan. Informazio hori erregistratzeari ekin zaio, sare publikoko zentruak Osakidetzan bildu ondoren.

Informaziorik gertuena, E.K.A.ko Plangintza Zentruetan burutzen diren ekintzei buruzkoa, 1988koa da, eta Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Sailak bildutako datuei dagokie. Datuok 4.8 taulan ageri dira.


(14) Kultur Ministeritza. Emakumearen Institutua. "Situación de la mujer en España", Madrid, 1986ko abendua.

4.8. TAULA Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta E.K.A.ko famili plangintzarako zentruetan egiten diren kontsulten arrazoiak. 1988

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		CAE	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Antisorkuntza	5.961	50,4	22.459	44,6	11.141	45,2	39.561	45,5
Haurdunaldia	1.262	10,7	4.306	8,5	1.792	7,3	7.360	8,5
Erdiberriaroa	169	1,4	637	1,3	673	2,7	1.479	1,7
Beste batzu	404	3,4	9.122	18,1	4.302	17,4	13.828	15,9
H.B.E.	507	4,3	3.851	7,6	934	3,8	5.292	6,1
Psikologi kontsulta	80	0,7	1.277	2,5	35	0,1	1.392	1,6
Kontsulta soziala	1.226	10,3	860	1,7	1.416	5,7	3.502	4
Zitologiak	1.531	12,9	5.244	10,4	3.287	13,3	10.062	11,6
DIU insertatuak	207	1,7	1.891	3,8	860	3,5	2.958	3,4
Basektomiak	341	2,9	576	1,1	177	0,7	1.094	1,3
Tronpa loturak	146	1,2	112	0,2	56	0,2	314	0,4
GUZTIRA	11.834	100	50.335	100	24.673	100	86.842	100

Iturria: Famili Plangintza. Eusko Jaurlaritzako Osasunketa eta Kontsumo Saila, 1988.

23. GRAFIKOA. Kontsultarako arrazoiak E.K.A.ko famili plangintzarako zentruetan. 1988 (%)



E.K.A. osoan 86.842 kontsultei erantzun zitzairen 1988an, horietatik erdia inguru antisorgailu, argibide edo jarraipenez izan ziren. Bigarren kontsulta multzoa, ia % 16, 4.8 taulan sailkatutakoak ez bezalakoak dira; zitologiak egitea, % 11,6, maiztasun handiko beste ekintza bat da F.A.Z.etan

Lurralde historikoetan egiten diren kontsulten arrazoiei erreparatzen badiegu, aipagarria da, besteengandik bereizten delako, Araban "beste arrazoiengatik kontsultak" E.K.A.ko gainerakoekin alderatuta askoz ere gutxiago direla, kontsulta sozialak, ordea, askoz gehiago eta, neurri apalagoan, haurdunaldi eta basektomiari dagozkienak. Bizkaian haurdunaldiaren borondatezko etendurarako arrazoa, % 7,6, gehiagotan aipatzen da, Araba eta Gipuzkoan baino, % 4,3 eta % 3,8 bata eta besteak. Azkenik, Gipuzkoan gailentzen dira erditze ondoko kontsultak eta zitologiak, % 2,7 eta % 13,3 bietako bakoitzak.

Izaera psikologiko eta sozialeko kontsulten erregistroak aurrerapen bat suposatzen du Famili Plangintza Zentruak eskaini behar duen zerbitzuari dagokionean. Aurrerapen horrek bultzatzen du zerbitzua medikuntzaren ikuspegitik bakarrik ez hartzera, baizik eta bezeroarekiko interbentzio eta harremanak era orokorragoan ulertzera, kontuan hartzen direlarik bizitzaren alderdi guztiak ukitzen dituzten alderdiak, esaterako alderdi sozialak eta psikologikoak.

Illo horretatik, aipatu behar da Famili Plangintza Zentruak emakume askorentzat Gizarte Zerbitzuetako zirkuitoetan sartzeko atari izan direla, zeren hasiera batean antisorgailu eta, oro har, amatasunari buruzko laguntza eskabidea zirudienak askoz ere eduki konplexuagoa bait zuen, famili arazoak, pertsonalak edota sozialak biltzen zituelako.

HAURDUNALDIAREN ARAZOAK

4.2.2

Euskadi 2.000erako Osasun Politikaren (S.P.E.) txostenak 8 kontrol egitea gomendatzen du eta Ginekologiako C.A.T.arenak 9, gutxienez, haurdunaldi bakoitzeko. Obstetrizia Zerbitzuak bezeroaren gaineko Inkestan haurdun bakoitzeko 9,3 kontrol, batez beste, aitortzen dira. Horrek erakusten du haurdunaldiaren ikuskapenak prebentziozko osasun ohitura bihurtu direla, emakumeen gehiengoak bere egin dituztenak.

Beste seguruetakoa ginekologoek eta ginekologo pribatuek egin dituzte haurdun bakoitzeko kontrol gehien, batez beste 7 eta 8, hurrenez hurren, 4.9 taulan ikus daitekeen bezala. Alabaina, Osakidetza ginekologoek burututako haurdunaldi-kontrolak proportzioz gehiago dira, % 40,9. Beraz, badirudi Osakidetza pertsona gehiago duela haurdunaldi-kontrolari dagokionez, baina nagusitzen ari da ginekologo pribatu eta beste asegurutakoen zentruetan bertaratzaren zaien emakume haurdun bakoitzeko, batez beste, kontrol gehiago egiteko joera.

4.9. TAULA Haurdunaldiaren kontrolak, E.K.A.ko profesionarien arabera, 1990 (portzentaiak)

	%	BATEZ BESTEKO KONTROLAK
Osakidetzako ginekologoa	40,9	6,3
Ginekologo pribatua	20,5	7
Beste Seguruetakoa ginekologoa	21,1	8
Emagina	12,4	3,9
Etixerako medikua	5,1	2,5
GUZTIRA (Abs.)	1.220	

Haurdun bakoitzeko batez besteko kontrolak: 9,3

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetrizia Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

Bestalde, finkatua dago gutxienez 8 kontrol behar direla eta horietako 4 ginekologiako espezialista batek egin behar dituela. 4.10 taulak agertarazten du kontrol kopuru egokia izan duten emakumeen banaketa. Haurdun gehienek betetzen dituzte ezarri diren gutxieneko kontrol-gomendioak, eta honen froga da, % 72 direla ia edozein profesional motatako batek egindako 8 kontrol baino gehiago pasatu dituztenak, eta % 80 inguru dira ginekologo batengana 4 aldiz edo gehiagotan joan direnak.

4.10. TAULA Haurdunen banaketa. haurdunaldiaren kontrol kopuru egokiaren arabera sailkatuta, E.K.A. 1990 (portzentaiak)

	HAURDUNAK
PROFESIONARI GUZTIEK	
8 kontroletik gora	71,8
7 kontroletik behera	28,2
GINEKOLOGOAK	
4 kontroletik gora	89,1
3 kontroletik behera	10,9
GUZTIRA (Abs.)	1.220

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetrizia Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

Lehenengo kontrola noiz egin behar den gomendatzen dute S.P.E.en, eta horien helburua da 1995erako haurdunen % 80k haurdunaldiaren lehen kontrola lehenengo hiruhilabetekoan egi-tea. 4.11. taulan agertzen denez helburu hori erdietsi da dagoeneko E.K.A.an, bada, haurdunen % 93,4k beren kontrolekin hasi bait ziren lehenbiziko hiruhilabetekoan.

4.11. TAULA Haurdunen banaketa, lehenbiziko kontrola noiz egin duten kontutan hartuta. E.K.A., 1990 (portzentaiak)

	HAURDUNAK
Lehen hiruhilabetekoan	93,4
Bigarren hiruhilabetekoan	6,1
Hirugarren hiruhilabetekoan	1,1
Erditzean	0,4
GUZTIRA (Abs.)	1.220

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetrizia Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

ERDITZEKO PRESTAKETA

Erditzeko prestaketa da praktika bat, hedatu samar dagoen arren, haurdunaldiaren kontrol medikoa bezain onartua ez dagoena. S.P.E.n 1995erako ezarritako helburuari erreparatzen badiogu, zeinek beharrezkotzat jotzen baitu emakume haurduneetako % 80ri erditzeko tenorean laguntza ematea, eta hori konparatzen badugu E.K.A.ko errealitatearekin, % 64,4k jasotzen dutela laguntza hori, alegia, defizit tarte bat dugu praktika horretan, gainditu beharrekoa, eta hori lortzeko neurri batzu hartu beharra izango da, jakina.

4.12. TAULA Haurdunen banaketa, erditzeko prestaketa saioetara joan ziren eta nora kontutan hartuta

HAURDUNAK			HAURDUNAK		
JOAN ZEN?	Ez Bai	35,6 64,4	NORA?	Osakidetzara Beste segurueta Zentru pribatueta	75,5 4 23,5
GUZTIRA (Abs.)		1.220	GUZTIRA (Abs.)		786

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetrizia Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

Interesgarria izango litzateke jakitea zergatik ez diren emakume batzu era horretako ekintzetara joaten, seguru asko informaziorik eza izan daiteke jokabide horren arrazoi nagusia.

Erditzeko prestaketa saioak egiteko tokia, dependentziaren arabera, gehienetan Osakidetza izan ohi da, kolektiboaren % 72,5entzat.

Saioetara joaten diren eta joaten ez diren emakumeen profila 4.13 taulan dago bildua eta oro har ondoko hau da: joaten direnen artean lana dutenak gehiago dira joaten ez direnen artean baino, % 71; 20 eta 34 urte bitartekoak, % 67,4 dira, eta horien ikasketa maila goikoa izan ohi da, % 70 ikasketa ertainak eta % 74,1 goi mailakoak.

4.13. TAULA Erditzeko prestaketa saioetara joan ziren edo joan ez ziren haurdunen banaketa, lan egiten duten, adina eta ikasketa maila kontutan hartuta. E.K.A., 1990

	JOAN ZEN	EZ ZEN JOAN	GUZTIRA,
LANA			
Lan egiten du	71	29	100
Ez du lan egiten	59,6	40,4	100
ADINA			
19 urte edo gutxiago	44,4	55,6	100
20-34 urte arte	67,4	32,6	100
35 urtetik gora	45,2	54,8	100
IKASKETA MAILA			
Lehen mailakoak	58,4	41,6	100
Bigarren mailakoak	70	30	100
Goi mailakoak	74,1	25,9	100
GUZTIRA (Abs.)	1.220		

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetria Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

**TABAKO ETA ALKOHOLAREN
KONTSUMOA HAURDUNEN ARTEAN**

Lehen aurkeztu dugun bizimoduen azterketan ikusten genuen emakumeen tabako kontsumoa gehitu egin dela, eta neurri txikiagoan baina alkoholarena ere bai. Atal honetan gai hura berreskuratzen dugu, haurdunaldian ohitura horri buruzko jarrerak nola aldatzen diren ikusteko, jakinekua izanik egoera horretan izaten dela kaltegarriena horren kontsumoa.

4.14. TAULA Haurdunen banaketa, alkohol eta tabakoaren kontsumoaren arabera, arloz arlo, E.K.A., 1990

	E.K.A.
TABAKOA	
Utzi egin du	49,5
Gutxitu egin du	39,8
Berdin edo gehiago erretzen du	10,7
ALKOHOLA	
Utzi egin du	71,8
Gutxitu egin du	24,9
Berdin edo gehiago edaten du	3,3
GUZTIRA (Abs.)	1.220

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetria Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

Tabakoari dagokionez datuek erakusten dute fetoarengan izan dezakeen arriskuaz gehienak jabetu direla, zeren lehenago erretzen zuten emakume haurdunen erdiak aldera erretzeari utzi diote eta % 40k kontsumoa jaitsi dute.

Jokabide honek badu zerikusirik erditze prestaketa saioetara joatearekin. Eragin positiboa antzematen zaie saio horiei, zerbitzu horietan izan zirenek erretzeari proportzio handiagoan utzi bait zioten joan ez zirenek baino. Eta alkoholaren kontsumoaz esan daiteke aldaketa sakonagoa izan dela: haurdun geratu baino lehenago alkohola kontsumitzen zuten emakumeek, ia % 72k edateari utzi diote eta % 25ek kasik, kontsumoa murriztu dute.

Datu hauen aurrean pentsa dezakegu haurdun daudenek, jasotzen dituzten informazio eta gomendioak direla medio, ohitura horiek gainditzeko behar den borondatea edo gogoia eskuratzeko dutela.

Burutazio hori indartu egiten da frogatzean nola lehen erretzaile izandako emakumeen artean, haurdun geratu baino lehen erretzen zutena adina eta gehiago erretzen zutenak % 10,7 baldin baziren, kopuru hori % 17,3era igotzen dela erditze prestaketa saioetara joan ez zirenen artean.

Edateari uztearen eta erditze aurreko saioetara joatearen artean erlazio gutxiago dago, eta horren esplikazioa izan daiteke alkoholaren kontsumoa maiztasun gutxiagokoa edo ohitura ez hain errotua izatea, horregatik edateari uzteko ahalegina ez da hain nekosoia izaten. Halaber, baliteke alkoholak berarekin dakarren arriskuaren kontzientzia tabakoarena baino sendoagoa izatea.

4.15. TAULA Haurdunen banaketa, alkohol eta tabakoaren kontsumoaren arabera, erditze prestaketarako klasetara joan zen ala ez kontutan hartuta E.K.A., 1990. (% bertikalak)

	JOAN ZEN	EZ ZEN JOAN	GUZTIRA	
TABAKOA				
Utzi egin du	55	40,7	609	49,9
Gutxitu egin du	38,1	41,9	482	39,5
Berdin edo gehiago erretzen du	6,8	17,3	129	10,6
ALKOHOLA				
Utzi egin du	75,5	62,4	863	70,7
Gutxitu egin du	21,9	31,7	310	25,4
Berdin edo gehiago edaten du	2,6	5,9	47	3,9
GUZTIRA	786	434	1.220	100

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetrizia Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

Erditze prestaketa saioetan parte hartzeak aukerak ematen dizkie emakumeei bere egoera berria hobeki kontrola dezaten, eta kontrol hori lortzen ahal da profesionalen eskutik jasotako argibide eta aholkutik ezezik baita egoera berdinean dauden beste emakumeen arazo eta kezketan partaide izatean ere. Azken finean, erantzunak ematen zaizkie haurdunaldi batean —lehenbizikoan batez ere—, azaltzen diren galderei, galdera horiek direlako esturak eta larrialdiak sor ditzaketenak.

HAURDUNALDIKO ZAILTASUNAK

Haurdunaldi gehienak batere zailtasunik gabe iragan ohi dira, 4.16 taulan jasotako datuetatik ateratzen den ondorioen arabera, non emakumeetan % 83 inolako arazorik gabe agertzen baitira.

4.16. TAULA Haurdunen banaketa, haurdunaldian gorabeherarik izan zuen edo ez kontutan hartuta, adinaren arabera, E.K.A., 1990

	IZAN ZITUEN	EZ ZUEN IZAN	GUZTIRA
19 urte edo gutxiago	8,3	91,7	100
20-34 urtera	15,6	84,4	100
35 urtetik gora	26,4	73,6	100
GUZTIRA	16,6	83,4	1.220

Iturria: OSAKIDETZA. Obstetrizia Zerbitzuen erabilpenari buruzko inkesta, 1990.

Zailtasunak adinarekin maizago agertzen dira eta 35 urtetik gora arazoak izateko aukera areagotu egiten da.

AMATASUNA 4.2.3

AMA IZATEKO ADINA

Azken urtetan ernaltze eta jaiotza tasak murrizteaz gainera, oro har, lehen haurra izateko batez besteko adinak gora egin du, "emakumeak eta familia" izenburuko kapituluan aztertzen den bezala.

Aipatzekoa da azken bost urtetan gertakari garrantzitsu bat izan dela, gaztetxo haurdun gutxiago izatea. 4.17 taulan ikus daitekeenez, 1986tik 1990ra 19 urtez beherako gaztetxoen artean jaiotza portzentaia hein batean jaitsi egin da, 1986an % 3,21 baldin bazen, 1990ean % 2,41 da. Baina aldaketa hori argiago suma daiteke jaiotza tasak miatuz, zeren mila emakumeetako tasa 7,16koa izatetik 4,35ra pasatu baita, jauzirik handiena 1989 eta 1990ean egin da, epe horretan tasa 1,15era jaitsi delarik.

4.17. TAULA Jaioberriak, beren amek 19 urte edo gutxiago izanik. Portzentaiak eta tasak E.K.A.n 1986tik 1990era. (% horizontaletan)

	Abs.	E.K.A. %	Mila emakume/tasa
1.986	635	3,21	7,16
1.987	588	3,20	6,68
1.988	536	3,02	6,06
1.989	488	2,90	5,50
1.990	390	2,41	4,35

Portzentaiak adin guztietako amen haur jaioberri guztiei dagozkie. Tasak kalkulatzeko 1986ko biztanlego errolda erabili da.

Iturria: Ama/haurra Programa. Metabolopatien Erregistroa. E.K.A., 1990.

EDOSKITZE MOTA

Edoskitze moduak argitzen digu ea haur jaio berriak hazteko ohituretan aldaketarik baden ala ez. Alderdi honetaz baditugu E.K.A.ko ama guztien artean jaio berriak elikatzeke dituzten moduei buruzko datuak, adina eta 1986tik 1990era izandako garapena kontutan hartzen direlarik.


4.18. TAULA Edoskitze mota, amaren adinaren arabera. E.K.A., 1990

	ARTIFIZIALA		MIXTOA		NATURALA		EZ DA JASO		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
15-19 urte	123	29,9	43	10,5	243	59,1	2	0,5	411	100
20-24 urte	473	22,2	223	10,4	1.438	67,2	5	0,2	2.139	100
25-29 urte	1.151	17,9	707	11,1	4.524	70,6	26	0,4	6.408	100
30-34 urte	1.076	18,9	754	13,3	3.832	67,5	16	0,3	5.678	100
35-39 urte	330	21,7	199	13,1	989	65,1	2	0,1	1.520	100
40 urtetik gora	62	25,4	54	22,1	127	52	1	0,4	244	100
Ez da jaso	109	48,9	26	11,7	85	38,1	3	1,3	223	100
GUZTIRA *	3.324	20	2.006	12,1	11.238	67,6	55	0,3	16.623	100

* Taula honetan E.K.A.n ez beste toki batean bizi izanik Metabolopatiaren Programan sartu diren emakumeak ere agertzen dira, beraz, guztirakoa beste tauletakoa baino handiagoa da.

Iturria: Ama/haurra Programa. Metabolopatiaren Erregistroa. E.K.A., 1990.

24. GRAFIKOA. Edoskitze mota E.K.A.n, 1990 (%)



Beste datu bat da haur jaio berriak elikatzeke moduaren arabera nola sailkatzen diren emakumeak, oro har, ama gehienek, % 67,6, beren haurrak era naturalean elikatzen dituzte. Adinak markatzen ditu edoskitzeke moduak, eta gazteenak bai zaharrenak dira edoskitze artifizialek gehien jotzen dutenak, 15 urtetik 19ra % 30, eta 40 urtetik goragokoek % 25 baino gehiago, batez besteko elikatze artifiziala % 20 delarik. Bestalde 25etik 29 urtera dago ditia emateko joera handiena, eta 30etik 40ra prozedura mistoak erabiltzekoa.


Dena dela, 1986tik 1990era bitartean jaió berria era naturalez edoskitzeko praktika nola garatu den erakusten diguten datuetan daukagu informaziorik aipagarriena. Bosturteko honen ezau-garria da edoskitze naturala erabiltzen duten emakumeen gutxitzea, % 73tik % 68 baino zer-txobait gutxiagora jaitsiz, joera azken bi urtetan areagotu egin delarik.

4.19. TAULA Edoskitze naturalaren hasiera, ama non bizi den kontutan hartuz. E.K.A., 1986-1990

	1986		1987		1988		1989		1990	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Araba	1.871	71,6	1.803	71,9	1.765	70,7	1.653	71,1	1.553	70,1
Bizkaia	7.909	73,3	7.242	72,5	6.903	72,1	6.176	69,5	5.919	68,7
Gipuzkoa	4.667	72,9	4.175	71,3	3.943	69,5	3.775	67,3	3.504	65,5
GUZTIRA	14.447	72,9	13.220	72	12.611	71,1	11.604	68,9	10.976	67,8

Iturria: Ama/haurra Programa. Metabolopaten Erregistroa. E.K.A., 1990.

25. GRAFIKOA. Edoskitze naturala E.K.A.n (amen arteko %)



Bilakaera horren azpian dauden arrazoiak era askotakoak dira, esate baterako, biologia edo medikuntza motatako arrazoiak, edo kulturazkoak, haurrentzako elikagaien industrian izaten diren etengabeko aurrerapenekin zuzenean lotzen direnak, eta baita ere emakumeari, lan-merkatuan sartzeagatik egokitu zaion egoeraren kariaz zuzen-zuzenean datozkion arazoak. Interes-

garria litzateke gai horri buruz informazioa eskatzea, amatasunaren inguruan gertatzen ari diren aldaketen berri izateko.

ERDITZE MOTA

Erditze motari buruzko azterketaren gakoa da erditze baginalak ala zesarea bidezkoak diren eta hondarreko urteetan zernolako bilakaera hauteman daitekeen.

4.20. TAULA Erditze mota, amaren adina kontutan hartuz. E.K.A., 1990. (% horizontalak)

	ABDOMINALA		BAGINALA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
15-19 urte	38	9,2	373	90,8	411	100
20-24 urte	257	12	1.882	88	2.139	100
25-29 urte	839	13,1	5.569	86,9	6.408	100
30-34 urte	815	14,4	4.863	85,6	5.678	100
35-39 urte	267	17,6	1.253	82,4	1.520	100
40 urtetik gora	67	27,5	177	72,5	244	100
Ez da jaso	38	17,1	185	82,9	223	100
GUZTIRA *	2.321	14	14.302	86,0	16.623	100

* Taula honetan E.K.A.n ez beste toki batean bizi izanik Metabolopatien Programan sartu diren emakumeak ere agertzen dira, beraz, guztirakoa beste tauletakoa baino handiagoa da.

Iturria: Ama/haurra Programa. Metabolopatien Erregistroa. E.K.A., 1990.

Erditze gehienak normalak izaten dira, erditze baginalak alegia, % 86. Erditzen den emakumearen adinari erreparatuz ikusten dugu adinez aurrera doazen heinean erditze abdominalak, hots, zesarea bidezkoak gehitzen direla. Hori bat datorke lehen esandakoarekin, zera, haurdunaldia zailago izan ohi dela emakume helduen kasuan, baina bestelako arrazoirik ere izan daiteke.

4.21. TAULA Erditze mota, zesarea bidez, 1986tik 1990ra bitarte, E.K.A.n

	ABS.	%
1.986	2.226	11,2
1.987	2.202	12
1.988	2.315	13
1.989	2.297	13,6
1.990	2.265	14

Portzentaiak erditze guztien gainean egin dira: abdominalak + baginalak.

Iturria: Ama/haurra Programa. Metabolopatien Erregistroa. E.K.A., 1990.

1986tik 1990era egindako zesarea kopurua miatuz beste datu aipagarri bat da era horretako erditzeen etengabeko gehiketa, % 11,24tik % 14ra igo delarik.

Hau izan daiteke Osasunerako Mundu-Erakundeak eta zehazki Europarako Eskualdeko Bulegoak (15) aipatzen zuen errealtatearen islada. Erakunde horiek amarekiko laguntza sanitarioaz burutu dituzten ikerketetatik ateratako ondorioetan oinarritzen diren eritzi batzuek erditzeko unean erabiltzen diren medikalizazio prozedura gehiegizkoak salatzen dituzte, ezen hainbestetaraino hedatu dira, non gero eta gutxiago jakiten baita erditze normal bat zer den ere. Gainera, dirudienez, frangotan teknologia berriak komeni baino teknologiazko interbentzio gehiago leku egin die.

Ondorioak urrunago doaz, eta aditzera ematen da emakumeek ez bide dutela informaziorik beren haurgintzan gertatzen denaz, eta horietan izaten den medikalizazioa hainbestetarainokoa da, non ez baitute, esateko moduan, erabakia hartzeko aukerarik ere izaten bere haurgintzetan teknika berriak eta ez horren berriak aplikatzeari buruz: monitorizazioa, episiotomia, enemak, analgesia, anestesia, e.a.

Horren azpian galdatzen da haurgintzako osasun laguntzaren humanizazioa. Erditzearekiko laguntza, hain arrunta eta erraza gaur egun, medikuntzarekin soberan lotu da. Eta ez da segurtatzen gero eta gehiago erabiltzen diren berrikuntza teknologikoak —haurdunaldian eta erditzearen tenorean aplikatuta— hain onuragarri izan daitezkeenik haurgintza seguruago eta atseginago bihurtzeko. Horretan dago eztabaida.

Illo horretan OMEk nahiko luke emakumea berriz ere haurgintzaren protagonista izan dadin eta iker dezaten emakumeek zer balorazio egiten duten erditzeari buruz eta bertan eman zaien osasun laguntza nahiz pertsonalari buruz. Eta arreta berezia jarri nahi da ama eta jaio berriaren arteko harremanei, ikustaldien erregimenari, erditzeondoko laguntza psikologikoari eta beste zenbait gauzari buruz erabiltzen diren praktikak berrikusteko.

HAURDUNALDIAREN BORONDATEZKO ETENDURA

4.2.4

1985ko legean jasotzen diren kasuen barnean, Haurdunaldiaren Borondatezko Etendura (H.B.E.), burutu duten emakumeen kopurua dexente gehitu da, legea agertu zenetik E.K.A.ko informazioa daukan azkeneko egunera arte.


(15) Kultur Ministeritza. Emakumearen Institutua. "Situación Social de la mujer en España". Madrid, 1986ko abendua. OME (OMS) aipatuz "Having a Baby in Europe", Danimarka, 1986.

4.22. TAULA E.K.A.n egindako Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurak, 1985-1990

	ZENTRU MOTA		
	PUBLIKOA/ ITUNDUA	PRIBATUA	GUZTIRA
1.985-87	13	—	13
1.988	184	487	671
1.989	147	1.445	1.592
1.990	149	1.137	1.286

Iturria: H.B.E.ko Erregistroa. E.K.A., 1990.

26. GRAFIKOA. H.B.E. (-k) E.K.A.n 1985tik 1990era bitarte (milatan)



1985etik 1987ra 13 H.B.E. baizik ez ziren egin, eta 1990ean berriz 1.286. Gehienak orain arte 1989an burutu ziren, 1952. Beste komunitateen daturik ez dugunez ezin dugu konparaziorik egin haietan eta E.K.A.n egiten diren H.B.E kopuruen gainean.

Ebakuntza hauek gehienbat zentru pribatuetan egiten dira, hala ere 1988an, proportzioz zentru publikoetara joan ziren gehiago.

4.23. TAULA H.B.E.k etenduraren arrazoiak kontutan hartuta E.K.A., 1990

	ABS.	%
Amaren osasuna	1.240	96,4
Bortxaketa	—	—
Fetoaren arriskua	46	3,6
GUZTIRA	1.286	100

Iturria: H.B.E.ko Erregistroa. E.K.A., 1990.

H.B.E.en barrenean aipatzen diren arrazoiak zerrendan lehenengo tokian agertzen da amaren osasuna, % 96,4; ez da kasu bat ere izan bortxaketaren kariaz eginikoa eta fetoaren arriskua-gatik % 3,6 baino ez dira izan.

Frogatua dago, profesionalen esperientziagatik ezezik baita hainbat ikerketaren ondorioz ere, haurdunaldia eteteak emakume gehienei ondoez psikologikoak dakarzukiela. Nahigabeko abortuetan nola H.B.E.etan, oso gomendagarria da laguntza psikologikoa, batez ere ebakuntzaren ondoan.

Informazioa eta aholkularitza psikologikoa hautapide gisa eskaintzen dira arriskutik babestu eta ahal bada ekiditeko. Azken buruan, bezeroarekin izan behar den harremana da, ebakuntzaren alderdi medikoa baino urrunago doana, laguntza pertsonalizatu eta gizatiarrago baten zentzuan.

5

EMAKUMEAK, KULTURA ETA POLITIKA

Kapitulu honetan azaltzen dira euskal emakumearen baitan gaur egun sustraitzen diren balore pertsonalak eta sozialak. Eskura ditugun datuekin (16), era laburrean, eginahalak egiten dira emakumezkoen egoerari buruzko ikuspegi orokor baten zirriborroa egiteko, kultur aldaketa eta jarrera politikoei dagokienean. Eta bilakaeraren azterketa konparatibo baten barnean, datu hauen bitartez euskal emakumeengan izan diren aldaketa kultural eta politikoak finkatzea ezinezkoa bada ere, aukera ematen dute behintzat egungo egoeraren alderdirik nagusienak aztertuta ahal izan daitezen.

Egungo euskal emakumearentzat funtsezkoak diren alderdi batzuek, besteak beste, lana, familia, osasuna, maitasuna, dirua, e.a., nolabait balore orokorren sistema baten islada izan daitezkeen alderdiek, zer garrantzia dute? Esan daiteke emakumearen sexualitatea, abortoa, askatasuna eta horrelako gaietan jarrera irekirik, aurrerazalerik dagoenik? Noraino eta zer neurritan eusten die emakumeak betidaniko jokabideei? Aldatu al da haren jarrera ezkontza, familiaz, senar-emazteen harremanez? Zenbateraino eta zein zentzutan? Zein toki ematen dio gaur egun erlijioari? Zein da haren jokabide politikoa eta zer presentzia dauka instituzioetan?

GARRANTZI HANDIENA EMATEN ZAIEN BALOREAK

5.1

Emakumeei, beren balorazioa emateko eskaini zaizkien alderdien artean lau dira garrantzitsuenak haien eritziz: osasuna, familia, maitasuna eta lana, lauotan emakumeetako % 90ek baino gehiagok erantzun dute berentzat garrantzi handia edo dexentea dutela, ikus 5.1 taula.

Ondoren dator solidaritatea, % 52rentzat garrantzi handia duena eta dexentea beste % 36rentzat, eta dirua, seigarren tokian baizik agertzen ez dena, emakumeen % 37rentzat oso garrantzitsua eta nahikoa % 43rentzat.

Azkenengoak dira gorputzaren arreta, aisialdiak eta nork bere buruarekiko ukamena.

5.1. TAULA Zein balore diren garrantzizkoenak (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	GARRANTZI HANDIKOA	NAHIKO GARRANTZIZKOA	GUZTIRA
Osasuna	85	14	99
Familia	82	15	97
Maitasuna	74	21	95
Lana	65	28	93
Solidaritatea	52	36	88
Dirua	37	43	80
Gorputza zaintzea	44	35	79
Aisia	40	38	78
Sakrifizioa	30	44	74

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

(16) Datu hauek Lehendakariitzako Idazkaritzaren Ikerketa Soziologikorako Bulegoak eskura erazi ditu, horien iturria Emakundek burututako ikerketa espezifiko bat.

Balore sistema edo dei genezakeen hau, ez da, hala ere, erabat emakumezkoena, ezen gizonak ere hurrenkera berdintsua egiten baitute, beraz badirudi erizpide orokorrago bati erantzuten diola.

Emakumeek balore nagusienak ordena berberean mantentzen dituzte eta garrantzi berdintsua emanez bakoitzari, edozein dela ere haien adina. Bi zehaztapen besterik ez: lehenbizikoa: zenbat eta gazteago diren hainbat eta garrantzi gehiago ematen diote diruari, 18 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 85ek garrantzi handia edo dexentea ematen diote, portzentaia hori % 70era jaisten delarik 65 urtetik aurrerakoentzat, eta aisialdiaren kasuan berriz % 87tik % 58ra. Bigarren zehaztapena: adinez aurrera egin ahala pittin bat gehitzen da gorputzaren-ganako arreta, 18 eta 24 urte bitarteko emakumeen % 73k garrantzi handia edo dexentea ematen badiote, 65 urtetik aurrerakoentzat portzentaia % 83ra igotzen da, eta sakrifizioaren ideia % 69tik % 82ra, batzuek eta besteek, hurrenez hurren.

5.2

JARRERA ALDAKETAK

Egungo gai batzueganako kezka maila neurtzean, emakumearen askatasuna da emakumeen artean proportziorik handiena duen gaia, % 50, irekia edo aurrerazalea dei genezakeen jarre-rearekin. 10 emakumetatik bosti ez lioke axola gehiegirik gai honi garrantzia gehiegia emateak, alderantziz hamarretik hirurentzat kezka garria litzateke.

Abortoaren kasuan, jarrerak orekatuak leudeke: arestiko proportzioarekin segitzearren, 10 emakumetatik lauri axola die abortatzeko erraztasun gehiago egoteak, eta beste laurentzat ordea ez luke garrantzirik izango.

Erligioarenganako interesik eza ere proportzio berdintsuan dago, emakumeen % 41entzat garrantzi handi edo nahikoa dauka gai horrek, % 37ri berriz ez dio axola.

Jarrerarik itxienak suertatzen dira sexu harremanen onarpen mailan, non gai honetaz ardura duten emakumeak % 43 baitira, arduratzen ez direnak % 28 diren bitartean.

5.2. TAULA Ondoko gaiekiko kezka maila (%etan)

	A. HANDIA ETA NAHIKOA		B. APALA EDO BATERE EZ		B/A	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Sexu onarpena	43	35	28	42	0,7	1,2
Erligioarekiko interesik eza	41	25	37	54	0,9	2,2
Abortatzeko erreztasun gehiago	40	23	41	46	1	1,4
Emakumearen askatasunari garrantzi gehiegi	27	22	50	58	1,9	2,6
BATEZ BESTE	38	29	39	50	1	1,7

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Oro har, eta gai hauek balizko indizetzat hartuko balira, batez beste emakumeen arteko oreka adieraziko lukete, alde batetik tradizional edo kontserbadore izenda genitzakeenak, % 39, eta bestetik jarrera zabal edo aurrerazaleagokoak, % 38. Laburbilduz, hamar emakumetatik lau joera batekoak lirateke eta beste lau aurkakoak, eta gelditzen diren bi horiek ez lukete jarrera finkorik izango.

Gizonezkoen eritziek alde handiak erakusten dituzte emakumezkoekin alderatuz. Oro har, jarrera irekiak mantentzen dituzten gizonezkoek gehiengo dute, % 50, jarrera tradizionalagoak dituztenen aurrean, eta ezberdintasunik handienak emakumeen askatasunaren gainean, eta erlijio zein abortoarekiko axolarik ezean daude.

Ondoren, 5.3 taulan ikus daitekeen bezala, jarrera batekoa edo bestekoa izatea, emakumeen artean erabat lotuta dago adinarekin. Emakumeen artean ezberdintasun argia dago 35 urtetik beherakoen eta hortik gorakoen artean. Adin horretara arte, gehiago dira jarrera irekiaren aldekoak, % 59, lau gai horiek batera hartuta, 18tik 24 urte bitarteko emakumeetan % 24, eta 25etik 34 urte bitartekoetan % 19 diren bitartean. Gero, 35 urtetik aurrera, jarrera tradizionalak nagusituz doaz emakumeen artean, eta kontrakoak gutxituz.

5.3. TAULA 5.2. taularen gaiekiko kezka maila. Batez beste, adin multzoka sailkatuta (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	A HANDIA ETA NAHIKOA	B TXIKIA ETA BATERE EZ	B/A
18-24 urte	24	59	2,5
25-34 urte	19	59	3,1
35-49 urte	40	36	0,9
50-64 urte	52	24	0,5
65 urterik aurrera	62	12	0,2

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

BIZIKIDETASUNA ETA FAMILIA

5.3

EZKONTZAREKIKO ERITZIA

5.3.1

Ezkontza ez da euskal emakume gehiengoentzat modaz pasatutako instituzioa. Hala uste dute behintzat emakumeetako % 72k. Eritzi honetakoak dira ezarri diren adin multzo guztietako emakumeak, denetan gehiago aski gorakoak azaltzen direlarik, ikus 5.4 taula.

5.4. TAULA Adostasun gradua: "Ezkontza ez dago modan" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	21	62
25-34 urte	20	67
35-49 urte	15	75
50-64 urte	11	82
65 urtetik aurrera	14	75
GUZTIRA	16	72

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Ezkontzaren barnean, emakumezkoei gogozkoago zaie ezkontza erlijiosoa, eta horrela erdiak inguru horren alde agertzen dira, % 48, ezkontza zibilaren alde % 20 dauden bitartean. Eritzi horretan, hala ere, emakumearen adinak du erabateko pisua, bada, 35 urtera arte, gehienek ezkontza zibilerako joera agertzen dute, hala ere 25 urtetik 34era emakume gehienei, % 46, ez die ardura, eta hortik aurrera ezkontza erlijiosoa hobesten dute gehienek, ikus 5.5 taula.

5.5. TAULA Adostasun gradua: "Nahiago dut ezkontza zibila erlijiosoa baino" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	41	26
25-34 urte	29	24
35-49 urte	19	45
50-64 urte	8	68
65 urtetik aurrera	3	88
GUZTIRA	20	48

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Ezberdintasun handiagoak sortzen dira edozein bikoteren helburua ezkontza ote den baloratzeari, emakumeen erdia alde dago eta beste erdia aurka, % 46. Gai honetan ere adinen arteko gorabeherak erabakiorrak dira, 35 urtera arte kontra daude gehienak ezkontza bikotearen helburutzat hartzearekin, ikus 5.6 taula; eta 35etik 50era, eritziak nahikoa orekatuak daude, % 47 alde eta % 43 kontra, eta hortik aurrera, 50 urtetik gora emakume gehienek bikotea ezkontzarekin lotzen dute.

5.6. TAULA Adostasun gradua: "Bikotearen helburua, ezkontzea" (emakumeak bakarrik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	17	72
25-34 urte	12	81
35-49 urte	47	43
50-64 urte	79	13
65 urtetik aurrera	86	9
GUZTIRA	46	46

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Era berean, ez dira besterik gabe ezkontza eta haurgintza lotzen, gehienak baitira, % 56, ezkontzaren helburua haurrak izatea ez dela pentsatzen dutenak, kontrakoak berriz % 34, hauek baietz uste dute. Gai honetan adina ere aldagai bat da eritziarekin arras loturik dagoena, bada, adina aurrera doan neurrian bi gauzok elkartzen dituzten emakumeen kopurua ere gora doa. 5.7 taula. Dena den 50 urtetik behera gehien eritiz ezkontzaren helburua ez da seme-alabak edukitzea.

5.7. TAULA Adostasun gradua: "Ezkontzaren helburua, haurrak izatea" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	10	83
25-34 urte	15	79
35-49 urte	31	56
50-64 urte	59	34
65 urtetik aurrera	67	21
GUZTIRA	34	56

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Beraz, ezkontzari bere garrantzia ematen zaio, baina, bereziki emakume gazteek, ez dute uste bikotearen helburua hori denik, eta areago oraindik, haren helburua ugalketa denik.

5.8. TAULA Adostasun gradua: "Ezkontzaren helburua, bikotearen harremanak sakontzea" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	66	22
25-34 urte	68	24
35-49 urte	86	10
50-64 urte	89	3
65 urtetik aurrera	89	2
GUZTIRA	80	13

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Ezkontzaz egiten den gogoeta izaten da elkarren arteko bizitza dela, bikotearen harremanak sakontzeko balio duena, eta eritzi honetakoak dira emakumeen % 80, eta heldutasunera iristeko baliagarri dela pentsatzen dutenak % 78 dira. Eritzi hauetakoak dira sailkatu diren adin multzoetako gehienak, baina emakume gazteenek bi eritzietan zenbait ñabardura ere ezartzen dute.

5.9. TAULA Adostasun gradua: "Ezkontzak bikotearen laguntzaz heldutasuna lortzea adierazten du" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	59	24
25-34 urte	65	21
35-49 urte	83	11
50-64 urte	89	5
65 urtetik aurrera	85	2
GUZTIRA	78	13

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Egungo euskal emakumeak ez deritzo batere gaizki ezkondu gabe elkarrekin bititzeari; eritzi horretakoak dira emakume guztietako % 63, eta gehiengo hori 65 urtera arte hedatzen da. Gehiengoa nabarmenagoa da 35 urtetik beherakoetan, % 84ra iristen baita 18 eta 24 urte bitarteko emakumeetan, eta % 90era 24 eta 34 urte bitartekoetan. Adin horretatik aurrera hasten da eritzien joera aldatzen. 5.10. taula.

5.10. TAULA Adostasun gradua: "Gaizki iruditzen zait bikotea elkarrekin bizitzea ezkondu gabe" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	3	84
25-34 urte	2	90
35-49 urte	22	59
50-64 urte	37	41
65 urtetik aurrera	56	30
GUZTIRA	22	63

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Gehienek, % 57k, justifikatu ere justifikatzen dute haurrak ezkondu gabe izatea, eta eritzi horretakoak dira 50 urtez beheko emakume gehienak, ikus 5.11. taula.

5.11. TAULA Adostasun gradua: "Ongi iruditzen zait emakume batek haurrak eduki nahi izatea ezkondu gabe" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	84	6
25-34 urte	84	8
35-49 urte	57	31
50-64 urte	30	50
65 urtetik aurrera	23	58
GUZTIRA	57	29

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Hala eta guztiz, bakoitzak bere hautabidea egitean, % 12 baizik ez lirateke egongo ezkondu gabe bizitzeko gertu, eta portzentaia hori emakumeen laurdena izatera iristen da 18 eta 34 urte bitartekoen artean. Bizimolde gisa, ezkondata bizitzea nahiago dute gehienek, emakumeek.

tako % 75ek: 18 eta 24 urte bitartekoenetan % 41 daude ezkontzaren alde, fideltasuna nagusi den ezkontzaren alde. Horrela, gehienek, % 60k ez lukete ezkontzaz kanpoko abenturarik onartuko, ez eta egoera berezietan ere. Eritzi berekoak dira gehienak, adin guztietan, nahiz eta emakume gazteen ñabardurak nolabaiteko zehaztapenak jartzen dizkioten gehiengotasun horri, ikus 5.12 taula.

5.12. TAULA Zein bizimodu duen nahiago (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	%
Ezkontuta	75
Bizikidearekin baina ezkondu gabe	12
Bakarrik	4
Gurasoekin	3
Lagunekin	1
ED/EE	4

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Gehienak ezkontzaren alde azaltzen dira, ezkontza erlijioso eta abenturarik gabekoa, dirauen bitartean; hausten baldin bada, horretarako dago dibortzioa: agidanean horixe da emakumezkoen eritzi hedatuena, dibortzioaren alde emakumeen % 53 baitaude, eta portzentaia horri % 34 gainera dakiok, kasu batzuetan alde legokeena. Horren kontra euskal emakumeetako % 12 agertzen dira.

5.13. TAULA Dibortzioari buruzko eritzia (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ALDE	KASUAREN ARABERA	AURKA	EZ DAKI/EZ DU ERANTZUN	GUZTIRA
18-24 urte	75	22	1	2	100
25-34 urte	82	17	—	—	100
35-49 urte	51	41	8	—	100
50-64 urte	31	44	22	3	100
65 urtetik aurrera	15	45	39	—	100
GUZTIRA	53	34	12	1	100

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Emakumea adinez aurrera doan heinean jaitsi egiten da dibortzioaren aldeko gehiengoaren eritzia: 18tik 24 urte bitarteko emakumeen % 75 alde badaude ere, adibidez 65 urtetik gora portzentaia % 15era jaitsi da. Adin horretara arte baldintzarik gabeko dibortzioaren alde dauden emakumeen kopurua kontra daudenari gailentzen zaio. Adinarekin, bestalde, baldintzadun dibortzioaren alde daudenak ere gehitu egiten dira.

Emakumeen artean hedatu den dagoen eritzia da familia gune pribatu bat dela, baina bateratua, non afektibitatezko harremanak eta elkarrekiko laguntza aurki daitezkeen.

Hori argi azaltzen da emakumeen % 60k lehen tokian jartzen baitituzte maitasuna eta amodioa, familiarekiko duten ideiarekin neurri handienez bat datozen alderdiak direlako. Bigarren hautapidea litzateke laguntza, lankidetzak, % 27, eta elkarriketa, % 25, eta hirugarren tokian, batasuna eta seme-alaben aldeko ahalegina, % 19 horietako bakoitzean.

Eritzi horiekin ados daude adin multzo guztietako emakumeak, aldaketa bakarra da, adina aurrera doan neurrian gune afektiboaren ideiak indar gehiago hartzen duela. Gauza bera gertatzen da seme-alaben aldeko ahaleginarekin ere, batez ere 35etik 64 urte bitarteko emakumeak arduratzen dira horretaz, baina beti hirugarren mailako asmoen artean.

5.14. TAULA Adostasun gradua: "Seme-alabek parte hartu beharko lukete senitartekoen erabakietan, baina azken hitza beti gurasoek" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	78	18
25-34 urte	79	12
35-49 urte	89	4
50-64 urte	94	3
65 urtetik aurrera	90	5
GUZTIRA	87	8

Iturria: Arakatze Soziologikoko Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Seme-alabekiko harremanak parte hartze bat bezala ikusten dira, baina ez onarpen mailan. Horrela, emakumea ados dago seme-alabek senitartekoen erabakietan parte har dezaten, baina beti ere azken hitza gurasoek dutelarik, % 87k aitortzen duten bezala. Ez dute onartzen seme-alabak beren kabuz erabat ibil daitezen, nahiz ez dituzten debekuak eta zigorrak onesten. Hau emakume guztien % 59k baieztatu dute. Ezarritako adin multzo guztietan eritzi horrekin ados daude, eta areago adinak aurrera egin ahala.

5.15. TAULA Adostasun gradua: "Haurrei aske utzi behar zaie, debekurik eta zigorrik gabe" (emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	37	46
25-34 urte	42	53
35-49 urte	26	68
50-64 urte	28	64
65 urtetik aurrera	22	64
GUZTIRA	31	59

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Senarrarekiko harremanaz ikuspegi aski irekia dute eta berdintasuneko abiapuntuak. Horrela antzeman daiteke honako gertakari honetan, hots, hamar emakumeetatik zortzi ez daudela ados erabaki nagusienak senarrak bakarrik hartzearekin, eritzi horretakoak dira 18 urtetik 24ra arteko emakumeak, eta 65 urte eta gehiagokoetan berriz portzentaia hori % 63era jaisten da, baina adina edozein dela ere, gehiengoaren eritzia da. Beste arrazoi bat da gehienak, % 77, emakumeak etxetik kanpo lan egitearen alde daudela, eta berdin pentsatzen dute 65 urte arteko emakume gehienek, adinarekin portzentaia jaisten bada ere, eta hortik aurrera kontra dau-denek gaina hartzen diete, gutxigatik izan arren, alde daudenei.

5.16. TAULA Adostasun gradua: "Erabaki nagusienak senarrak hartu behar ditu" (Emakumeak soilik, N = 576 %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	5	94
25-34 urte	2	93
35-49 urte	10	85
50-64 urte	23	70
65 urtetik aurrera	38	63
GUZTIRA	14	81

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

Emakume gehienek, 50 urte arte bederen, pentsatzen dute gainera, bikoteko batek bakarrik lana egin arren, ez duela zertan senarra izan behar beti. Honen defendatzaile sutsuenak gazteenak dira, 18tik 24 urte bitartekoen artean % 88, zenbaki hau % 60ra jaisten delarik 35 eta 49 urtekoen artean. 50 urtetik gora kontrakoak dira gehienak.

5.17. TAULA Adostasun Gradua: "Bikote batean pertsona batek bakarrik lan egiten badu, senarrak izan beharko da". (Emakumeak soilik, N = 576, %etan)

	ADOSTASUNA OSOA + EZ-OSOA	ADOSTASUNIK EZA OSOA + EZ-OSOA
18-24 urte	6	88
25-34 urte	13	81
35-49 urte	32	60
50-64 urte	63	27
65 urtetik aurrera	77	13
GUZTIRA	36	56

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. Baloreei buruzko inkesta, 1989.

JARRERA ERLIJIOSOA

Emakumeen erdiak bere burua katolikotzat eta praktikatzailetzat daukate, ikus 5.17. taula. Emakumeen herena katoliko deklaritzen da baina ez praktikatzaile.

Beste erlijioen eragina urria da, % 1, eta agnostiko nahiz sinesmengabeak euskal emakumeen artean % 8 dira.

Gizonezkoekin alderatuz ezberdintasunik handienak dira alde batetik praktikatzaile ez direnak praktikatzaileak baino gehiago direla, eta agnostikoen eta sinesmengabeen kopurua emakumearena halako bi dela, % 17.

Gehienek bere burua katolikotzat jotzen dute: gutxi gorabehera 10 gizonetatik 8k eta 10 emakumeetatik 9k.

5.18. TAULA Hautapen erlijiosoa. (% bertikaletan)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Katoliko praktikatzailea	54	34	44
Katoliko ez-praktikatzailea	34	44	39
Beste erlijiotakoa	1	1	1
Jainkoan sinesten duena, ez erlijioetan	3	3	3
Axolarik ez	5	9	7
Fedegabea	3	8	6
GUZTIRA	100	100	100
%	2.064	2.038	4.102
Abs.			

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. 90eko abendutik-91ko apirilera.

27. GRAFIKOA. Erlijio hautapena sexuaren arabera, E.K.A.n (%)



Praktikatzailerik deklaratu diren emakumeak lautatik hiru, elizara joaten dira astean behin berderik. Gizon praktikatzaileekin dauden diferentziak txikiak dira, baina praktikatze maila altuxea goa hauteman daiteke emakumeen artean.

5.19. TAULA Elizarako maiztasuna (praktikatzailerik soilik)

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Egunero		5	3	4
Astean behin baino gehiago		11	9	9
Astean behin		59	57	60
Astean behin baino gutxiago		25	31	27
GUZTIRA		100	100	100
%				
Abs.		1.145	712	1.857

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. 90eko abendutik-91ko apirilera.

Egungo euskal emakumeak aukera politikoak egiterakoan populazioan izaten diren boto joera orokorreki segitzen diete, Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Soziologikorako Bulegoak emandako datuek, 1990eko urriaren 28ko Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskunde autonomikoetako botoei buruzko haiek, erakusten diguten bezala, ikus 5.19 taula.

Datu horiek dioskunez hiru hautapen politiko nagusiak EAJ-PNV, PSE eta HB dira.

Boto diferentziarik handienak HBren kasuan gertatzen dira, % 22,4 gizonetan eta % 16 emakumeetan, eta baita EAren kasuan ere, % 8,6 eta % 14 hurrenez hurren.

5.20. TAULA 1990eko urriaren 28ko Autonomi Hauteskundeetan izan ziren boto emaitzak eta oroitzapena

	90-EKO BOTOAREN OROITZAPENA			90-10-28KO BOTO OROITZAPENA
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	
EAJ-PNV	30	27,8	28,3	28,5
EA	14	8,6	11,3	11,4
HB	16	22,4	18,9	18,4
EE	8	8,6	7,5	7,8
PSE	18	20	18,9	19,9
PP	8	6,9	7,5	8,2
UA	2	1,7	1,9	1,4
Beste batzu	4	4	5,7	4,4
	100	100	100	100
ABSTENTZIOA	30	31	29	38,9
EZ DU ERANTZUN	17	20	15	—
GUZTIRA	4.102	2.064	2.038	

Iturria: Arakatze Soziologikorako Bulegoa. Eusko Jaurlaritza. 90eko abendutik-91ko apirilera.

Eusko Legebiltzarra. 1990eko hauteskunderen ondorioz eratu zen Eusko Legebiltzarrean 13 emakume parlamentari zeuden 75en artean, horrek ematen du % 17,3. Aurrekoan, hau da 1986koan, hautetsi guztien artean emakumezkoak 8 ziren, beraz, % 10,7, ikus 5.21 taula.

5.21. TAULA Emakumeak Eusko Legebiltzarrean

	1986			1990		
	EMAKUMEA	% E/G	GUZTIRA	EMAKUMEA	% E/G	GUZTIRA
Araba	3	12	25	4	16	25
Bizkaia	3	12	25	5	20	25
Gipuzkoa	2	8	25	4	16	25
GUZTIRA	8	10,7	75	13	17,3	75

Iturria: EMAKUNDE. Bertan egindakoa.

28. GRAFIKOA. Eusko legebiltzarrean emakumeen presentzia lurraldez lurralde (%)



Beste autonomietako parlamentuekin konparatuz Eusko Legebiltzarra bostgarren tokian dago emakumezkoen ordezkotzari dagokionez, aurretik ditu Madril, non parlamentarien % 23,8 emakumeak baitira, Errioxa, % 21,2, Asturias, % 20 eta Gaztela-Mantxa % 19,2kin.

Eusko Jaurlaritzako goi karguak. 1991ean Eusko Jaurlaritzako goiko karguen artean, PNV-PSEn arteko Gobernua, % 15,2 dira emakumezkoak, ikus 5.23 taula, esan nahi baita 171 goi karguen artean 26 emakumeak direla, honela banatuak: kontseilari bat, 6 kontseilariorde eta 19 zuzendari nagusi.


Aurreko urteekin alderatuz egoera ez da gehiegi aldatu: 1987an denera 24 emakume zeuden, 126 goi karguen artean % 19, eta 1991ean, PNV-EA-EEko Gobernuan 23 ziren, guztien % 13,8.

5.22. TAULA Emakumeak Eusko Jaurlaritzako Goi Kargudunen artean (PNV-EAJ/PSE)

	EMAKUMEAK	% E/G	GUZTIRA
Kontseilariak	1	6,7	15
Kontseilariordeak	6	14,6	41
Zuzendariak	19	16,5	115
GUZTIRA	26	15,2	171

Iturria: EMAKUNDE. Bertan egindakoa.

29. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzako goi karguak emakumeen presentzia (%)



Batzar Nagusiak. 1991. urtean Batzar Nagusietan, % 13,7 emakumezkoak dira, 20 emakume 153 kideren artean, horietan portzentaia handiena HBko hautetsiek dute, % 22 emakumezkoak direlarik. Lurralde historikoak kontutan hartuta Arabak dauka emakumezkoen presentzia ugariena, % 15,7, ondoren Bizkaia dago, % 13,7kin eta gero Gipuzkoa, % 10era iristen ez dena. Emakumeak 17 izatetik 1987an, 20ra pasatu dira 1991ean.

5.23. TAULA Emakumeak Batzar Nagusietan, 1991

	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			E.K.A.		
	EMAKUMEAK	% E/G	GUZTIRA	EMAKUMEAK	% E/G	GUZTIRA	EMAKUMEAK	% E/G	GUZTIRA	EMAKUMEAK	% E/G	GUZTIRA
PNV-EAJ	3	21,4	14	3	14,3	21	—	—	12	6	12,8	47
UA	1	9,1	11	—	—	—	—	—	—	1	9,1	11
PSE	2	18,2	11	2	16,7	12	1	11,1	9	5	15,6	32
HB	2	28,6	7	2	25	8	2	16,7	12	6	22,2	27
PP	—	—	3	—	—	4	—	—	2	—	—	9
EA	—	—	3	—	—	4	2	16,7	12	2	10,5	19
EE	—	—	2	—	—	2	—	—	4	—	—	8
GUZTIRA	8	15,7	51	7	13,7	51	5	9,8	51	20	13,1	153

Iturria: EMAKUNDE. Bertan egindakoa.


Foru Diputazioak. 1991n Foru Diputazioetan dauden emakume diputatuak 3 dira 32tik, hortaz % 9, eta Diputazioetako zuzendari kargua dutenak berriz 6 dira 54tik, % 11, alegia.

5.24. TAULA Emakumeak Foru Diputazioetan, 1991

	DIPUTATUAK			ZUZENDARIAK		
	EMAKUMEAK	% E/G	GUZTIRA	EMAKUMEAK	% E/G	GUZTIRA
Araba	1	11,1	9	1	7,1	14
Bizkaia	—	—	12	2	8,7	23
Gipuzkoa	2	18,2	11	3	17,6	17
GUZTIRA	3	9,4	32	6	11,1	54

Iturria: EMAKUNDE. Bertan egindakoa.

30. GRAFIKOA. Foru Diputazioetan emakumeen presentzia Lurraldez Lurralde (%)



Udalak. Udaletako emakumezkoen presentziaren lekuko, 1991n 21 alkatesa daude 247 udalerrien artean, horrek ematen du % 8,5, ikus 5.25 taula. Udal gutxi dira emakumeen ardurapean daudenak, eta izatekotan ere udal txikiak izan ohi dira.

Araban emakume baten ardurapean dagoen Udalik handiena Arraia-Maeztu da, 811 biztanlekin. Gainerako udalak askoz ere txikiagoak dira.

Bizkaian ere alkatesak udal txikietan daude: 5 udal 2.000 biztanle baino gutxiagokoak dira, bat 3.000tik 5.000ra bitartekoa, bik 10.000 eta 20.000 arteko biztanle dituzte eta beste batek, Durangok, 25.000tik gora.

Gipuzkoan, alkatetza emakumezkoen esku daukaten 9 udaletatik 5ek 2.000 biztanle baino gutxiago dituzte, bat dago 3.000 eta 5.000 artean, bik berriz 10.000tik 20.000ra biztanle dituzte, eta beste bat, Eibar, 20.000tik 50.000ra doan tarte horretako multzoan dago.

5.25. TAULA Emakumeak Udaletan, 1991

	EMAKUMEA	% E/G	GUZTIRA
Araba	5	9,8	51
Bizkaia	7	6,4	109
Gipuzkoa	9	10,3	87
GUZTIRA	21	8,5	247

Iturria: EMAKUNDE. Bertan egindakoa.

Lurralde historikoetako hiriburuetan zinegotzien artean, emakumeak % 22,2 dira Gasteizen, 27 zinegotzi denetara eta horietatik 6 emakumezkoak; Bilbon % 20,7, 6 emakume 29tik, eta Donostian % 18,5, 27tik 5. Gasteizen, beraz, mantendu egin da emakume zinegotzien kopurua 1987koekin alderatuta, Bilbon 3tik 6ra emendatu da eta Donostian 4tik 5era.

Partidu Politikoak. Emakumeen partaidetza partidu politikoetan eta sindikatuetan, 1991n, hauxe da:

EAJ-PNV: Euskadi Buru Batzarrean ez dago emakumerik bat ere, eta Eskualdeko Batzarretan 31 batzarkidetatik 3 dira emakumezkoak. 1991n emakumezko afiliazio maila % 18,2 da Araban, % 32,4 Bizkaian, % 31 Gipuzkoan eta % 28 Nafarroan.

HB: Mahai Nazionala osatzen duten 25 kidetatik 5 dira emakumezkoak, eta Herrialdeetako partaidetza berriz Gipuzkoako % 18tik Arabako % 25era bitartean dabil.

EA: Exekutiba Nazionalean % 25, Arabako Exekutiban % 23,1, Bizkaikoan % 25 eta Gipuzkoakoan % 8,3. Emakumezkoen afiliazio portzentaiak hauexek dira: % 31 Araban, % 30,8 Bizkaian, eta % 28,2 Gipuzkoan.

PSE: 8 emakume daude Euskadiko Exekutiban, 31ren artean. Herrialdeetako exekutibetan, 1986ko datuetan oinarrituz, 4 emakume daude Araban, % 21, 3 Bizkaian, % 16, eta 5 Gipuzkoan, % 23. 1991n emakumezkoen afiliazioa guztiaren % 25ekoa da.

CC.OO.: Konfederazioko Batzorde Exekutiboan, 25 kidek osatzen baitute, emakume bat dago, eta Konfederazioko Kontseiluan 53 kideen artean 6 dira emakumezkoak. 1991n emakumezkoen afiliazioa % 19,9 zen, batez beste, Euskal Herrian, eta guztira Arabako Probintzi Bazkunak du emakumezkoen afiliazio handiena, % 22,5; Bizkaian % 19,8 eta Gipuzkoan % 17,4.

ELA: Batzorde Exekutiboan ez dago emakumezkorik, osotara 12 kidek osatzen dutelarik. Komite Nazionalean 37 kidetatik emakume bat dago. Kontseilu Nazionalean 7 emakumezko 117ren artean. Emakumezkoen afiliazio maila % 24koa da, eta lurraldez lurralde hauek dira portzentaiak: Araban % 29,9; Gipuzkoan % 24,7; Bizkaian % 23, eta Nafarroan % 27,3.

UGT: Sindikatuaren Exekutiba osatzen dutenen artean % 28,8 dira emakumeak. Emakumezkoen afiliazio maila honako hau da: % 22,5 Bizkaian, % 19,8 Araban, eta % 17,4 Gipuzkoan.

SATSE: Autonomiako Komite Exekutiboan % 54,5 emakumeak dira. Araban % 100 dira emakumezkoak, Gipuzkoan % 66, eta Bizkaian % 36. Emakumezkoen afiliazio mailak hauek dira: Araban % 29,9; Gipuzkoan % 24,7, eta Bizkaian % 23.

USO: Emakumezkoen afiliazio maila % 11,5ekoa da.

6

ESTUASUNA ETA BAZTERKETA

Kapitulu honen izenburuarekin azpimarratu nahi izan da eskasia handian edo gizartetik bazter-tuta bizi diren emakumeen arazoak aztertuko direla, hauek nozitzen duten bidegabekeriako egoera gainerako emakumeena baino gogorragoa baita.

Emakume hauek bereizkeria bikoitza jasan beharra daukate, sexuarekin lotzen den bereizkeria alde batetik eta sistema ekonomikoan tokirik eskasena betetzea bestetik, nahiz eta egia den badirela arazoak erraz koka ez daitezkeenak, adibidez tratatu txarren kasua, zein ez bait dakieke ekonomi faktoreei besterik gabe egotzi, horretan bai baitute eragina beste faktoreek ere, kul-tura, familia eta beste hainbat arlotakoak.

Populazioan, oro har, somatzen ditugun pobrezia egoerek erakusten digute zein zaila den errua faktore bakar bati leporatzea, diru eskasiari hain zuzen, sarri egin den bezala. Begibistakoa da, gero eta argiago gainera, egoera horietan faktore ezberdin franko biltzen direla eta horrek ko-lokan jartzen du sektorekako sailkapenak, bai gertakari horiek ulertzerakoan bai eta laguntza estrategiak tajutzeko orduan ere. Emakumeen kasuan, jakin badakigu baloreen mundutik (17) datozen zenbait faktorek eragin eskergea dutela emakumezkoen diskriminazioan.

Bazterketa hitzarekin biltzen dira egoera larri batzu, zeinetan metatzen baitira eskasiak eta ara-zoak. Halako egoeretan bat eginik aurkituko ditugu: urritasun edo pobrezia gorriak bakardadea-rekin batera, famili harreman hauskorrak, bazterkeriaren modu ezberdinak, e.a. Bazterketa egoera horretara iristen dira enplegurik nahiz diru baliabiderik eza luzaroan pairatu dutenak, eta horri beste motatako faktoreak ere atxikitzen ohi zaizkio. Prozesu horrek bere gorabeherak iza-ten ditu, batzutan hobekixeago, bestetan larriago, alde batean zein bestean jirabira handiak di-tuen bidea da. Une horietan, zenbaitetan itzulerarik gabeko egoerak ere sortzen dira.

Estuasuna bazterketaren aitzin urratsa da (18). Eskasia egoerak azken urte hauetan pobrezia berrikoak izendatu dituzten kolektiboak ukitu ditu, emakumezkoen kasuan esan nahi du ema-kume gazteak (19) eta familiburu diren emakumeak, eta bazterketa, ordea, lotuago azaltzen da betidaniko pobrezia barruan ibiltzen diren taldeekin, etxe pobreetako emakume ezkonduak edo bakarrik bizi diren adineko emakumeak. Hala ere, bata ez du bestea ukatzen, eta maiz ikus daiteke emakume gazte batek edo guraso bakarra den emakume batek zein ondarena pairatzen duen luzaroan urritasun ekonomikoa edo lanekoa jasan ondoren, eta gainera famili hauskortasunarekin (20) bat egiten denean, erraz lerratzen da bazterketa egoerara.

Kapitulu honen izenburuak, halaber, azpimarratu nahi ditu emakumezkoen estuasun egoeraren barrenean hagitz larriak eta orain arte gizarteak behar adina aitortu ez dituen arazoak.

Gauden momentuan Europako hegoaldeko herrialdeetan pobrezia ez da oraindik gizarte mailan aitortzen (21) eta are gutxiago eragin handiena emakumeengan duela. Gure Komunitate Au-

(17) Balorazio sozialak dira lana sexuaren arabera banatzea eta emakumea seme-alaben ardura bere gain hartzera behartzea, eta badira beste batzu ere gizarte osora zabaldu ez direnak baina oraindik ere irauten dutenak hala nola emakumea familia girora mugatzea, gizonetakoaren zerbitzura, e.a... horiek denak benetako hesiak dira emakumezkoen burujabetasuna oztopatzen dutenak.

(18) Aguilar, M., Gaviria, M., Laparra, M. eta beste batzu. Ingreso Madrileño de Integración. La exclusión, 7. orr., Madril, 1991.

(19) Gazteen artean, pobrezia emakumeak eta gizonak era berdintsuan ukitzen ditu adinekoen artean ez bezala, famili kargak dituztenak salbuetsiz.

(20) Castel, Robert. Les situations-limite du processus de marginalisation: de la vulnérabilité à la désaffiliation. Conférence européenne avril 1990, Pauvreté, marginalisation et exclusion sociales en Europe dans les années 1990.

(21) Bestela gogoratu besterik ez zenbat kostatu zitzaion gure Komunitate Autonomoari pobrezia gainera ikertzea egin zenetik, 1986an, Pobrezia aurrakako Osoko Egitamuan publikoki aitortu zen arte, 1989an.

tonomoan hasi berriak gara pobreziaren oroharreko arazoari erreparatzen, baina ez da artean emakumeengan eragin handiagoa duela aitortu ahal izan. Horren froga argia da familiaren babes sozialik eza, esaterako: seme-alabak mantentzeko laguntzak, etxea hartzeko guraso bakarreko familiei lehentasuna ematea, e.a. Europako beste estatuetan, ordea, jadanik badituzte horrelako laguntzak (22).

Europa ekonomikoa eraiki beharraz ezezik Europa sozialaren beharraz eztabaïdatzen denean, mintzatzen ari dira kide diren herrialde guztietako hiritarrentzat gutxieneko neurrien bilduma bat beharrezkoa dela. Ahaleginak egin beharko dira familiaren babeserako neurriak ere sar daitezzen, gazteen arazoak politikaren barnean aurrikusteko, eta bidenabar, kontuan har ditzaten emakumeen estuasun egoera guztiak.

POBREZIAREN FEMINIZAZIOA

6.1

Pobrezian dauden giza taldeen barruan emakumeak gehiago izatea ez da harritzekoa, historia luzea duen fenomeno baina, nahiz eta une honetan hazten ari dela dirudien. Aldaketak daude ezkontza eta dibortzio ereduetan, populazioa zahartzen ari da agudo baino agudoago, eta modu berean lan merkatua ere aldatzen ari da, eta horiek guztiek prozesua bizkortzen dute.

Emakumeek oro har, pobrezi arriskuan dagoen talde bat osatzen dute egitura aldetik dituzten eskasiak direla medio: kulturalak, baliabide pertsonalak, menpekotasun ekonomikoa, giza harremanak gizonezkoaren gizarte eremuan, e.a.

Horietako emakume batzu pobrezi egoeran daude gizarte talde kaltetu bateko partaïde direlako, eta egoera hori senar eta seme-alabekin batera daukate. Hala ere, ez dira denak bide horretatik iristen egoera horretara, batzu famili egoeraren aldaketa dela bide iristen dira: familia uztea, ezkontza haustea, alargundutzea, edo beste arazo batzuren bitartez, hala nola, ama ez-kongaia izatea edo eritetxean, emigrazioan nahiz presondegian aldi batez igaro behar izana. Egoera horien kariaz gizonezkoekin dituzten lotura ekonomikoak hausten dira, edo lan nahiz sozial arloko autonomia deusezten zaie. Azken buruan badirudi gakoa ez dela besterik emakumezkoen independentzia ekonomikorik eza baino.

Emakumezkoen pobrezi egoeren barnean oso kasu arrunta izaten da familiburu diren emakumeena (23). Talde honetan daudenek bestek baino erantzukizun gehiago dute beren gain: gurasoen eginkizuna bikoiztua, lana ere bikoiztua (lanpostukoa eta etxekoa), familiari erantzuteko bakarra izatea, eta famili hausduraren ondorioz sortutako kasuetan beherapen nabaria maila ekonomikoan.

(22) Une honetantxe, Pobreziaren aurkako Osoko Egitamuan sartzeko neurtzen den gutxieneko dirusarrera berdina da bi gurasodun familia batentzat eta guraso bakarrekoarentzat, azken honek beharrian handiagoak izanik ere.

(23) Ez diegu guraso bakarreko familiburu deitzen, zehaztapen hori 18 urtez beherako seme-alabak dituzten emakumeei baitagokie, eta horri benetan murrizgarria deritzogu. Hemen urritasunezko beste kasu batzu sartu nahi genituzke, esaterako pertsona bakarreko familiak, ugaltzen ari baitira.

Hala eta guztiz, pobreziaren feminizazioaz hitz egiten denean ezin daiteke era horretako familiaz hitz egin, ahaztuko litzatekeelako emakume pobreak gero eta gazteagoen artean sortzen ari direla, eta orobat, egoera berean dauden etxekoandreak, pobreziaren sortzaile gisa alargun izatea baino kasu gehiago daudela, bereizketa edo dibortzioaren ondoriozkoak. Argi dago zer alde handia dagoen ongi ordaindutako lana erdietsi eta bere bizi guztian lan hori mantentzen dutenen eta holakorik ez dutenen artean, nahiz eta lehenbizikoek seme-alabak izan, eta gauza bera bi soldata dauzkaten familia batean bizi direnen eta bestelakoen artean.

Dena den, ahaleginak egin behar dira azpimarratzeko familiburu diren emakumeen artean proportzio handian agertzen direla behar gorrian edo bazterketa egoeran daudenak.

ZER ERAGIN DAUKA ESTUASUNAK EMAKUME BAT BURU DUTEN FAMILIETAN?

6.1.1

1989az gero, gure Komunitate Autonomoan Pobreziaren aurkako Osoko Egitamua daukagu, xede hauekin:

- behar gorrian daudenen egoera arintzea
- talde pasibo berrien sorrera ekiditea

Jakina denez, Egitamu horrek bi motatako laguntzak ezarri ditu, GGD (IMI) eta LSL (AES). Lehenengoa, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera (24) bideratzen zaie lanbidearteko gutxieneko soldataren hiru laurden baino dirusarrera txikiagoa duten familiei, gutxi gorabehera senar-emazteak eta haur batek osatzen duten familia eredutzat hartuz. Laguntza hau **osagarri** motatakoa da, zeren familia batean dauden dirusarreraren eta ezarritako baremoaren arteko diferentzia kobratzeko eskubidea ematen baitu.

Bigarrena, Larrialdi Sozialetarako Laguntza izenekoa, lehenbizikoaren osagarri gisa ulertzen da, bereziki etxebizitza bezalako arazoei konponbideren bat bilatzeko pentsatua dago, onuradunak GGD kobratzen duten familiak, pertsona bakarrak, edo GGDko baremo ekonomikoa gainditzen duten pertsonak direlarik.

Egitasmo honen arduradunek —zeina lehena izan baita estatu espainiarrean gutxieneko errentak ezartzeko etengabeko borroka horretan— ikerketa zenbait burutu dituzte, horietako batzu emakumezkoen pobrezia erakusten dutenak.

1989an Pobreziaren aurkako Osoko Egitamuaren onuradunei buruz egin den Balantzean datu batzu azaltzen dira (25), eta aipagarrienetako bat agian izan daiteke familiburu emakumea duten etxeen portzentaia.

(24) Laguntza honi lehenengo urtean Familiaren Gutxieneko Dirusarrera deitu zitzaion, baina geroago, Legea onetsi zenean Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera izendatu zuten.

(25) **Lan eta Gizarte Segurantzaren SAILA**. Euskadiko Pobreziaren aurkako osoko Egitamua (1989ko Balantzea), Gasteiz, 1990.

6.1. TAULA FGD (Familiaren Gutxieneko Dirusarrera), LSL (Larrialdi Sozialetarako Laguntza) eta Multzoa (Beste biak biltzen dituena) izeneko laguntzak jaso zituzten familiak, familiburuaren sexuaren arabera sailkatuta

		FGD	LSL	MULTZOA	E.K.A.KO FAMILIAK 1986AN	GUZTIAREKIKO TASA
Emakumeak Gizonak		40,9	46,8	44,5	15,3	290,8
		59,1	53,2	55,5	84,7	65,5
GUZTIRA	%	100	100	100	100	—
	Abs.	5.026	7.113	9.539	595.400	—

Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. Pobreziaren Aurkako Osoko Egitamua Euskadin (1989ko balantzea). EUSTAT, Demografia eta Baliozkotzeari buruzko Inkesta, 1986 eta bertan egindakoa.


Laguntza jaso dituzten familien artean % 41 inguruk emakume bat dute buru, eta 1986ean berriz, Komunitate Autonomoko famili guztien artean % 15,3 izan ziren. Argi agertzen da familiburu diren emakume askok jaso dituztela laguntzak.

Era ezberdinetako ezaugarriak direla eta, bada jakiterik FGD motatako laguntzez baliatzen direnen artean, batik bat, familiaren ardura beren gain eta sarrera eskasa edo deus ez daukaten emakumeak direla, eta LSL motatakoetan berriz, pertsona bakarrak, ezkongaiak eta familia kargarik gabeko alargun nahiz dibortziatuak sartzen dira. Bi eratako kasuak emakumezkoen eskasia-egoeren eredu direnez gero, ordezkapen tasak kalkulatu dira MULTZOA izeneko laguntzentzat, zeinek lehengo biak biltzen bait ditu.

Era honetako kalkuluak zenbakiak hobeki ulertarazten dituzte, konparatzen delako laguntzak jasotzen dituzten emakumezko familiburuaren proportzioa, horiek populazio osoaren barnean suposatzen duten proportzioarekin. Kalkulu horren emaitza % 290,8 da, esan nahi baita pobreziaren aurkako Egitamu honetan era honetako familiak populazio guztian baino hiru bider gehiago direla, eta aldiz familiburu gizonetzko bat duten familiak ez daude behar bezainbeste errepresentatuak, era bereko familiak baino % 35,5 gutxiago populazio osoan.

Zenbaki hauek sakonetik ulertzeko on litzateke laguntzak jaso dituzten familien tipologia miaztea, sexuaren, egoera zibilaren eta adinaren arabera.

31. GRAFIKOA. Laguntza multzoa onuradun diren familiburuak, sexuaren, adinaren eta egoera zibilaren arabera, E.K.A.n



Honelako laguntzak jasotzen dituen emakumezko familia mota izaten da 45 urtetik beherako dibortziatua nahiz bereizia, eta 45etik gorako alarguna. Lehenengo modukoak ugariago dira bigarrenekoak baino, eta horrek baieztatzen du pobrezia motak aldatzen ari direla dioen teoria, tradiziozko pobrezian bereziki alargunak izaten baziren, pobrezia berri honetan familia gehiago azaltzen dira bikotearen hausduratik datozenak edo emakume gazteak, kasu honetan haute- man ez direnak, pobreziaaren aurkako Egitamuk ez dituelako onuradun posible gisa onartzen (26).

Emakumea buru daukaten familien eskasiari aisago antzematen zaio familiburu gizona den kasuekin alderatzen bada. Horretarako 1989ko Bitzta Egoerari buruzko Inkestako datuak erabili dira.


(26) Frantziako r.m.i.ren kasuan, 25 urtetik beherakoak dira onuradun baldin eta famili erantzukizunik badute, gure Komunitate Autonomoan bezalaxe, baina ezberdintasun batekin, hots, Frantzia badiela bide autonomo batzu 25 urtetik beherakoei behar dituzten errekursoak seguratzeko, eta holakorik ez dago gure artean.

6.2. TAULA Familien sailkapena, haztaperen ekonomiko subjektiboa kontutan hartuz eta pertsona nagusiaren sexuaren arabera

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Txarra	43,7	36,7	38,8
Normala	21,6	21,5	21,3
Ona	34,7	41,8	39,9
GUZTIRA	170.500	429.100	599.700

Iturria: EUSTAT, Bizitz egoeraren gaineko inkesta, 1989.

32. GRAFIKOA. Familiaren egoera ekonomikoa familiburuaren sexuaren arabera (%)



Datu hauetan joera bat argi ikusten da, egoera ekonomikoa hobea familiburu gizonezkoa izatearekin dagoela lotuta eta alderantziz, egoera ekonomiko txarragoa familiburu emakumezkoa izatearekin. Honek erakusten digunez, edo emakumeek ez dute gizonezkoen maila ekonomikoa eskuratzen, edo bikotea hautsiz gero pobretu egiten dira.

6.1.2

Sarritan honelako familiez hitz egitean gaizki esaka bezala aipatzen dira, osatu gabeko familiak direla edo aldi baterako modelo bat dela, bertan bikotearen krisialdi batetik sortutako errealitate bat agertzen dena, behin-behineko egoera baizik ez delarik beste bikote bat osatu arte, e.a. Hala ere badirudi hori baino gehiago dela, aldaketa batzuren ondorioa, alegia, eta denboran zehar iraun dezakeen eredu bat izan daiteke, egungo neurriak gaindituko dituen gainera.

Guraso bakarreko familiei buruzko datu zehatzik ezean, ez baitaude eskura, alderaketa bat prestatu da 1981 eta 1986 urteetako emakumezkoa familiburu duten familien artean.

6.3. TAULA Familiak portzentaietan, familiburuaren sexuaren arabera sailkatuta

		E.K.A.n 1981 %	E.K.A.n 1986an %
Emakumeak		14	15,3
Gizonezkoak		86	84,7
GUZTIRA		100	100
	%	578.249	599.700
	Abs.		

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Estatistika Zuzendaritza. Familiak eta famili-nukleoak. 1981eko Biztanleria eta Etxebizitzaren Errolda. EUSTAT. Demografia eta Baliozkotzeari buruzko inkesta, 1986 eta bertan egingakoa.

6.3. taulari begiratzen badiogu, ikusten ahal dugu 1986an honelako familiak % 15,3 direla, 1981ean % 14 ziren bitartean. Hamar urte baino gutxiagoan pixka bat gehitu egin da, eta horrek esku ematen du pentsatzeko familia horiek ez dutela aldi bateko eredu bat osatzen baizik eta "etorkizuneko familiaren aldaera bat direla" (27).

Bilakaera hau bera errepikatzen da Europako beste herrialdeetan. Zenbakiak ia bikoiztu egiten dira Estatu Batuetan eta Suedian (bezalako herrialdeetan) 1970-80eko hamarkadan, ikus eranskineko A.16 taula, epe horretan 1970ean % 12,8 eta % 14,8ko tasak izatetik, 1980an % 25,7 eta % 27ra iragan baitira.

Famili eredu egonkorak agertzeak eta jaiotzen beherapenak erakusten dute, argi baino argiago, familiaren babes soziala, gure ingurunean hain maila apalean dagoena, berplanteatzeko beharra, politika demografiko baten barruan. Eta babes hori ezinbestekoa da gurea bezalako herri industrializatu eta garatu batean.

(27) Programme Européen de lutte contre la pauvreté. Acquis et perspectives. La pauvreté des familles monoparentales. Equipe transnationale "Familles monoparentales". Pour la Commission des communautés européennes, 1989.

**BEREIZTE NAHIZ
DIBORTZIOAREN ONDORIOZ
EZARRITAKO PENTSIOAK EZ
ORDAINTZEA**

6.1.3

Une honetan pobrezi arrisku handian dago guraso bakarreko famili mota bat, hain zuzen, bereizte nahiz dibortzioaren ondorioz ezarritako pentsioa jasotzen ez duena.

Honelakoetan, pentsioa ez ordaintzeak familia horren pobretzea dakar, lehengo egoerarekin alderatuta, eta zenbaitetan behar gorrian ere jartzen du.

6.4. TAULA Bereizte edo dibortzioaren ondorioz ezarritako pentsioak ez ordaintzea, 1981-89ra bitarte, lurraldez lurralde

	ORDAINDU GABE	BEREIZTE ETA DIBORTZIOAK	ORDAINDU GABE BEREIZ/DIBOR. (%)
Araba	197	2.086	9,40
Bizkaia	533	7.245	7,35
Gipuzkoa	573	4.934	11,55
GUZTIRA	1.303	14.265	9,13

Iturria: EMAKUNDE. Bereizte nahiz dibortzioaren ondorioz ezarritako pentsioak ez ordaintzea, Gasteizen eta bere eraginpeko eremuan, 1990.

Taula honetan ikusten denez 1981tik 1989ra ordaindu ez diren pentsioak 1.303 izan dira, hau da, legezko bereizte nahiz dibortzioen % 9 baino zeredozer gehiago. Kasu hauetako % 60 ingurutan emakumeak edo ez du dirusarrerarik edo lanik gabe dago (28). Bereizte nahiz dibortzioaren ondorioz era pribatu edo publikoan erabakitako pentsioen artean ordaintzen ez direnak kontutan hartuz, bistan da zenbaki hauek guztiz azpitik daudela. Horren arrazoa da lege prozesuetan agertzen diren ordaintze-etak eta emakumeak berak erreklamaziozko auzitaratzean aurkezten dituenak bakarrik ezagutzen ditugula.

Portzentaia hau azalean agertzen dena baizik ez da, baina hor barrenean gelditzen den kopurua askoz ere handiagoa da, seguru asko.

(28) **Emakunde.** Gasteizen eta bere eraginpeko eremuan izandako bereizte eta dibortzioen ondoriozko pentsioak ez ordaintzea, 16. orr., argitagabea. 1990eko uztaila.

6.2

BAZTERKETA

Gaur egun bazterketa mota ezberdinak bereiz ditzakegu, emakumea ere ukitzen dituztenak: espetxea, drogomenpekotasuna, adimenaren gaisotasuna, ezintasuna, zahartzaroa, etxerik eza, gutxiengo etniko edo atzerritar baten kide izatea, e.a. Baina egoera batzuetan kaltea emakumeentzat izaten da bereziki, guraso bakarreko familia batzu, prostituzioa eta tratu txarrak kasu.

Bazterketa kasu batzuetan, non emakumeak egoera hori beste sexukoarekin batera pairatzen baitu, interesgarria litzateke datuak edukitzea sexua dela eta, diskriminazio bikoiztua zenbat bider gertatzen den, baina ez daukagu horren daturik.

Bereziki emakumezkoenak diren modalitateen artean prostituzioa da sozialki gehien aitortzen dena, baina honetan ere ez daukagu Komunitate Autonomo osoari dagozkion datuak.

Familiburu diren emakumeenganako bereizkeriaz, labur bada ere, hitz egin da. Bizi izaten duten egoeraz azterketa sakonagoak egitea ez legoke soberan, baina honetan ere ez dago informazio gehiagorik.

Eta azkenik geratzen zaigu tratu txarren arazoa, hau da emakumezkoek gizonezkoek baino askoz ere usuago pairatzen duten fenomeno bat, batik bat, pertsona helduez mintzatzen baldin bagara.

Horregatik zehaztasun gehiagoz aztertuko dugu emakume helduen tratu txarrak, pentsatzen baitugu egoera hori kezagarria izanik ere gizarteak ezikusi egiten duela, egiazko neurriak eta zergatiak aintzakotzat hartzeke, eta are gehiago, hitz egin daiteke halako onartze edo baimen moduko bat edota justifikazio bat badagoela kasu batzuetan.

Erraz aurki daitezke tratu txarrei buruzko definizioak, esate baterako, desbideratutako jokamoldea dela, ezarritako arau sozialen arabera jokatzeko ez duten pertsonen ezaugarri bat dela e.a. Ulertze modu honek errealitatearen zati handi bat ezkutatu egiten digu, zeren beste ikuspegietatik, sexuari egozten zaizkion ezberdintasun eta menpekotasuneko baloreak mantentzen diren gizarteetan, tratu txarra sozialki onartzen den jokabidea baita.

TRATU TXARRAK EMAKUME HELDUEI

6.2.1

Gure gizartea gizonaren psikologiaren arabera dago antolatuta, eta hortik dator, hain zuzen, emakumeak bere bizitzan pairatzen duen lehenbiziko indarkeria; eremu arrotzean bezala sentitzen da, jakineko eginkizun bat izendatzen zaio, gune konkretu batzuetara eta denbora zehatz batzuetara mugatzen dute, eta horiek horrela, baieztatu genezake emakumeen aurkako indarkeria gizarte honen egituraren elementu bat dela.

Ikuspuntu honetatik, emakumeenganako tratu txarrak, fisiko nahiz psikikoak, sozialki sexuen arteko botere harremanetan oinarritzen den eraso gisa ageri dira.

Harreman horien ezaugarri bat da lehenbizi obedientzia, zera, botere gehien duen pertsonak bere erabakiak impositzen dizkiola botere gutxiago duenari, eta honek besteari men egin behar. Familiaren funtzionamendu arauak, senarrak onartuko dituenak, ezartzea emakumearen esku uzten badira ere, emakumeak ez du besterik egiten ezen gizartean erabaki eta zehazten diren jokabide sozialeko arauak berregin baizik, eta bitartean berea da errepresentazio kaskarrera gizarte honetan, non, gizonezkoen ekintzaren eskenategia izanik, gizonek baitute boterea.

Bigarren elementua, menpekotasun ekonomikoa da; baliabide ekonomikoak dauzkanak du boterea, eta menpekotasun ekonomikoa da emakume askoren errealitatea.

Tratu txarra ekonomia, gizarte nahiz kultura arloko edozein mailatan gerta daiteke, era askotako arrazoiak daude tratu txarren azpian, sustrai sozial eta kultural sakonak dituztenak. Laburbilduz hiru multzo bereiz ditzakegu:

- Sexuaren kariaz dauden ezberdintasun eta menpekotasunezko harremanak irautea.
- Aipatu diren harremanetan oinarrituta, emakumeak eremu publikotik baztertzea.
- Familiako esparru pribatuan eroapen lege batzu bizirik segitzea. Horien bidez, etxetik kanpo sortutako frustrazioak dakarren indarkeria familiako esparru pribatura desbideratzen da, beraz gizarte kontrolerako tresna izanik, pertsonen arrenkura familia eremura mugatzen da eta horrela gizartearen funtzionamendua eta ordena ez dira asaldutzen.

DATU BATZU

Tratu txarren gainean ditugun datuak polizi komisaldegian aurkeztutako salaketei buruzkoak dira. Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei laguntza ematen dieten pertsonen ustez, errealitatean gertatzen diren kasuetako % 5 edo % 10 besterik ez dira salatzen, urteak igarotzen direlako emakumea salaketa egitera ausartzen den arte.


1991n zehar 847 denuntzia egin ziren Autonomi Elkarte osoan, horietako 559 Polizi Burugoe-tan eta 288 Ertzaintzaren Komisaldegietan, horrek adierazten digu mila emakume ezkonduetatik batek baino zerbait gehiagok salatu duela bere senarra tratu txarrak emateagatik.

6.5. TAULA E.K.A.ko polizi komisaldegietan, senarrak emazteari tratu txarrak emateagatik jarritako salaketak, 1991

	SALAKETAK 1991		EMAKUME EZKONDUAK E.K.A.n	TASA ADIER. TRATU TXARRAK/EZKOND. AURREBAL. %	
	abs.	%	1986		
Araba	80	14,30	12,65	113,04	0,12
Bizkaia	381	68,15	55,65	122,46	1,38
Gipuzkoa	98	17,55	31,70	55,62	0,62
GUZTIRA	559	100	495.900	—	1,12

Iturria: Emakumeek nozitzen dituzten tratu txarren Ikerketa Batzordea. Emakumeenganako tratu txarrei buruzko ihar-dunaldiak, 1992/otsaila. Donostia eta EUSTAT, Demografia eta Balidazioari buruzko Inkesta, 1986.

33. GRAFIKOA. Tratu txarren salaketa. Tratu txarren % eta emakume ezkonduen %, Lurradez Lurralde



Errepresentazio tasa hartzen badugu kontutan, Araba eta Bizkaiko tasak lurralde horietako emakume ezkonduen populazio tasa gainditzen du, gutxigatik bada ere; Gipuzkoan tasa hori lurralde horretako emakume ezkonduen tasaren ia % 45aren azpitik dago. Datu horiek eskuan direla baieztatu daitezke lurraldeen artean badirela zeinbait ezberdintasun, eta denuntzia gutxien Gipuzkoan egiten direla.

Euskal Herrian egiten diren denuntzien kopurua beste Komunitate Autonomoetan egiten direnekin alderatuz, beheko mailetan dagoela ikus dezakegu, zenbaitzu bera baino beherago baldin badaude ere, adibidez, Nafarroa, Gaztela-Mantxa, Gaztela-Leon, Estremadura, Galizia eta Murtzia. Kopuru altuenak erregistratzen dituzten Komunitate Autonomoak hauek dira: Ceuta Melilla, eta ondoren Kanariak eta Madril.

6.6. TAULA Emazteek nozitzen dituzten tratu txarrak direla eta, beren senarraren kontra egindako salaketak, Komunitate Autonomotan sailkatuta. Mila emakume ez-kondu bakoitzeko tasa. 1989

	TRATU TXAR PSIK./FISIK.	TRATU TXAR PSIKIKOAK	TRATU TXAR FISIKOAK	GUZTIRA
Andalusia	1,24	0,83	0,68	2,76
Aragoi	0,53	0,32	0,44	1,29
Asturias	0,98	0,65	0,65	2,28
Baleareak	1,23	0,17	0,97	2,36
Kanariak	1,58	1,33	1,09	4,00
Kantabria	1,20	0,43	0,45	2,08
Gaztela-Leon	0,61	0,20	0,20	1,01
Gaztela-Mantxa	0,39	0,34	0,21	0,94
Katalunia	0,40	0,42	0,84	1,65
Valentziako Komunitatea	0,51	0,34	0,53	1,39
Estremadura	0,39	0,40	0,29	1,08
Galizia	0,56	0,28	0,27	1,10
Madril	1,31	0,83	1,20	3,35
Murtzia	0,89	0,15	0,31	1,35
Nafarroa	0,30	0,10	0,23	0,63
Euskadi	0,42	0,46	0,51	1,39
Errioxa	0,09	0,16	0,41	0,66
Ceuta eta Melilla	3,88	1,63	3,71	9,22
GUZTIRA, ESTATUAN	0,80	0,52	0,65	1,97

Iturria: Barne Ministeritza, Poliziaren Zuzendaritza Nagusia eta bertan prestatutakoa. "1989-1990 hamarkadan izandako emakumeen aurkako sexu indarkeriaren Hurbilketa Kuantitatiboa", Emakumearen Erakundea, Madril, 1991ko uztaila.

Salaketa arloan gorabehera batzu izan dira 1985tik 1990erako bitarte honetan.

6.7. TAULA Emazteek nozitzen dituzten tratu txarrak direla eta, beren senarraren kontra egindako salaketak, Polizi Komisaldegietan sailkatuta, 1985 eta 1990 bitartean

	1985	1986	1987	1988	1989	1990
Bartzelona	1.860	2.270	1.913	1.782	2.425	1.953
Bilbo	695	801	809	681	687	546
Granada	1.305	1.300	1.562	1.285	2.119	1.916
A Coruña	590	569	591	543	760	687
Madril	2.867	3.711	3.287	2.829	3.926	3.402
Oviedo	836	779	828	908	1.045	1.048
Mallorca-Palma	266	315	362	419	386	258
Iruñea	73	122	98	100	115	118
Tenerifeko Sta. Cruz	930	931	924	757	1.261	1.191
Sevilla	1.933	1.974	2.107	2.027	2.436	2.306
Valentzia	1.311	1.754	1.708	1.499	1.686	1.419
Valladolid	572	781	725	507	492	519
Zaragoza	267	374	316	307	400	291
GUZTIRA, ESTATUAN	13.705	15.681	15.230	13.644	17.738	15.654

Iturria: Barne Ministeritza, Poliziaren Zuzendaritza Nagusia eta bertan prestatutakoa. "1980-1990 hamarkadan izandako emakumeen aurkako sexu indarkeriari Hurbilketa Kuantitatiboa", Emakumearen Erakundea, Madril, 1991ko uztaila.

* Ez dago uztailleko daturik.

Bilboko Polizi Burugoan, kasu gehienetan bezala, 1986an salaketen kopuruak gora egin du, 87 eta 88an bere horretan mantendu da edo zeredozer gutxitu egin da, 89an berriz ere gora, eta azkenean 1990ean behera egin du.

Bilakaera ez da berdina izan tratu txar fisikoen eta psikikoen kasuan.

Bilbon somatzen den joera beste Polizi Burugoetako antzekoa da. Tratu txar fisikoak murrizten ari omen diren bitartean, psikikoak aldiz gehitzeko joera daukate, 1990ean ezik, orduan behera egin bait zuten, ikus eranskineko A.18 taula.

Bistan denez, tratu txarren arazoa seriozki hartu nahi duen politikak lehenik eta behin eginalak egin behar ditu horrelakorik ahal bada gerta ez dadin, baina, aldi berean, gertatzen direnak sala daitezen salbuespenik gabe. Jakina, horrek efektu nahasgarria sor dezake zenbakiak ulertzeko garaian.

Salaketak gutxitzen direnean, horrekin batera tratu txarrak ere gutxitzen ote diren jakitea ez da erraza izaten, zeren emakumeei behar bezalako laguntza eskainiko balitzaie, salaketak ugaltu beharko bait lirateke.

Salaketak murriztuko balira, ordea, mesfidantzazko erreakzioen bat dagoela horren barrenean ulertuko litzateke, egoera horiek pairatzen dituzten emakumeen aldetik, edo salaketa egiteko garaian esperientzia txarren bat izan dela, eta izan ere, holakorik ez da falta izan harik eta komisaldegi batzuetan laguntza hobetzen hasi diren arte, emakume poliziak ipiniz, tratu iraingarriak baztertuz, e.a.

Bestalde, emakumeek beren independentzia ekonomikoa erdiesteko izaten dituzten zailtasunek salaketak egiteko ekimena oztopa diezaiekete, azken urte hauetan, mugimendu feministari eta emakumearen laguntzarako zerbitzuei esker salaketak jartzeko bidea erraztu baldin bazaie ere.

Edozein modutan ere, tratu txarreko egoera bat legezko denuntzia izatera iristeko dagoen zailtasun hori gutxitzeko, emakumeek jo behar dute beraientzako eratu diren laguntza sozialeko bulegoetara, edota lehen mailako laguntza sozialetako zerbitzueta. Zerbitzu horietan, egoera bat auzitegira eramateko puntura iritsi gabe, emakumeek lasaiago azaltzen dituzte pairatzen ari diren tratu txarren arazoa. Horregatik, era honetako zerbitzuak ugaltu beharko lirateke.

Tratu txar fisikoen artean modalitate batzu bereizten dira. Horien barnean mota berezikoak dira sexu askatasunaren kontrako delituak, bortxaketak eta erasoak

6.8. TAULA Sexu askatasunaren aurkako delituei buruzko kriminalitate orokorra eta erlatiboa, urtez urte eta probintzika

	1987. URTEA		1989. URTEA	
	GUZTIRA	SEXU ASKAT.	GUZTIRA	SEXU ASKAT.
Araba	2.550	16	2.704	39
Bizkaia	15.677	95	15.379	68
Gipuzkoa	8.455	33	6.239	22
GUZTIRA		144		129
Bartzelona	134.823	694	136.513	679
Madril	191.564	920	194.024	84
Valentzia	51.008	239	52.114	203

Iturria: Poliziaren estatistikak. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena, "1980-1990 hamarkadan izandako emakumeen aurkako sexu indarkeriari Hurbilketa Kuantitatiboa", Emakumearen Erakundea, Madril, 1991ko uztaila izeneko idazkitik bildua.

Orotariko kriminalitateari buruzko datuek, kasu guztietan, gehitzeko joera agertzen duten arren, askatasun sexualaren aurkako delituak ia denetan gutxitu egin dira, ikus aurreko taulan eta eranskineko A.18.ean.

Euskal Herriko datuei dagokienean, gehikuntzarik ez da erregistratu Arabako lurralde historikoan ez bada.

Bortxaketa eta erasoei begiratuz gero, 6.9 taulan ikus dezakegu Euskal Herrian 1989 eta 1990 bitartean bortxaketak gehitu egin direla eta erasoak berriz, pittin bat gutxitu.

6.9. TAULA Bortxaketa eta eraso delituak, ezagutu izan direnak. Komunitate Autonomoetan sailkatuta

	1989		1990	
	BORTXAKETAK	ERASOAK	BORTXAKETAK	ERASOAK
Andalusia	261	424	265	401
Aragoa	41	72	29	73
Asturies	64	74	51	55
Baleareak	58	82	54	78
Kanariak	132	171	136	137
Kantabria	21	37	23	25
Gaztela-Mantxa	47	53	39	67
Gaztela-Leon	84	151	31	120
Katalunia	257	475	302	434
Valentziako Komunitatea	175	222	195	235
Extremadura	24	48	28	33
Galizia	100	100	114	108
Madril	331	380	316	329
Murtzia	53	69	34	69
Nafarroa	23	32	15	27
Euskadi	34	68	39	63
Errioxa	6	4	8	4
Ceuta eta Melilla	12	40	21	19
GUZTIRA, ESTATUAN	1.723	2.502	1.789	2.277

Iturria: Barne Ministeritza, Poliziaren Zuzendaritza Nagusia eta bertan prestatutakoa. "1980-1990 hamarkadan izandako emakumeen aurkako sexu indarkeriaren Hurbilketa Kuantitatiboa", Emakumearen Erakundea, 1991ko uztaila.

Oro har, gainerako Komunitate Autonomoetan jokabide berdintsuak aurki ditzakegu, denetan ez bada ere.

TRATU TXARRAK NOZITZEN DITUEN EMAKUMEAREN EZAUGARRIAK

Gai honetaz egin diren azterketa gehienak, bai eta Espainiako toki batzuetan (29) dauden babes etxeetara joaten diren emakumeez egindako zehaztapenak ere, bat datoz tratu txarrak jasaten duen emakumearen ezaugarriak zehazterakoan. Dirudienez baldintza batzu behin eta berriaz errepikatzen dira:

- menpekotasun ekonomikoa
- zein eskubide dituen ez jakitea
- agintarien aurrean, polizia nahiz epaile, nola jokatu ez jakitea
- menpekotasun afektiboa eta psikologikoa

(29) Emakumearen Institutoa. Kultur Ministeritza. "Situación social de la mujer en España, 1986".

- umekiro jokatzeari bizitzaren aurrean
- heldutasunik ez, eta esperientzia gutxi bizitzan
- ama eta emazte soilik izateko heziketa izan dutela. Emakume horiek ezkontzaren porrota nekez onar dezakete.

Ezaugarri hauek kultur maila apalekin edo oso apalekin batera egoten dira, eta maizenik, behe mailako statusekin. Gainera, mota honetako emakumeen artean, errazago justifikatzen dira tratu txarrak, gizonezkoaren nagusitasuna onartu edo aitortzen delako, edo emakumeak berak ere bere eginkizuna bete ez duela uste izaten duelako.

Etxekoandreak aisago jasango dituzte bizikidearen tratu txarrak etxetik kanpo lana egiten duten emakumeek baino, hauek amore gehiago izango dute bere burua defendatu eta bere eskubiak erabiltzeko. Hala ere, alde handiak daude lanarekin zerikusirik daukatenak, eta lana badeazpadakoa izateak edo behar bezala ordaindutakoa izateak egoera alda dezake.

Etxetik kanpo lanik egiten ez duen etxekoandreak babes gutxiago du erasoan aurrean, eta senarraren erasoak, batez ere psikikoak, errazago helduko zaizkio. Emakume horrek bere burua neurtzeko ez du erreferentzi punturik bat bera ere, bere familia ez bada, baina, bestalde eraso fisiko gutxiago jasango du, zeren suposatzen da gizonezko familiburu jatorrak behar adina diru eramango duela etxera eta emakumeak, bere alde, jatorri beteko duela berari dagokion tradiziozko eginkizuna, etxearen eta familiaren ardura izatea, alegia, eta gainera emakume esaneko eta umila bada, baldintza guztiak betetzen dira halako giro bat sortzeko, eraso fisikoak agertzeko joera oztokatzen duena (30).

Dirubide ona daukaten emakumeen artean tratu txar fisikoen indizea asko jaisten da. Emakume horrek aukerak izango ditu gizartean besteekin harremanak izateko, bitarteko ezberdinak izango ditu bera bere kabuz baliatu ahal izateko eta bere buruarekiko oneritzia jasotzeko, eta gainera segurtasuna lortuko du ahalmena badeuela sentituko duelako bere aldeko baliabideak erabiltzeko eta menpekotasun ekonomikoan bizi diren emakumeek izaten duten beldurra, senarrak alde egingo ote dion beldur hori, ez izateko.

Beste alde batetik, emakume multzo handi bat dago hor tartean, eta horiek dirusarrera nahikoa ez izan arren, etxekoandre tradizionaltzat ere ez daitezke har. Horien artean badirudi tratu txar fisiko gehiago izaten dela, eta hori uler daiteke haien ekonomia eta famili egoera gogoan hartzen bada, bide erdian baitaude, atzera ala aurrera egin ezinik. Toki aparta mehatxu fisikoak ugaltzeko. Kinka horretan dagoen emakumea ez da "senarraren menpe egoteko" behartua sentitzen, eta honek ez du "nahi duen bezala maneiatuko", baina bestalde ez du aukerarik izango senarraren maila berean egoteko ere. Emakumearen eginkizunari buruzko zehaztapen eskas hau dela eta, zehaztapen konplexua eta kontraesanekoa zinez, bikoteko kideek nekez bereganatuko dute horren edukia (31).

(30) Balda Medarde, M.^a Luisa. "Informe sobre malos tratos en La Rioja n.º 1". Errioxako Gobernua. Lan eta Gizarte Ongizate kontseilaritza, 1987.

(31) Balda Medarde, M.^a Luisa, op. aipat. 67-68 orr.

ERASOTZAILEAREN EZAUGARRIAK

Tratu txarren gaineko txosten horretan, atzerrian egindako ikerketa psikosozialen emaitza batzu agertzen dira, eta horietatik ateratzen diren ondorioek erakusten digute hor aldagai batzu baidirela, gutxiago edo gehiago esplikatzen dutenak zergatik dagoen bikote batzuetan bestetan baino tratu txarrerako joera handiagoa, nahiz eta konponezin larriak bietan izan. Erasotzailearen ezaugarriak dira gehienbat:

- Emakumeari buruz jarrera oso atzerakoia izatea (matxista).
- Alkoholtzalea: faktore hau ez zen mota bateko eta besteko bikoteen bereizgarria, aipatu behar da tratu txar fisikoa alkoholarekin % 50 kasutan bakarrik lotzen ahal dela.
- Baiezpena: erasotzaile fisikoak emaztearekin hitz egiteko izua azaleratzen du, ez baita gai harekin mintzatzeko; komunikatzeko oztopoak ditu eta ezintasuna bere sentimenduak adierazteko.
- Gizonezkoaren norberestimazioa: erasotzaile fisikoek eritzi txarragoa dute beren buruarekiko beste gizonek baino, zeinek, nahiz eta konponezin larriak izan horregatik ez dira tratu txarrera lerratzen.

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen robot-argazki bat egitea zaila baldin bada, are zailagoa da erasotzailearena egitea. Miatutako ikerketen ezaugarrietako bat da erasotzailea zehazten duten bereizkuntzak hein handi batean ez direla ezagutzen. Baina besterik ezean datu adierazgarri batzu bildu ditugu:

- Erasotzailea, eskuarki, senarra izaten da, edo bizilaguna edo senar-ohia. Beste kasu batzuetan senitartekoren bat ere —askotan aita— izan daiteke. Gainera erasotzaile erreinzidentea izan ohi da eta sarritan multireinzidentea ere bai. Horrek esan nahi du tratu txarrak etengabe gertatzen direla, etxean segido izaten direla, eta eraso horien berri izateko kasu larria edo jipoi baten ondoriozko zauri handiak izan behar direla.
- Pertsona oldartsuak berdín izan daitezke alkohol gehiegi edaten dutenak eta baita, bitxikeria dirudien arren, edaten ez dutenak ere. Hau da, anitzetan tratu txarren funtsa ezkontidearen alkoholzaletasunean bilatu behar bada ere (erasotzaileen erdia inguru alkoholzaletuak dira), horietako askok ez daukate ezaugarri berezirik, esan nahi baita, printzipioz pertsona “normalizat” har daitezke, eta ez daukate tratu txarren arrazoia esplika lezakeen faktorerik.

Erasotzailearen beste bereizgarriak dira, besteak beste, adimen gaisotasuna, lanik eza eta drogamenpekotasuna, nahiz eta neurri apalagoan izaten diren. Langabeziari dagokionean, esan behar da, bera bakarrik ez dela indarkerien sortzaile, baina indarkeria errazago azalduko da, lanik gabe egoteak estuasuna eta ahalik eza motatako sendimenduak sortarazten dituelako.

- Eraso motak badirudi ez duela zerikusirik erasotzailea definitzen duten ezaugarriekin. Edozein dela ere erasotzailearen problema, horrek tratu txar fisiko eta psikikoak sortzen ditu aldi berean.

Esanak esan, hala ere, dirudienez bada halako lotura bat maila ekonomiko/status sozialaren eta tratu txar fisiko eta psikikoen artean.

Bai tratu txar fisikoa, nola psikikoa, gizarte maila guztietan azaltzen dira, haatik, lehenengoak maizago gertatzen dira baliabide ekonomiko apalenak dituzten gizonezkoetan.

Eta tratu txar psikikoa, berriz, gehienbat famili unitatera nahikoa diru eramaten duten gizonezkoen ekintza izaten da. Eta horien eraginez, hain zuzen ere, eraso psikikoa zorrotzagoa eta landuagoa baita, emakumearen borondatea, oreka eta segurtasuna higatuz joango da. Tratu txar mota honen egilea goi mailako eta hitzjario handiko gizonezkoa izan ohi da.

INDARKERIAZKO GIROAN BIZI DIREN HAURRAK

Emakumeenganako tratu txarrak izaten diren familietan oso normala izaten da seme-alabak edukitzea. Eta horixe da kezkagarria, haur horien bizitza, familia barruan izaten diren eraso eta tratu txarrez betetako giroan pasatzen delako, eta okerrago oraindik, era horretako ia etxe guztietan umeez ere tratu txarrak jasan behar dituztelako.

Ingurune erasokor horretan, non igarotzen baita lehen aldiko sozializazioa, dena kontraesaneko aginduz, jarrez eta ereduz beteta dagoenez haurrak nahasi egiten dira, segurtasuna galtzen dute eta etsipenean erortzen dira. Halako pertsona helduekin bizitzeak, hain egoera txarkituan, non beti liskarrean, hitzeko erasora edo fisikora sarri heltzen baitira, atarramendu txarrik ugari ekarriko dizkio haurrari, helduen bizitza eta bikotearen harremanen irudiari dagokionean.

Giro horretan dauden haurrek mehatxuz betetako mundu bat bizi dute, segurtasunik gabekoa, sendimenduzko tinkotasunik eskaintzen ez dien ama batekin, eta ikusiaz bat beldurrez ikaran jartzen dituen aita batekin (32).

Aditu batzuek adierazten dute amarenganako tratu txarrek esanahi ezberdina izan dezaketela mutiko batentzat eta neskato batentzat. Esan beharrik ez dago hori kontuan edukitzekoa dela gero horiekin lan egiteko. Biak, mutikoa zein neskatoa, gizonaren eta emakumearen eginkizuna onartzera behartuak daude, eta eginkizun horretan gizonezkoaren basakeria da nagusi.

Tratu txarra da, halaber, aitak ama nola iraintzen duen eta zer tratu txarra ematen dion ikustea, edo senideek ere zer tratu txarrak hartzen dituzten ikustea, hau da hitz gutxitan esanda, basakeriaren mehatxu amaigabea.

Neskatoentzat heziketa lotsagarria da aitak amaren aurka darabilen basakeria ikustea. Haurrak berak ere sufritu egiten du hainbeste maite duen ama horrek pairatzen duen laidoa, eta hor sortzen da umearengan emakume ahularenganako mespretxuaren hazia, umea ezin delako harekin identifikatu.

Askotan ama, senarrak tratu txarrez eta laidoz betea, laguntza eske joango da seme-alabengana, aitak ematen dizkion atsekabe guztiak kontatuko dizkie, eta agian ustekabez, aliatutzat hartuko ditu.

Seme-alaba batzu amaren alde jartzen dira kementsu, berak eskatu gabe, ez baitute aitaren basakeria ulertzen eta geroago kozkortzen direnean aurre egiten diote aitari. Zernahi gisaz, bizimodu latza da haurrentzat, haien nortasuna erabat ukitzen duena, eta gainera marginalitate

(32) Herrera Rivera, Alicia. "Mujeres Maltratadas", Emakumea eta Gizarte Zerbitzuak. Dokumentuak saila, 5. Kultura Ministeritza. Emakumearen Institutua, 1984eko irailean.

egoera desberdinetan bizitzeko arrisku bizian jartzen dituen. Haurren eremu horretan egin behar sakona dago, berreskuratze psikologikoa eta soziala, umeari suerta dakioken desegokitza-pena saihesten ahaleginduko dena.

Babes etxe batera iritsi diren haur eta emakumeek tratatu txarren ondorioz agertzen dituzten **arazo psikologikoak** funtsez ondoko puntuetan oinarritzen dira (33):

- Agresibitate ikaragarria, bideratu gabea, antzeman dakieke inguratzen dien guztia sistematikoki desegiten dutelako, autokontrolari uko eginez.
- Gurasoen aldetik maitasun, laguntza eta heziketarik eza, horrek umeengan galera sentipen bat sortzen du eta sarritan ahalegintzen dira gurasoen arreta lortu nahian, adibidez beren buruaz beste egiteko saioak eginez.
- Gaueko izuak, maiz gertatzen zaie haur horiei izututa iratzartzea bizi duten egoerak direla bide amesgaiztoak izan ondoren, egoera horiek ametsetan azaltzen bait zaizkie.
- Hiper-erantzukizuna, gehienetan haur horien familiak eta gizarte inguruneak behartu dituzte artean oso ume direlarik (4 edo 5 urte) erantzukizunak beren gain hartzera eta familiako zereginez arduratzera, eta horren kariaz arazo larriak izaten dituzte beren garapen emozionalen.
- Haur osasuntsuak dira, baina horien nortasuna ezin da behar bezala garatu, eredu desegoki batean bizi direlako. Gehienetan amak ezin die heziketa egokirik eman, ez gizarte jokabidearen arau batzu, eta benetan ezta maitasunik ere, behar bada ezin duelako, ez dakielako heldutasun edo heziketa faltaz, edo antzeko arrazoiengatik. Horrek, haurrak galduta sentitzera daramatza, aurrera egiteko gauza ez direla, eta orduantxe hasten da haien nortasunaren urradura, terapia baten bitartez gera erazi eta aldatu egin behar dena.

Giro erasokor horietan bizi diren haurrei kalte handia egiten zaie eta horri lehentasuna eman behar zaio tratatu txarren arazoari aurre egiterakoan, hurrekin egin daitekeelako benetan prebentziozko lan bat.

Kapitulu honetan zehar ikuskatu dugu emakumearen estuasun eta bazterketa egoera, arreta berezia paratuz bi multzo konkretuetan: familiburu emakumea duten familiak eta tratatu txarrak pairatzen dituzten emakumeak.

Horrek ez du esan nahi horiek direla aztergai bakarrak, baina biek azaltzen dizkigute emakumeen egoerarekin erlazionatzen diren bi arazo larri, gizarteak behar adina aitortzen ez dituenak. Datu hauek aurkeztearekin arazo hauek gizartera atera nahi dira eta eskubidearen kontzientzia sortu edo emendatu, soluziobiderako neurri eraginkorrak martxan jarri ahal izateko.

(33) Emakumearen Institutua. Aipatutako obra, 812-813 orr.

E

ERANSKINA

A.1. TAULA E.K.A.ko populazioaren egitura, 1975, 1981 eta 1986an, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuta (mila pertsonatan)

	1975			1981			1986		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
0-14	281,1	296,8	578,2	266,5	283	549,6	226,6	239,4	466,1
15-29	244,6	246,7	491,3	255,8	260,3	516,1	264,7	271,2	535,9
30-44	205,4	212,5	418,0	205,8	211,9	417,7	215,6	220	435,7
45-64	211,2	201,9	413,1	233,6	229,7	463,3	241,6	238,4	480
65 eta +	102,5	68,7	171,2	118,3	76,5	194,8	133,4	84,7	218,2

Iturria: EUSTAT, 1970-1986, Demografi herrenkada homogenoak. Bertan prestatutakoa.

A.2. TAULA E.K.A.ko biztanlegoaren aldaketa portzentuala 1986an, 1981 eta 1975eko-arekin alderatuta, adinaren eta sexuaren arabera sailkatuta

	1986/91EKO GEHIKUNTZA			1986/75EKO GEHIKUNTZA		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
0-14	-15	-15,4	-15,2	-19,4	-19,3	-19,4
15-29	3,5	4,2	3,8	8,2	9,9	9,9
30-44	4,8	3,8	4,3	5	3,5	3,5
45-64	3,4	3,8	3,6	14,4	18,1	18,1
65 eta +	12,8	10,7	12	30,1	23,3	23,3

Iturria: EUSTAT, 1970-1986, Demografi herrenkada homogenoak. Bertan prestatutakoa.

A.3. TAULA E.K.A.ko ezkontzak, emaztearen adina kontutan hartuta

	< 20	20-24	25-29	30-39	≥ 40	TOTAL
1950	2,8	37,2	36,4	19,2	4,4	100
1960	4,6	36,6	37,7	17,1	4	100
1970	6	53,6	28,2	8,5	3,7	100
1975	11,1	56,3	23,5	6,4	2,7	100
1980	14	56,7	21	6,3	2,1	100
1985	7,2	43,1	37,8	10	1,9	100
1990	2,7	26,5	50,2	17,8	2,8	100

Iturria: MNP, INE eta EUSTAT.

A.4. TAULA E.K.A.ko jaiotzen bilakaera, amaren adina kontutan hartuta

	AMAREN ADINA HAURRA JAIOTZEAN (% horizontala)				
	< 20	20-24	25-29	30-34	< 34
1975	3,3	24,2	38	21,3	13,2
1981	4,7	25,1	36,6	22,3	11,3
1986	2,8	16,1	40	28,9	12,1
1990	1,9	11,3	36	38,5	12,4

Iturria: MNP, INE eta EUSTAT.

A.5. TAULA O.H.O.ko errepikatzaileak, sexuaren eta adinaren arabera

	HASIERAKO ZIKLOA			ERDIKO ZIKLOA			GOIKO ZIKLOA			GUZTIRA		
	IKASLEAK GUZTIRA	ERREPIK. KOP.	ERREP. KOP./ IKASLE GUZT.	IKASLEAK GUZTIRA	ERREPIK. KOP.	ERREP. KOP./ IKASLE GUZT.	IKASLEAK GUZTIRA	ERREPIK. KOP.	EREP. KOP./ IKASLE GUZT.	IKASLEAK GUZTIRA	ERREPIK. KOP.	EREP. KOP./ IKASLE GUZT.
Neskatoak	23.990	429	1,8	43.209	1.151	2,7	53.577	3.070	5,7	120.776	4.650	3,8
Murikoa	25.901	619	2,4	46.267	1.715	3,7	58.393	4.581	7,8	130.561	6.915	5,3
GUZTIRA	49.891	1.048	2,1	89.476	2.866	3,2	111.970	7.651	6,8	251.337	11.565	4,6

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90".

A.6. TAULA Irakaskuntza Ertainetan hasten den ikaslegoaren hautapenen banaketa, sexuaren arabera

	L.H. EGOKITUA		L.H.		BBB		IEE		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskak	235	18,8	4.188	50,45	12.631	55,8	6.908	55,8	28.419	47,6
Mutilak	1.016	81,2	4.133	49,55	9.992	44,2	9.978	44,2	31.283	52,4
GUZTIRA	1.251	100	8.301	100	22.623	100	16.886	100	59.702	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90".

A.7. TAULA L.H.ko bigarren graduaren ikaslegoa irakaskuntza izaera eta adara kontutan hartuz eta sexuaren arabera sailkatuta. (% horizontalak)

	GUZTIRA	EMAKUMEZKOA	GIZONEZKOA
Administrazioa eta Merkataritza	11.077	72	28
Nekazaritza	256	14,8	85,2
Arte Grafikoak	184	40,2	59,8
Automozioa	1.067	1,6	98,4
Eraikuntza eta Obrak	—	—	—
Delineazioa	1.568	19,5	80,5
Elektrizitatea	6.590	2,1	97,9
Etxea	673	98,2	1,8
Ostalaritza eta Turismoa	649	33,3	66,7
Irudia eta Soinua	648	35,8	64,2
Zurgintza	249	0,8	99,2
Itsasoa eta Arrantza	38	—	100
Metalgintza	4.494	1,8	98,2
Meatzaritza	—	—	—
Moda eta Jantzigintza	82	100	—
Ileapainketa eta Estetika	615	94,6	5,4
Larrugintza	—	—	—
Kimika	637	32,5	67,5
Osasungintza	1.227	92	8
Ehungintza	—	—	—
Beiragintza eta Zeramika	—	—	—
Beste batzu	—	—	—

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90".

A.8. TAULA Ikaslegoa, graduatan eta irakaskuntza izaera eta adarra kontutan hartuz eta sexuaren arabera sailkatuta. (% horizontaletan)

	GUZTIRA	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
	Abs.	%	%
Administrazioa eta Merkataritza	16.792	73,7	26,3
Nekazaritza	435	11,5	88,5
Arte Grafikoak	286	40,2	59,8
Automozioa	1.584	1,6	98,4
Eraikuntza eta Obrak	—	—	—
Delineazioa	2.323	20,4	79,6
Elektrizitatea	9.395	2	98
Etxea	1.059	98,8	1,2
Ostalaritza eta Turismoa	799	31,7	68,5
Irudia eta Soinua	707	36,5	63,5
Zurgintza	578	1,4	98,6
Itsasoa eta Arrantza	98	—	100
Metalgintza	6.818	1,8	98,2
Meatzaritza	—	—	—
Moda eta Jantzigintza	161	99,4	0,6
Ileapainketa eta Estetika	2.493	94,5	5,5
Larrugintza	—	—	—
Kimika	948	28,7	71,3
Osasungintza	2.360	94,1	5,9
Ehungintza	—	—	—
Beiragintza eta Zeramika	—	—	—
Beste batzu *	2.360	18,6	81,4

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90".

* Osabidezko, Lanbidearteko eta Balianizdun Hezkuntzako Ikasleak —neskak eta mutilak— bil-tzen ditu.

A.9. TAULA HHleko emakumezko ikasleak zikloka eta adinaren arabera

	1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA	GUZTIRA
14-15	55	171	1.381	1.607
15-19	45	60	616	721
20-29	84	152	785	1.021
29-40	224	396	925	1.545
≥ 40	434	268	331	1.033
GUZTIRA	842	1.047	4.038	5.927

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90".

A.10. TAULA E.K.A.n bertako baliabideak erabiliz INEMek prestatu duen populazioa 1990ean, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuta

	< 20	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	45-49	50-54	55-59	< 59	GUZTIRA	
Emakumeak	454	1.767	1.153	587	415	235	82	19	9	3	4.724	34,4
Gizonak	959	1.920	1.439	1.060	1.180	1.266	791	371	11	14	9.011	65,6
GUZTIRA	1.413	3.687	2.592	1.647	1.595	1.501	873	390	20	17	13.735	100

Iturria: Lanerako prestakuntzari buruzko estatistika, INEM 1990.

A.11. TAULA Euskadiko K.A.ko irakaslegoa, sexutan sailkatuta

	ESKOLAURREA		OHO		HHI		HB		BBB	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumezkoak	2.779	93,1	10.137	73,3	230	59,9	233	78,5	3.001	57,2
Gizonezkoak	206	6,9	3.697	26,7	154	40,1	64	21,5	2.250	42,8
GUZTIRA	2.985	100	13.834	100	384	100	297	100	5.251	100

	LH		GETetako FAKULTATEAK		ESKOLA UNIBERTS.		BESTE BATZU		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumezkoak	1.450	36,5	620	24,9	353	37,8	34	27,7	18.468	62,4
Gizonezkoak	2.526	63,5	1.868	75,1	581	62,2	89	72,3	11.126	37,6
GUZTIRA	2.488	100	2.488	100	934	100	123	100	29.589	100

Iturria: EUSTAT, "Irakaskuntzari buruzko estatistika, 1989-90".

A.12. TAULA Berrikuntza proiektua eta irakasleentzako mintegiak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1990/91 eta 1991/92 ikasturterako onartutakoak

1990/91KO IKASTURTEA

1. Unidades didácticas sobre coeducación. KB 225
C.P. Munoa. EGB. Barakaldo.
2. Sexualidad y afectividad. KB 222
I.B. Gabriel Aresti. BUP. Bilbao.
3. Coeducación. MB 035
I.F.P. Emilio Campuzano. F.P. Bilbao.
4. Coeducación. KB 213
C.P. Santiago Apostol. EGB. Ermua.
5. Benetazko kohezkuntzaruntz
Larrabetzu Inguruko Eskola. Larrabetzu.

1991/92KO IKASTURTEA

1. Zeharkako gaiak ziklo desberdinetan. K3G 042
Alkartasuna Lizeoa. Beasain.
2. Tratamiento de áreas transversales en el curriculum escolar. K6G 237
C.P. Sasoeta. Lasarte.
3. Detectar e identificar el sexismo en la escuela. Medidas de acción positiva en el preescolar. M4G 059
Pedro M.ª Otaño I.P. Zizurkil.
4. Formación para la educación afectivo-social. F8B
C.P. Ibaibe. Barakaldo.
5. Unidades didácticas sobre coeducación. K8B 286
C.P. Munoa. Barakaldo.
6. Coeducando a ADARRA desde ADARRA. M0b 103.
Colectivo Pedagógico Adarra. Bilbao.
7. Coeducación. K10B 318
C.P. Maestra Isabel Gallego Gorria. Bilbao.
8. Ikastetxeko hezkidetza proiektua. M0B 113
Grupo Educación:BEA-STEE.EILAS. Bilbao.
9. Necesidad de una enseñanza coeducativa en el centro. K11B 372
I.B. Gabriel Aresti. Bilbao.
10. Emakumeen lana 3. munduan eta historian zehar. M0B 100
I.B. Gabriel Aresti. Bilbao.
11. Proyecto de Coeducación en el centro. K2B 041.
C.P. Santiago Apóstol. Ermua

A.13. TAULA Heriotzak, adinaren arabera sailkatuta eta heriotz eragileen multzo murriztuak, sexutan banatuta. (% bertikaletan)

	0			1-4			5-14		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Tumoreak	1,5	3,8	—	4,5	14,3	—	23,2	33,3	17,1
Zirkulazio aparatuen eritasunak	5,4	3,8	6,4	9,1	—	13,3	12,5	14,3	11,4
Arnas aparatuen eritasunak	2,3	3,8	1,3	—	—	—	—	—	—
Lixariketa aparatuen eritasunak	2,3	1,9	2,6	—	—	—	—	—	—
Ezbeharrak	1,5	1,9	1,3	18,2	—	26,6	42,9	38,1	45,7
Gainerako gaisotasunak	86,8	84,6	88,3	68,2	85,7	60,1	21,4	14,3	25,8
GUZTIRA %	100	40,3	59,7	100	31,8	68,2	100	37,5	62,5
Abs.	129	52	77	22	7	15	56	21	35

	15-24			25-34			35-44		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Tumoreak	7,6	9,8	6,8	15,6	25,8	12,1	36,5	53,8	28,9
Zirkulazio aparatuen eritasunak	9	6,9	9,7	12,2	9,3	13,2	19,8	11,9	23,3
Arnas aparatuen eritasunak	4	6,9	2,9	2,1	1	2,5	3,6	3,5	3,6
Lixariketa aparatuen eritasunak	1,4	1,4	1,4	4,5	9,3	2,8	9,1	7,7	9,7
Ezbeharrak	62,8	51,4	66,8	38,1	29,9	40,9	21,9	13,3	25,7
Gainerako gaisotasunak	15,2	23,6	12,4	27,5	24,7	28,5	9,1	9,8	8,8
GUZTIRA %	100	26	74	100	25,7	74,3	100	39,2	69,8
Abs.	277	72	205	378	97	281	474	143	331

	45-54			55-64			65-74		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Tumoreak	45,8	52,5	43,1	45,7	48	44,9	37,6	34,2	39,3
Zirkulazio aparatuen eritasunak	22,7	20,8	24	25,6	23,5	26,4	32,7	35,5	31,2
Arnas aparatuen eritasunak	3,3	3,9	2,6	4,6	3,7	5	8,1	5	9,8
Lixariketa aparatuen eritasunak	10,2	8,9	10,8	9	8,1	9,3	6,4	6,1	6,9
Ezbeharrak	11,7	5,8	14,2	6,5	5	6,9	3	3,3	2,9
Gainerako gaisotasunak	6,3	8,1	5,3	8,6	11,7	7,5	12,2	15,9	9,9
GUZTIRA %	100	29,5	70,5	100	26,4	73,6	100	34,1	65,9
Abs.	879	259	620	2.139	565	1.574	3.054	1.041	2.013

	> 75			GUZTIRA		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Tumoreak	18	14,7	22,6	27,5	22,7	31,3
Zirkulazio aparatuen eritasunak	47,1	52,8	41	37	43,4	32,1
Arnas aparatuen eritasunak	11,7	9,4	14,9	8,8	7,7	9,6
Lixariketa aparatuen eritasunak	4,9	4,5	5,5	6,2	5,3	6,8
Ezbeharrak	1,3	—	1,6	5,7	3,1	7,8
Gainerako gaisotasunak	17	18,6	14,4	14,8	17,8	12
GUZTIRA %	100	57,6	42,4	100	44,6	59,4
Abs.	8.018	4.621	3.397	15.426	6.878	8.548

Iturria: E.K.A.ko Oasunari buruzko inkesta. 85-86.

A.14. TAULA Osasun arazoen iraupena populazioan, adin eta sexutan sailkatuta

	< 14 urtea			15-24			25-64		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZT.	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZT.	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZT.
Ez	40,7	39,8	40,2	37	41,8	39,4	17,4	27,1	22,2
Bai	59,3	60,2	59,8	63	58,2	60,6	82,6	72,9	77,8
GUZT. %	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Abs.	2.460	2.632	5.092	2.090	2.050	4.140	6.303	6.117	12.420

	65 eta +			GUZTIRA		
	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZT.	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZT.
Ez	9,1	12,2	10,4	24	30,8	27,3
Bai	90,9	87,8	89,6	76	69,2	72,7
GUZT. %	100	100	100	100	100	100
Abs.	1.771	1.234	3.005	12.624	12.033	24.657

Iturria: E.K.A.ko Osasunari buruzko inkesta. 85-86.

A.15. TAULA Populazioaren banaketa, aisialdietan egiten den ariketa fisikoaren arabera, adin eta sexutan sailkatuta

	EMAKUMEAK							
	16-24		25-64		65 eta +		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Egonkorra	38	63,3	291	67,2	104	78,8	433	69,3
Aski saiatua	15	25	84	19,4	18	13,6	117	18,7
Saiatua	3	5	41	9,5	6	4,5	50	8
Oso saiatua	4	6,7	17	3,9	4	3	25	4
GUZTIRA	60	100	433	100	132	100	625	100

	GIZONAK							
	16-24		25-64		65 eta +		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Egonkorra	27	35,1	222	63,4	69	89,6	318	63,1
Aski saiatua	17	22,1	73	20,9	5	6,5	95	18,8
Saiatua	13	16,9	39	11,1	1	1,3	53	10,5
Oso saiatua	20	26	16	4,6	2	2,6	38	7,5
GUZTIRA	77	100	350	100	77	100	504	100

Iturria: E.K.A.ko Osasunari buruzko inkesta. 85-86.

A.16. TAULA Gurasobakarreko familien proportzioa zenbait estatutan

ESTATUA	GURASOBAKARREKO FAMILIEN %A				EMAKUMEZKOA BURU DUTEN GURASOBAKARREKO FAMILIEN %A	
	URTEA	%	URTEA	%	URTEA	%
Frantzia	1975	9,3	1982	10,2	1982	79
Britainia Handia	1971	8,8	1984	13	1984	91
Irlanda	—	—	1981	7,1	1981	80
Italia	—	—	1981	9,4	—	—
Suedia	1970	14,8	1970/80	27	1979/80	90
Estatu Batuak	1970	12,8	1984	25,7	1984	89

Iturria: J. Millar (1987), H. Le Bras (1979); Frantziaren kasuan, zentsuetatik jasotakoa.

OHARRA: Erabili izan den definizioan familiazat ulertzen da 18 urtetik beherako seme-alabak dituen, eta Frantzian, 25 urtetik beherako seme-alaba ezkongaiak dituen.

A.17. TAULA 1981-1989 bitartean ordaindu ez diren pentsioak, lurraldez lurralde eta portzentaiak kontutan hartuz

	ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	ORDAINGABEAK		BEREIZ/DIBOR.		TASA ADIERAZ.	ORDAINGABEAK		BEREIZ/DIBOR.		TASA ADIERAZ.	ORDAINGABEAK		BEREIZ/DIBOR.		TASA ADIERAZ.
	Abs.	%	Abs.	%		Abs.	%	Abs.	%		Abs.	%	Abs.	%	
1981	11	5,6	189	9,1	61,5	43	8,1	441	6,1	132,8	40	7	255	5,2	134,6
1982	14	7,1	156	7,5	94,7	126	23,6	1.256	17,4	135,6	90	15,7	387	7,8	201,2
1983	13	6,6	179	8,6	76,7	88	16,5	1.047	14,5	113,8	91	15,9	462	9,4	169,1
1984	18	9,1	199	9,5	95,8	79	14,8	964	13,1	113	91	15,9	719	14,6	108,9
1985	26	13,2	200	9,6	137,5	74	13,9	989	13,7	101,4	102	17,8	1.015	20,6	86,4
1986	33	16,8	277	13,3	126,3	65	12,3	1.037	14,3	86	68	11,9	742	15	79,3
1987	41	20,8	296	14,2	146,5	49	9,2	1.038	14,3	64,3	68	11,9	672	13,6	87,5
1988	33	16,8	359	17,2	97,7	9	1,6	473	6,6	24,2	23	4	682	13,8	28,9
1989	8	4	231	11	36,4	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	197	100	2.086	100	—	533	100	7.245	100	—	573	100	4.934	100	—

Iturria: EMAKUNDE. Bereizte eta dibortzioen ondorioz ezarritako pentsioak ez ordaintzea, Gasteizen eta bere eraginpeko eremuan, 1990.

A.18. TAULA Emazteek nozitzen dituzten tratu txarrak direla eta, beren senarraren kontra 1985 eta 1990 bitartean egindako salaketak, Polizi Komisaldegien eta tratu txarren arabera sailkatuta

	1985			1986			1987		
	PSIK. FISIK.	PSIK.	FISIK.	PSIK. FISIK.	PSIK.	FISIK.	PSIK. FISIK.	PSIK.	FISIK.
Bartzelona	572	378	910	747	435	1.088	676	346	891
Bilbo	289	108	298	368	138	295	398	176	235
Granada	452	539	314	649	340	311	620	577	365
A Coruña	208	101	281	240	109	220	284	104	203
Madril	878	672	1.317	1.278	946	1.487	1.246	824	1.217
Oviedo	314	200	322	313	183	283	279	251	298
Mallorca-Palma	23	16	227	18	18	279	55	68	239
Iruñea	27	6	40	38	18	66	20	19	59
Tenerife Sta. Cruz	302	203	425	277	252	402	323	287	314
Sevilla	657	455	821	657	548	769	631	578	898
Valentzia	339	296	676	734	257	763	764	289	655
Valladolid	210	143	219	344	182	255	381	150	194
Zaragoza	167	39	61	167	90	117	153	64	99
GUZTIRA NACIONAL	4.638	3.156	5.911	5.830	3.516	6.335	5.830	3.733	5.667

	1988			1989			1990 (*)		
	PSIK. FISIK.	PSIK.	FISIK.	PSIK. FISIK.	PSIK.	FISIK.	PSIK. FISIK.	PSIK.	FISIK.
Bartzelona	530	508	744	582	613	1.230	587	649	717
Bilbo	299	173	209	209	229	249	139	163	244
Granada	637	338	310	1.190	464	465	1.076	385	455
A Coruña	267	123	153	387	190	183	380	158	149
Madril	1.096	673	1.060	1.544	1.006	1.376	1.477	803	1.122
Oviedo	390	253	265	581	231	233	541	264	243
Mallorca-Palma	72	69	278	201	27	158	228	4	26
Iruñea	35	15	50	41	21	53	27	24	67
Tenerife Sta. Cruz	266	212	279	499	418	344	507	388	296
Sevilla	701	622	704	845	892	699	713	857	736
Valentzia	634	278	587	728	381	577	673	320	426
Valladolid	246	106	155	213	148	131	222	147	150
Zaragoza	149	70	88	159	102	139	110	88	93
GUZTIRA NACIONAL	5.322	3.440	4.882	7.779	4.722	5.837	6.680	4.250	4.724

Iurria: Barne Ministeritza, Poliziaren Zuzendaritza Nagusia eta bertan prestatutakoa, "1980-1990 hamarkadan izandako emakumeen aurkako sexu indarkeria. Hurbilketa Kuantitatiboa", Emakumearen Erakundea, 1991ko uztaila.

(*) Ez dago uztaileko daturik.

A.19. TAULA Sexu askatasunaren aurkako delituei buruzko kriminalitate orokorra eta erlatiboa, urtez urte eta probintzika

	1987		1989	
	GUZTIRA	SEXU ASKAT.	GUZTIRA	SEXU ASKAT.
Araba	2.550	16	2.704	39
Albacete	3.743	44	4.091	43
Alacant	30.829	200	28.774	176
Almeria	6.535	45	7.910	43
Avila	1.397	8	985	4
Badajoz	5.499	51	5.592	51
Baleareak	19.139	162	25.077	142
Bartzelona	134.823	694	136.513	679
Bizkaia	15.677	95	15.379	68
Burgos	5.588	44	6.244	34
Caceres	2.876	13	1.499	16
Cadiz	20.972	153	22.119	157
Castellon	4.871	21	5.282	41
Ciudad Real	2.988	41	3.282	47
Cordoba	11.529	63	8.855	76
A Coruña	11.654	61	15.061	76
Cuenca	1.308	17	1.058	30
Errioxa	3.373	12	7.321	44
Gerona	8.386	48	8.321	52
Gipuzkoa	8.455	33	6.239	22
Granada	16.906	88	16.495	107
Guadalajara	5.998	100	1.132	10
Huelva	6.269	18	6.279	20
Huesca	1.112	17	1.102	12
Jaen	6.367	70	6.705	52
Leon	4.990	44	4.800	41
Lleida	3.256	30	4.199	41
Lugo	1.855	21	2.689	12
Madril	191.564	920	194.024	84
Malaga	42.494	196	36.608	165
Murtzia	14.514	107	15.774	153
Nafarroa	7.543	4	9.915	51
Ourense	1.810	12	2.164	8
Oviedo	14.894	128	14.204	154
Palentzia	2.343	18	1.744	18
Palmak	22.870	203	27.091	190
Pontevedra	8.686	86	13.161	97
Salamanca	5.213	40	5.211	41
Tenerifeko Santa Cruz	9.814	104	16.206	105
Santander	7.537	81	5.228	65
Segovia	1.504	7	967	5
Sevilla	36.822	144	39.372	42
Soria	498	2	593	4
Tarragona	6.817	37	6.986	59
Teruel	528	1	564	7
Toledo	3.339	22	2.988	10
Valentzia	51.008	239	52.114	203
Valladolid	9.139	92	7.054	88
Zamora	1.926	22	1.537	12
Zaragoza	16.884	114	14.848	123
GUZTIRA	806.746	4.776	824.331	4.692

Iturria: Polizi Estatistikak. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren txostenak "1980-1990 hamarkadan izandako emakumeen aurkako sexu indarkeriari Hurbilketa Kuantitatiboa", Emakumearen Erakundea, 1991ko uztaila.